

01

COLECCIÓN **GAZTEAK**BILDUMA

**KGK**

# Osasuna eta gazteak

Euskadiko gazteen ikusmoldeak  
osasunari buruz

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-2705-8



9 788445 727058

Salneurria/P.V.P.: 18 €

**KGk**

# Osasuna eta gazteak

Euskadiko gazteen  
ikusmoldeak osasunari buruz

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

**Argitaraldia:** 1.a, 2008ko apirila

**Ale-kopurua:** 2.000 ale

**©** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

**Internet:** [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Egilea:** Gazteen Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de la Juventud

**Koordinazio editoriala:** Bakarne Zuazua Astarloa

**Itzulpena:** Lierni Landa eta Asier Irizar

**Bildumaren diseinua:** Canaldirecto • [www.canal-directo.com](http://www.canal-directo.com)

**Fotokonposaketa eta inprimaketa:** RGM, S.A. - Aita Larramendi, 2 (48012 Bilbao)

**ISBN:** 978-84-457-2705-8

**L. G.:** BI-1091-08

# Aurkibidea

<b>AURKEZPENA</b> .....	19
<b>SARRERA</b> .....	21
<b>1. ANALISI KUALITATIBOA</b> .....	25
<b>1.1. Gazteen eremua</b> .....	27
1.1.1. Asteburuan irtetea .....	35
1.1.2. Indarkeriaren «egunerokotasuna» gazteen inguruneetan .....	38
<b>1.2. Drogen kontsumoa</b> .....	40
1.2.1. Alkoholaren kontsumoa .....	41
1.2.2. Kanabisaren kontsumoa .....	45
1.2.3. Kokainaren kontsumoa .....	48
<b>1.3. Osasunari eta praktika osasungarriei buruzko ikusmoldeak</b> .....	48
1.3.1. Emakumeek osasunari buruz duten ikusmoldea .....	49
1.3.2. Gizonek osasunari buruz duten ikusmoldea .....	50
1.3.3. Nork bere burua zaintzea gazteen artean .....	51
1.3.4. Elikadura zaintzea .....	52
1.3.5. Ariketa fisikoa egitea .....	54
1.3.6. Bide segurtasuna .....	56
1.3.7. Harreman afektibo-sexualak .....	58
<b>1.4. Gaixotasun kezkagarriak</b> .....	61
<b>1.5. Osasunaren sustapena eta hezkuntza</b> .....	64
<b>1.6. Sistema medikoa</b> .....	66
<b>2. ANALISI KUANTITATIBOA</b> .....	69
<b>2.1. Gazteen eremuaren bereizgarriak</b> .....	71
2.1.1. Lehenetsun pertsonalak: ondokoen balorazioa; osasuna, familia, adiskidetasuna, maitasuna, sexua, aisialdia, lana, ikasketak, politika eta erlijioa .....	71
2.1.2. Gazteen kezkak .....	75
2.1.3. Etorkizunari begira dituzten pertzepzioak .....	79
2.1.4. Gazteek dituzten harreman afektiboak, lagun arteko harremanak eta laguntzak .....	87

2.1.5. Indarkeria ohiko ingurunean . . . . .	96
2.1.6. Elkarreak eta gizarte konpromisoa . . . . .	101
<b>2.2. Alkohola, tabakoa, drogak eta gaua . . . . .</b>	<b>104</b>
2.2.1. Tragoak hartzea . . . . .	104
2.2.2. Alkohola kontsumitzeko legeko adina zein den jakitea . .	105
2.2.3. Etxeratzeko jarritako ordua betetzea . . . . .	106
2.2.4. Alkoholari, tabakoari eta drogei buruzko premisekiko adostasun maila . . . . .	108
2.2.5. Erretzeak, gehiegi edateak eta legez kanpoko drogak hartzeak eragiten dituen kalteei buruzko adostasun maila . . . . .	110
2.2.6. Jarduera ludikoak aldatzea . . . . .	112
<b>2.3. Osasuna eta praktika osasungarriak . . . . .</b>	<b>113</b>
2.3.1. Norberaren osasunari buruzko ikusmoldeak . . . . .	113
2.3.2. Zainketa eta praktika osasungarriak . . . . .	145
<b>2.4. Osasunaren sustapena eta hezkuntza . . . . .</b>	<b>172</b>
2.4.1. Sexualitate arazo baten aurrean duten jarrera . . . . .	172
2.4.2. Drogei loturiko arazo baten aurrean duten jarrera . . . . .	175
2.4.3. Interneten erabilera . . . . .	176
2.4.4. Alkoholaren neurri kanpoko kontsumoari buruzko informazioa . . . . .	176
2.4.5. Legez kanpoko drogen kontsumoaren prebentzio kanpain baliagarritasuna . . . . .	177
<b>2.5. Sistema medikoa . . . . .</b>	<b>179</b>
2.5.1. Medikarengana egindako bisiten maiztasuna eta egindako kontsulta medikoen tipologia . . . . .	179
2.5.2. Osasun zerbitzu publiko edota pribatuaren erabiltzaileak . . .	180
2.5.3. Medikarengana joateko eragozpenak . . . . .	183
2.5.4. Zerbitzu medikoen baliagarritasuna gaixotasunak tratatzeke . . . . .	184
2.5.5. Zerbitzu medikoen baliagarritasuna gaixotasunak prebenitzeko . . . . .	187
2.5.6. Zerbitzu medikoen balorazioa . . . . .	190

<b>3. OSASUNAREN SUSTAPEN ETA HEZKUNTZAKO EKINTZETARAKO HAINBAT GOMENDIO</b>	191
<b>4. AZTERLANAREN EMAITZA NAGUSIAK</b>	197
<b>4.1. Euskadiko gazteen bizimoduen testuinguru soziala: gazteen eremua</b>	199
4.1.1. Gazteen ikusmolde berria	199
4.1.2. Gazteek dituzten harreman afektiboak, adiskidetasun-harremanak eta laguntzak	202
4.1.3. Indarkeria ohiko ingurunean	204
<b>4.2. Gazteek drogekin duten harremana eta hauek betetzen duten tokia</b>	205
<b>4.3. Osasunari eta praktika osasungarriei buruzko ikusmoldeak</b>	206
4.3.1. Norberaren osasunari buruzko ikusmoldeak	206
4.3.2. Zainketa eta praktika osasungarriak	208
<b>4.4. Gaixotasun kezkarrienak</b>	212
<b>4.5. Osasunaren sustapena eta hezkuntza</b>	214
<b>4.6. Sistema medikoa</b>	214
<b>5. METODOLOGIA</b>	217
<b>5.1. Tresnak</b>	220
<b>5.2. Azterketa unibertsoa</b>	220
<b>5.3. Lagina</b>	220
<b>5.4. Landa lana</b>	222
<b>5.5. Datuak emateko modua</b>	223

# Taulen aurkibidea

<b>1. taula.</b>	Lehentasun pertsonalak, generoaren arabera . . . . .	73
<b>2. taula.</b>	Lehentasun pertsonalak, adin taldeen arabera . . . . .	73
<b>3. taula.</b>	Lehentasun pertsonalak, lanbidearen arabera . . . . .	74
<b>4. taula.</b>	Gaur egungo kezka pertsonal garrantzitsuak (%) . . . . .	75
<b>5. taula.</b>	Gaur egungo kezka pertsonal garrantzitsuak, adin taldeen arabera (%) . . . . .	76
<b>6. taula.</b>	Gaur egungo kezka pertsonal garrantzitsuak, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	76
<b>7. taula.</b>	Gaur egungo kezka pertsonal garrantzitsuak, lanbidearen arabera (%) . . . . .	77
<b>8. taula.</b>	Kezkatzeko arrazoiak . . . . .	77
<b>9. taula.</b>	Kezkatzeko arrazoiak, generoaren arabera . . . . .	78
<b>10. taula.</b>	Kezkatzeko arrazoiak, adin taldeen arabera . . . . .	78
<b>11. taula.</b>	Kezkatzeko arrazoiak, lanbidearen arabera . . . . .	79
<b>12. taula.</b>	Norberaren etorkizun ekonomikoaren pertzepzioa, gurasoen maila ekonomikoarekin alderatuta, adin taldeen arabera (%) . . . . .	80
<b>13. taula.</b>	Norberaren etorkizun ekonomikoaren pertzepzioa, gurasoen maila ekonomikoarekin alderatuta, gizarte klasearen arabera (%) . . . . .	81
<b>14. taula.</b>	Prestatu den edo prestatzen ari den arloan lan egiteko itzaropena, adin taldeen arabera (%) . . . . .	82
<b>15. taula.</b>	Prestatu den edo prestatzen ari den arloan lan egiteko itzaropena, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	82
<b>16. taula.</b>	Prestatu den edo prestatzen ari den arloan lan egiteko itzaropena, lanbidearen arabera (%) . . . . .	83
<b>17. taula.</b>	Prestatu den edo prestatzen ari den arloan lan egiteko itzaropena, gizarte klasearen arabera (%) . . . . .	83

<b>18. taula.</b>	Etorkizunean norberak izango duen osasun fisikoaren pertzepzioa, generoaren arabera (%) . . . . .	84
<b>19. taula.</b>	Etorkizunean norberak izango duen osasun fisikoaren pertzepzioa, gizarte klasearen arabera (%) . . . . .	85
<b>20. taula.</b>	Etorkizunean norberak izango duen gogo aldartearen pertzepzioa, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	86
<b>21. taula.</b>	Adiskidetasunari buruzko balorazioa (%) . . . . .	87
<b>22. taula.</b>	Adiskidetasunari buruzko balorazioa, adin taldeen arabera (%) . . . . .	88
<b>23. taula.</b>	Adiskidetasunari buruzko balorazioa, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	88
<b>24. taula.</b>	Lagunen jatorria (%) . . . . .	89
<b>25. taula.</b>	Lagunen jatorria, adin taldeen arabera (%) . . . . .	90
<b>26. taula.</b>	Lagunen jatorria, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	90
<b>27. taula.</b>	Lagunen jatorria, lanbidearen arabera (%) . . . . .	90
<b>28. taula.</b>	Lagunekin hitz egiterakoan saihesten diren edo ez tratatzea nahiago diren gaiak (%) . . . . .	92
<b>29. taula.</b>	Lagunekin hitz egiterakoan saihesten den edo ez tratatzea nahiago den gairik dagoen ala ez, generoaren arabera (%) . . . . .	92
<b>30. taula.</b>	Lagunekin hitz egiterakoan saihesten den edo ez tratatzea nahiago den gairik dagoen ala ez, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	93
<b>31. taula.</b>	Baliabide afektiboak, generoaren arabera (%) . . . . .	94
<b>32. taula.</b>	Baliabide afektiboak, adin taldeen arabera (%) . . . . .	94
<b>33. taula.</b>	Baliabide afektiboak, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	95
<b>34. taula.</b>	Baliabide afektiboak, gizarte klasearen arabera (%) . . . . .	95
<b>35. taula.</b>	Baliabide afektiboak, lanbidearen arabera (%) . . . . .	96
<b>36. taula.</b>	Azken hamabi hilabeteetan nahasita egon diren borroka fisikoen kopurua, generoaren arabera (%) . . . . .	98

<b>37. taula.</b>	Azken hamabi hilabeteetan nahasita egon diren borroka fisikoen kopurua, adin taldeen arabera (%).....	98
<b>38. taula.</b>	Norberak bizi izan dituen desiratu gabeko egoerak, adin taldeen arabera (%).....	100
<b>39. taula.</b>	Beste ikasle batzuek bizi izandako desiratu gabeko egoerak, adin taldeen arabera (%).....	101
<b>40. taula.</b>	Ezgaitasun fisiko edo mentala duten lagunei ematen zaien laguntza (%).....	103
<b>41. taula.</b>	Gaueko aisiarako azturak (%).....	104
<b>42. taula.</b>	Gaueko aisiarako azturak, adin taldeen arabera (%).....	105
<b>43. taula.</b>	Alkohola kontsumitzeko legezko adina zein den jakitea (%)	106
<b>44. taula.</b>	Ettxera bueltatzeko ezarritako orduan etxeratzea (%).....	107
<b>45. taula.</b>	Ettxera bueltatzeko ezarritako orduan etxeratzea, generoaren arabera (%).....	107
<b>46. taula.</b>	Ettxera bueltatzeko ezarritako orduan etxeratzea, adin taldeen arabera (%).....	108
<b>47. taula.</b>	Alkoholari, tabakoari eta drogei buruzko premisak, adin taldeen arabera .....	110
<b>48. taula.</b>	Kontsumo azturei buruzko usteak (%).....	111
<b>49. taula.</b>	Kontsumo azturei buruzko usteak, generoaren arabera (%)..	111
<b>50. taula.</b>	Asteburuan egin nahi lituzketen jarduerak (%).....	112
<b>51. taula.</b>	Pisua eta altuera (%).....	113
<b>52. taula.</b>	Pisua eta altuera, adin taldeen arabera .....	114
<b>53. taula.</b>	Norberaren xarmaren pertzepzioa (%).....	114
<b>54. taula.</b>	Norberaren gorputzaren pertzepzioa (%).....	115
<b>55. taula.</b>	Norberaren gorputzaren pertzepzioa, generoaren arabera (%)..	115

<b>56. taula.</b>	Norberaren xarmaren pertzepzioa, gizarte klasearen arabera (%).....	116
<b>57. taula.</b>	Norberaren gorputz irudian eraginik handiena duten faktoreak, generoaren arabera (%) .....	117
<b>58. taula.</b>	Norberaren gorputz irudian eraginik handiena duten faktoreak, adin taldeen arabera (%) .....	118
<b>59. taula.</b>	Norberaren osasunaren pertzepzioa (%).....	119
<b>60. taula.</b>	Norberaren forma fisikoaren pertzepzioa, generoaren arabera (%).....	120
<b>61. taula.</b>	Norberaren forma fisikoaren pertzepzioa, gizarte klasearen arabera (%).....	120
<b>62. taula.</b>	Ingurukoen forma fisikoaren pertzepzioa, generoaren arabera (%).....	122
<b>63. taula.</b>	Ingurukoen forma fisikoaren pertzepzioa, adin taldeen arabera (%).....	122
<b>64. taula.</b>	Norberaren egoera mentalaren pertzepzioa, generoaren arabera (%).....	124
<b>65. taula.</b>	Ingurukoen egoera mentalaren pertzepzioa, lurralde historikoen arabera (%).....	124
<b>66. taula.</b>	Ondoko gaitzak jasateko maiztasuna (%) .....	126
<b>67. taula.</b>	Ondoko gaitzak jasateko maiztasuna, generoaren arabera (%) ..	127
<b>68. taula.</b>	Ondoko gaitzak jasateko maiztasuna, adin taldeen arabera (%).....	128
<b>69. taula.</b>	Ondoko gaitzak jasateko maiztasuna, lurralde historikoen arabera (%).....	128
<b>70. taula.</b>	Ondoko gaitzak jasateko maiztasuna, lanbidearen arabera (%).....	129
<b>71. taula.</b>	Norberaren bizitzaren pertzepzioa (%) .....	131

<b>72. taula.</b>	Norberaren bizitzaren pertzepzioa, lanbidearen arabera (%) .	132
<b>73. taula.</b>	Norberaren bizitzaren pertzepzioa, gizarte klasearen arabera (%) . . . . .	133
<b>74. taula.</b>	Inkestatuaren sexu bereko lagun minen proportzioa, generoaren arabera (%) . . . . .	135
<b>75. taula.</b>	Norbere buruari buruzko iritzia (%) . . . . .	138
<b>76. taula.</b>	Osasun emozionalaren aldagaiak, generoaren arabera (%) . .	140
<b>77. taula.</b>	Osasun emozionalaren aldagaiak, generoaren arabera (%) . .	141
<b>78. taula.</b>	Osasun emozionalaren aldagaiak, adin taldeen arabera (%)	142
<b>79. taula.</b>	Osasun emozionalaren aldagaiak, lanbidearen arabera (%) .	143
<b>80. taula.</b>	Osasun emozionalaren aldagaiak, lanbidearen arabera (%) .	143
<b>81. taula.</b>	Osasun emozionalaren aldagaiak, gizarte klasearen arabera (%) . . . . .	144
<b>82. taula.</b>	Osasun emozionalaren aldagaiak, gizarte klasearen arabera (%) . . . . .	144
<b>83. taula.</b>	Egunean lo egiteko orduak (%) . . . . .	146
<b>84. taula.</b>	Egunean lo egiteko batez besteko ordu kopurua, adin taldeen arabera . . . . .	146
<b>85. taula.</b>	Elikagaien kontsumoaren maiztasuna, generoaren arabera (%) . . . . .	148
<b>86. taula.</b>	Elikagaien kontsumoaren maiztasuna, adin taldeen arabera (%) . . . . .	148
<b>87. taula.</b>	Eguneroko jatorduak (%) . . . . .	149
<b>88. taula.</b>	Eguneroko jatorduak, generoaren arabera (%) . . . . .	149
<b>89. taula.</b>	Eguneroko jatorduak, adin taldeen arabera (%) . . . . .	149
<b>90. taula.</b>	Dietak egitea (%) . . . . .	151
<b>91. taula.</b>	Kirola egitea (%) . . . . .	152

<b>92. taula.</b>	Kirola egitea, generoaren arabera (%) . . . . .	153
<b>93. taula.</b>	Kirola egitea, adin taldeen arabera (%) . . . . .	153
<b>94. taula.</b>	Kirola egitea, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	154
<b>95. taula.</b>	Kirola egitea, lanbidearen arabera (%) . . . . .	154
<b>96. taula.</b>	Kirola egitea, gizarte klasearen arabera (%) . . . . .	155
<b>97. taula.</b>	Kirola egiteko maiztasuna (%) . . . . .	155
<b>98. taula.</b>	Kirola egiteko maiztasuna, gizarte klasearen arabera (%) . .	156
<b>99. taula.</b>	Lagunek kirola egiteko maiztasuna, generoaren arabera (%) . . . . .	157
<b>100. taula.</b>	Kirola egiteko konpainia, generoaren arabera (%) . . . . .	158
<b>101. taula.</b>	Kirola egiteko tokia, generoaren arabera (%) . . . . .	158
<b>102. taula.</b>	Kirola egiteko arrazoiak (%) . . . . .	159
<b>103. taula.</b>	Kirola egiten duten pertsonen buruzko usteak, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	160
<b>104. taula.</b>	Dopingaren zabalkunde maila (%) . . . . .	161
<b>105. taula.</b>	Dopinga arazo sozial gisa (%) . . . . .	162
<b>106. taula.</b>	Dopinga arazo sozial gisa, generoaren arabera (%) . . . . .	162
<b>107. taula.</b>	Dopinga arazo sozial gisa, adin taldeen arabera (%) . . . . .	163
<b>108. taula.</b>	Dopinga arazo sozial gisa, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	163
<b>109. taula.</b>	Ohiko ibilgailua, generoaren arabera (%) . . . . .	165
<b>110. taula.</b>	Ohiko ibilgailua, adin taldeen arabera (%) . . . . .	165
<b>111. taula.</b>	Ohiko ibilgailua, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	166
<b>112. taula.</b>	Ohiko ibilgailua, lanbidearen arabera (%) . . . . .	166
<b>113. taula.</b>	Babes neurrien erabileraren maiztasuna (%) . . . . .	167

<b>114. taula.</b>	Heriotza tasak 100.000 biztanleko, 15etik 29 urtera bitarteko emakumeen eta gizonen artean nagusiak diren arrazioen arabera, 1992-1996an eta 2002-2003an .....	168
<b>115. taula.</b>	Babes neurrien erabileraren maiztasuna, adin taldeen arabera (%) .....	169
<b>116. taula.</b>	Babes neurrien erabileraren maiztasuna, lurralde historikoen arabera (%) .....	169
<b>117. taula.</b>	Trafiko istripuen kausak, adin taldeen arabera (%) .....	171
<b>118. taula.</b>	Trafiko istripuen kausak, lurralde historikoen arabera (%) ..	171
<b>119. taula.</b>	Sexualitate arazoetarako konponbideen iturriak, generoaren arabera (%) .....	173
<b>120. taula.</b>	Sexualitate arazoetarako konponbideen iturriak, adin taldeen arabera (%) .....	174
<b>121. taula.</b>	Sexualitate arazoetarako konponbideen iturriak, lurralde historikoen arabera (%) .....	174
<b>122. taula.</b>	Droga arazoetarako konponbideen iturriak (%) .....	175
<b>123. taula.</b>	Irakasleek alkoholaren gehiegizko kontsumoaren prebentzioari buruz ematen duten informazioa, adin taldeen arabera (%) .....	176
<b>124. taula.</b>	Irakasleek alkoholaren gehiegizko kontsumoaren prebentzioari buruz ematen duten informazioa, lurralde historikoen arabera (%) .....	177
<b>125. taula.</b>	Publizitate kanpainak legez kanpoko drogen kontsumoa prebenitzeko duten baliagarritasuna (%) .....	177
<b>126. taula.</b>	Publizitate kanpainak legez kanpoko drogen kontsumoa prebenitzeko duten baliagarritasuna, generoaren eta adin taldeen arabera (%) .....	178
<b>127. taula.</b>	Publizitate kanpainak legez kanpoko drogen kontsumoa prebenitzeko duten baliagarritasuna, gizarte klasearen arabera (%) .....	178

<b>128. taula.</b>	Medikuarengana joatea (%) . . . . .	179
<b>129. taula.</b>	Medikuarengana joatea, generoaren eta lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	179
<b>130. taula.</b>	15etik 29 urtera bitarteko gazte bakoitzak 1992. eta 2002. urteetan egindako kontsulta medikoen batez bestekoa, generoaren arabera . . . . .	181
<b>131. taula.</b>	Osasun arazo baten aurrean erabiltzen diren osasun zerbitzuak, gizarte klasearen arabera (%) . . . . .	182
<b>132. taula.</b>	Medikuarengana joateko eragozpenak, adin taldeen arabera (%) . . . . .	184
<b>133. taula.</b>	Osasun zerbitzuek gaixotasunak tratatzeko duten baliagarritasuna (%) . . . . .	185
<b>134. taula.</b>	Osasun zerbitzuek gaixotasunak tratatzeko duten baliagarritasuna, generoaren arabera (%) . . . . .	185
<b>135. taula.</b>	Osasun zerbitzuek gaixotasunak tratatzeko duten baliagarritasuna, adin taldeen arabera (%) . . . . .	186
<b>136. taula.</b>	Osasun zerbitzuek gaixotasunak tratatzeko duten baliagarritasuna, gizarte klasearen arabera (%) . . . . .	187
<b>137. taula.</b>	Osasun zerbitzuek gaixotasunak prebenitzeko duten baliagarritasuna (%) . . . . .	188
<b>138. taula.</b>	Osasun zerbitzuek gaixotasunak prebenitzeko duten baliagarritasuna, adin taldeen arabera (%) . . . . .	188
<b>139. taula.</b>	Osasun zerbitzuek gaixotasunak prebenitzeko duten baliagarritasuna, lanbidearen arabera (%) . . . . .	189
<b>140. taula.</b>	Osasun zerbitzuek gaixotasunak prebenitzeko duten baliagarritasuna, gizarte klasearen arabera (%) . . . . .	189

# Grafikoen aurkibidea

<b>1. grafikoa.</b>	14 eta 24 urte bitarteko gidariak nahasita dituzten istripuak (%) (2001-2005) . . . . .	57
<b>2. grafikoa.</b>	Lehentasun pertsonalak . . . . .	72
<b>3. grafikoa.</b>	Etorkizunean nolakoa izango da zure maila ekonomikoa, zure gurasoenarekin alderatuta? (%) . . . . .	80
<b>4. grafikoa.</b>	Prestatu zaren edo prestatzen ari zaren arloan lan egitea espero duzu? (%) . . . . .	82
<b>5. grafikoa.</b>	Etorkizunean norberak izango duen osasun fisikoaren pertzepzioa (%) . . . . .	84
<b>6. grafikoa.</b>	Etorkizunean norberak izango duen gogo aldaratearen pertzepzioa (%) . . . . .	85
<b>7. grafikoa.</b>	Etorkizunean seme-alabak izateko asmoa (%) . . . . .	86
<b>8. grafikoa.</b>	Ba al dago lagunekin hitz egiterakoan saihesten duzun edo ez tratatzea nahiago duzun gairik? (%) . . . . .	91
<b>9. grafikoa.</b>	Arazo intimoren bat bazenu, kontatu eta laguntza eskatu ahal izango zenuke.. (%) . . . . .	93
<b>10. grafikoa.</b>	Azken hamabi hilabeteetan nahasita egon diren borroka fisikoen kopurua (%) . . . . .	97
<b>11. grafikoa.</b>	Norberak bizi izan dituen desiratu gabeko egoerak (%) . . . . .	99
<b>12. grafikoa.</b>	Beste ikasle batzuek bizi izandako desiratu gabeko egoerak (%) . . . . .	100
<b>13. grafikoa.</b>	Elkarteren bateko kide zara gaur egun? (%) . . . . .	101
<b>14. grafikoa.</b>	Ba al dago ezgaitu fisiko edo mentalen bat zure lagunartean? (%) . . . . .	103
<b>15. grafikoa.</b>	Alkoholari, tabakoari eta drogei buruzko premisak . . . . .	109
<b>16. grafikoa.</b>	Norberaren gorputz irudian eraginik handiena duten faktoreak (%) . . . . .	117
<b>17. grafikoa.</b>	Norberaren forma fisikoaren pertzepzioa (%) . . . . .	119
<b>18. grafikoa.</b>	Norberaren eta ingurukoaren forma fisikoa (%) . . . . .	121
<b>19. grafikoa.</b>	Norberaren eta ingurukoaren egoera mental edo psikikoa (%) . . . . .	123
<b>20. grafikoa.</b>	Gaixotasun kroniko edo ezgaitasun fisiko mota (%) . . . . .	125
<b>21. grafikoa.</b>	Tratamendu psikologikoan egoteko arrazoia (%) . . . . .	130

<b>22. grafikoa.</b>	Gauzak doazkien modua gustatzearekiko adostasun maila, adin taldeen arabera (%) . . . . .	131
<b>23. grafikoa.</b>	Norberaren bizitzaren pertzepzioa, gizarte klasearen arabera (%) . . . . .	133
<b>24. grafikoa.</b>	Gizon gazteek gaur egun aitortzen duten lagun minen kopurua (%) . . . . .	134
<b>25. grafikoa.</b>	Emakume gazteek gaur egun aitortzen duten lagun minen kopurua (%) . . . . .	134
<b>26. grafikoa.</b>	Azken asteetan ondo kontzentratu ahal izan duzu zure zereginetan? (%) . . . . .	135
<b>27. grafikoa.</b>	Azken asteetan sentitu al duzu zailtasunak ezin dituzula gainditu? (%) . . . . .	136
<b>28. grafikoa.</b>	(A) Azken asteetan, ondokoak egin ahal izan dituzu edo horrela sentitu zara...? (%) . . . . .	139
<b>29. grafikoa.</b>	(B) Azken asteetan, ondokoak egin ahal izan dituzu edo horrela sentitu zara...? (%) . . . . .	139
<b>30. grafikoa.</b>	Zer maiztasunekin garbitzen dituzu hortzak? (%) . . . . .	145
<b>31. grafikoa.</b>	Elikagaien kontsumoaren maiztasuna (%) . . . . .	147
<b>32. grafikoa.</b>	Eguneroko jatorduak, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	150
<b>33. grafikoa.</b>	Dietak egitea, generoaren arabera (%) . . . . .	151
<b>34. grafikoa.</b>	Ohiko ibilgailua (%) . . . . .	164
<b>35. grafikoa.</b>	Trafiko istripuen kausak (%) . . . . .	170
<b>36. grafikoa.</b>	Sexualitatearekin lotutako arazo bat bazenu, norengana joko zenuke?, norengana gustatuko litzaizuke jotzea? (%) . . . . .	172
<b>37. grafikoa.</b>	Zein da azken kontsultan bisitatu duzun medikua edo osasun zerbitzua? (%) . . . . .	180
<b>38. grafikoa.</b>	Osasun arazo bat duzunean, zein dira gehien erabiltzen dituzun osasun zerbitzuak? (%) . . . . .	181
<b>39. grafikoa.</b>	Osasun arazo baten aurrean erabiltzen diren osasun zerbitzuak, lurralde historikoen arabera (%) . . . . .	182
<b>40. grafikoa.</b>	Zein dira medikuarengana edo osasun zerbitzuetara joateko dituzun eragozpenak? (%) . . . . .	183



# Aurkezpena

Argitalpen hau harreman estua duten bi faktoreren arteko uztarduraren emaitza da. Batetik, Gazteen Euskal Behatokiak, hasiera-hasieratik Euskadiko gazteen errealitatearen inguruko ezagutzak sortarazteko eta hedatzeko ardura bere gain hartu duen erakunde publikoa den aldetik, gazteen eguneroko bizitzaren alderdietako baten inguruko ikerketan aritzeko erakunde honek duen kezka islatzen du ikerketa honek. Bestetik, osasunaren arloko esku-hartzeari buruz egungo gazte politikan xedatzen diren helburuei erantzuten die.

Testuinguru honetan, Gazteen Euskal Behatokiak gazte politikak sustatzeko egiten ari den lanaren erakusgarri da *Osasuna eta gazteak. Euskadiko gazteen ikusmoldeak osasunari buruz*, esku-hartzearen xede izango den errealitatea behar adina ezagutzeko eta horri buruzko informazioa eskura jartzeko Behatokiak duen engaiamenduari helduz. Kasu honetan, gazteen kolektiboaren osasun alderdiak dira aztergaia.

Baina kontua ez da konpromiso instituzionalak betetzea soilik, gazteek osasunarekin gauzatzen duten harremana argitzen laguntzean ere badatza ikerketa hau, gazteek giza alderdi honi buruz duten ikuspegitik. Horregatik ez du gaztearen begiradatik eratorritako ikerketa honek gazteen «osasuna» neurtu nahi, kolektibo honek gai horri buruz dituen iritziak, usteak eta esperientziak islatu baizik. Azterketaren perspektiba hau behar-beharrezkoa da gazteak ulertu nahi badira, sarritan kritikatuak, baloratuak, epaituak eta, gehienaz ere, ez ulertuak baitira, helduen begirada baita ikuspuntu kulturaletik gailentzen dena. Gainera, gizartean polemika sutsua eta eztabaidak pizten dituen alderdi bat da gazteen osasuna —osasuna adiera integrean ulertuta— eta, aldi berean, beste adin-taldeen botereak emandako definizioaren mende gera daiteke erraztasun handiz. Baina, zalantzarik gabe, ez dugu kolektibo honentzat egokiak diren osasun politikak martxan jartzetik lortuko gazteek osasunari buruz duten ikusmoldea ezagutzeko gai ez bagara. Hori da, izan ere, ikerketa honen ekarpen nagusia. Hala eta guztiz ere, jabetuta gaude asko dagoela ikertzeke, eta gaia ez dela agortuko ikerketa honetan proposatzen den hurbilketaekin. Edonola ere, emaitza hauek egunero gazteekin lanean edo gazteen ondoan daudenentzat edo, besterik gabe, gazteekiko interesa dutenentzat interesgarriak izango direlakoan gaude.

Azkenik, azterlana irakurtzera animatzen zaituztegu. Gizarte osoarentzat eta gazteen gan eragina duten erabakiak hartzeko erantzukizuna dutenentzat hausnarketarako erreferentzia izango dela espero dugu.

**Miren Azkarate Villar**

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILBURUA



# Sarrera

Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko gazteek osasunaz duten pertzepzioa ezagutzeko ikerketa bat abiarazi zuen 2006. urtean, eta txosten hau ikerketa horren emaitza da.

Ikerketa honetan osasuntzat hartzen da, OME (Osasunaren Mundu Erakundeak) bere eraketa-estatutuetan zehaztuta duen bezala, «erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera, hau da, ez bakarrik infekziorik edo gaixotasunik ez izatea». Hortaz, ongizate fisikoaz gain ongizate psikikoa eta soziala ere barnean hartzen dituen osasunaren oinarritzko definizio batetik abiatzen da, eta pertsonen beren erreferentziazko kultura-testuinguruan duten bizi-kalitatea aipatzen du.

Halaber, osasuna pertsonen bizitzako beste alde batzuekin oso estu loturik dagoen giza alderdi bat dela pentsatzen da. Ikuspegi oso batetik ezin dira alde batera utzi osasunaren eta populazio jakin baten giza eta gizarte-garapeneko beste elementu batzuen artean modu konplexuan ezartzen diren erlazioak. Beraz, gazteek osasuna ulertzeko duten modua ezagutzeko, azterketan aintzat hartu dira gazteek talde gisa erakusten dituzten berezitasunak.

Aurrekoaren arabera, badira gure ingurunean gazteengan bereziki eragina duten osasun publikoko hainbat arazo. Ez dakigu gazteriak, gure gizartean, osatzen ote duen berez kategoria soziologiko bat, osasunaren arloan ekitate ezaren iturri dena, baina estatistika-datuen<sup>1</sup> arabera esan dezakegu, adibidez, trafiko-istripuak, sexu-transmisioko gaixotasun batzuk, mendekotasuna sortzen duten portaerak edo elikadura- eta buru-nahasteak talde honek bakarrik jasaten ez baditu ere, gazteen osasuna beste faktore batzuek baino gehiago hondatzen duten osasun-arazoak direla. Horregatik, ikerketarako aukeratutako gaiak lotuta daude gazteen osasunari buruzko estatistiketan garrantzitsuak diren elementu horiei.

Behatoki honentzat ikerketaren beste alderdi garrantzitsu bat da gazteek, subjektu diren aldetik, osasunaren kontzeptu zabalaren barnean zer ulertzen duten jakitea. Ikerketarako gida orientatzaile gisa mundu osoan erakundeek onartua duten osasunaren adiera bat hartu dugu. Horrela garbi utzi nahi izan dugu azterketa honen abiapuntua zein den, hau da, osasunaren ikuspegi oso bat, alderdi fisikoetara mugatzen ez dena, eta historikoki eta kulturalki dagokion testuinguruan kokatua. Beraz, ikerketa honen helburua ez da Euskadiko gazteen osasuna ba-

---

<sup>1</sup> GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA. «15 eta 29 urte bitarteko gazteen hilkortasuna»; 6. or. In: *Gazteen adierazleak*. 1. edizioa. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007.

loratzea, gazte horiek osasuna nola irudikatzen duten ezagutzea baizik, eta irudipen horretatik abiatuta beren kontsumo-azturak, jokaerak eta beraiei zuzendutako zaintzak nola ikusten dituzten jakitea.

Helburu horiek lortzeko, azterketa irekia eta zuzendua egin dugu, eta ez helduen ikuspegitik, gazteenetik beraienetik baizik, «gazte izateak» zer esan nahi duen, gazte izatea nola bizitzen den, jakiteko.

Hurbiltzeko edo ezagutzeko modu honek justifikazio bikoitza du, beharrezkoa baita mintzagai dugun gaian gazteei eurei hitza ematea. Gure inguruan ohikoa dugu gazteria protagonistatzat duten era askotako gaiei buruz eztabaidatzen duten, mintzatzen diren edo besterik gabe iritzia ematen duten prentsako albisteak, argitalpenetako artikulua, komunikabideetako eztabaidak edo hiritarren arteko elkarrizketak topatzea. Elkarrizketa horietan —gehienetan helduen artekoak direnetan— erraz ageri ohi dira gazteak gauari, drogei, aisialdiari, indarkeriari, trafiko-istripuei, modari, abortuari, GIBari, langabeziari eta abarri dagozkien gaiei lotuta. Badirudi gure artean gauzatzen ari den irudiak, helduen aldetik gutxienez, nolabaiteko nahastea edo ulertu ezina adierazten duela gazteek gaur egun betetzen duten tokiari dagokionez. Jarrera horrek, berez, ez luke inolako deslegitimaziorik merezi izango, ezjakintasunaren aurrean gazteei buruz sarritan estereotipatuta dauden irudiak sortzeko arriskua dagoelako izan ez balitz. Hortaz, gazteen euren iritzia nagusitu nahi izan dugu haiei buruz ematen diren iritzien aurrean, eta ahal dugun neurrian egoera argitzen saiatuko gara.

Azterlana bost ataletan egituratuta dago. Lehen kapituluan metodologia kualitatiboaren bitartez eskuratutako datuak sakonki aztertzen dira. Azterketa horren egitura narratiboa gazteen eremuaren bereizgarriekin hasten da, hau da, «gazte izateak» gaur egun hartzen duen esanahiarekin. Jarraian gazteek drogen kontsumoarekin garatzen duten harremana laburbiltzen da. Era berean, gazteek osasunari buruz dituzten ikusmoldeak ikertzen dira eta, horien baitan, ongizateari loturiko zainketei ematen zaien lekua. Ondoren, gazteak gehien kezkatzen dituzten gaixotasunei buruzko atala dator, gero hizpide izango den osasun hezkuntzarekin zerikusi handia duen gaia. Azkenik, gazteen iritziz sistema medikoak duen baliagarritasunaren balorazioaren berri ematen da, parametro jakinei esker lortutako balorazioa, alegia.

Bigarren kapituluan inkesta telefonikoei esker bildutako datuak jasotzen dira, eta hainbat arlo modu deskriptiboan azaltzen dira: gazteek sakonki ezagutu nahi izan diren gaien inguruan dituzten iritzia; gazteen eremuaren bereizgarri diren koordinatuak; drogen mundaari eta aisiari buruzko iritzia; gazteek norberaren osasunaz duten ikusmoldea; osasun-az-

tura nagusienak; arazoan konponbiderako iturriak eta gai jakin batzuen gaineko informazioa eskuratzeko baliabideak; eta gazteek sistema medikoaren baliagarritasunari egozten dioten irudia.

Aurreneko bi ataletan aztertzen diren gaiak, noski, bat datoz. Hala eta guztiz ere, bada ñabardura desberdinik, azterketa kualitatiboa burutzeko erabili diren tekniken izaera irekia dela-eta.

Azterlanaren muina bi atal handi horietan datza. Hirugarren kapitulua osasun hezkuntzara begira egiten diren gomendioei dagokio, eta bertan gazteei eragiten dieten osasun-arriskuak murriztera zuzenduriko jarduketara posibleak aditzera ematen dira.

Laugarren atalak azterlan honen ekarpen nagusienak laburbiltzen ditu. Bosgarrenean azterlana burutzeko erabili den metodologia erantsi da.



**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

**1.**  
**Analisi kualitatiboa**





# 1

## Analisi kualitatiboa

### 1.1. GAZTEEN EREMUA

Hemen aurkeztuko dugun ikerketa gazteek eurek «gazte izateaz» duten bizipenarekiko hurbilketa baten moduan planteatu da, neurri handi batean, hau da, «gaur egun gazte izatea» nola bizi duten eta bizipen horrek eta gazteei eman zaien tokiak aztura osasungarriak izatean eta osasunaz beraz izan dezaketen ikuskeran nola eragin dezaketen ezagutzeko.

Gure gizarteak aldaketa bat bizi izan du «gaztaroaren» ikuskeran; lehen iraganbide baten moduan, helduen mundurako prestakuntza-leku gisa bizitzen zen, orain ordea berezko etapa bilakatu da, eta gizarteak gazteei esleitzen eta ematen dien posizioaren pertzepzioa aldatu egin da; «gazteen eremua» sozialki handitzearekin batera, aldatu eta zabaldu egin dira «adin gaztearen» mugak. Ikerketak aztertu duen adin-tarte zabala gazteen eremuaren hedapen horren isla da zalantzarik gabe. Hortaz, «gazteak» izenaren azpian 13tik 29 urtera bitarteko sektoreak sartzen dira, logikoki bizi-egoera oso desberdinetan dauden kolektiboak, eta horrek «gazteen» eremua edo eremuak zein diren hausnartzera garamatza, orain inoiz baino gehiago. Lan egiteko aukeratu den «gazte-kolektiboaren» barnean hiru estadio, edota lau, bereiz daitezke. Aurre-nerabeen/nerabeen eremua, 15-16 urtera artekoa izan daitekeena; gazteen eremu sinbolikotzat har daitekeen bigarren estadio bat, 16-17 urtetik gutxi gorabehera 22-23 urtera bitartekoa; gaztetasun helduko hirugarren estadio bat, 23-26 urteekin bat etor daitekeena; eta jada heldutasun gazteko eremutzat har daitekeen laugarren estadio bat, helduen munduko parte-hartzearen hasiera dena. Estadio horietako bakoitzean gazteek hartzen duten posizioa oso desberdina da, jakina, eta batez ere desberdinak dira beren itxaropenak eta espero duten etorkizuna.

Gazteriaren ikuskera berri hori gure gizarteak azken hamarkadetan jarraitutako modernizazio-bidean izan duen bilakaerarekin batera eratu da: askatasunen garapena, ekonomia- eta gizarte-mailen hobekuntza, aldaketak familia-ereduetan, aldaketak lan-merkatuan, etab. Egitura-bilakaera horiek beren isla izan dute, beste eremu batzuez gain, seme-alaben hezkuntza-ereduetan. Gurasoen azken belaunaldiak, gaur egun gazte direnen gurasoak, eurak bizi eta hezi ziren hezkuntza-eredu autoritario eta murriztailea hausten saiatu dira, eta eredu hori arbuizatzean alderantzizko hezkuntza-eredu bat sortu da. Aurreko belaunaldietan izan diren hezkuntza-ereduetatik urruntzeko ahaleginean, gaur egungo gurasoek —«de-

mokraziakoek»— hezkuntza-eredu permisibo bat eratu dute, haur eta gazteentzako muga gutxirekin.

«Seme-alabak» ondasun urria diren gizarte honetan zaila da haien eskaerei «ezetz» esatea. Gu bizi garen gizarte oparo eta aberatsean zaila da seme-alabei edozein produktu erosteko «ezetz» esatea, erostea ekonomikoki posible bada. Lan-denborak seme-alabekin igarotzeko denbora murrizten duenean, asko kostatzen da zerbait ukatzea. Baldintza sozial horiek modu batera edo bestera hezkuntza-eredu permisibo bat eratu dute; eta eredu hori muturreraino eramaten bada, haurrak eta gazteak mugarik gabe izango dira heziak. Euskarririk ez izate horrek erraztu egiten du haurrek eta gazteek beren nahiak berehala lortzeko ideia barneratzea eta modu horretan heztea, eta horrela zailagoa da haiek frustrazioa onartu eta lantzen ikastea, eta lehenago edo beranduago topatuko duten frustrazio horri aurre egiteko baliabide pertsonalak eta sozialak garatzea; frustrazio horrek, izan ere, gehiegitan amaitzen du indarkeriaz bideratua izaten. Zentzu horretan, adierazgarria da gazteek itxuraz zein «egunerokotasunekin» egiten dieten aurre nolabait indarkeriazkoak diren egoerei, bai ikastetxeetan (eskola-erasoa), bai eta aisialdiko guneetan ere, «normaltasun» kezkarriaz deskribatzen baitituzte leku horietan gertatzen diren probokazioko eta funsgabeko indarkeriako egoerak.

Beren hezkuntzan nagusi izan den lorpenen berehalakotasunaren ideia horretan ez da izaten lorpenak atzeratzearen ikaskuntzarik, ez da ikasten desiratutakoa lortzeko denbora etorkizuna izan daitekeenik, aitzitik, nahia orain lortzen hezi eta ohitu dira. Berehalako lorpen horrek ez-eragingarri bilakatzen ditu hainbat balio, esate baterako, ahalegina edo sakrifizioa, hain zuzen, lorpena etorkizunean izango dela pentsatzen denean ekintzak oinarri dituen baliak. Gizarte-sektore zentraletan (maila ertain/ertain-baxuak) dirudienez gaur egun nagusi den hezkuntza-ereduan, gazteak ez dira hezten desio dutena gutxi gorabehera hurbila izango den etorkizun batean lortzeko ahaleginezko edo sakrifiziozko orainaldi batean, aitzitik, desio dutena orain lortzen da —ahaleginik gabe eta sakrifiziorik gabe—.

Muga batzuk (edota kanpotik mugak jarriko dituen «beste norbait») barneratuta edo sartuta ez izatean, «gatazkaren» aukerari uko egiten dion eredu bat sortu da, harekiko tolerantzia minimoa landuz, dela haurraren «kasketaldiarekiko» dela nerabeen «hezigaiztasunarekiko». Gatazkarekiko tolerantzia txikiagoa bakarrik ez, halakoren bat sortzen denean hura konpontzeko orduan segurtasun-falta ere handiagoa da. Beraz, gatazka saihesteko aukerarik onena «ezetz» ez esatea da, hau da, gatazka sortzeko aukerari uko egitea, deseroso sentiarazten gaituen egoera ekiditea. Hezkuntza-eredu babesle eta permisibo honetan, ez dira haur-gazteak frustrazioa

gainditu eta lantzeko hezten, edo gatazka konpontzeko, gurasoek ez baitiete egoera horiei aurre egiteko aukerarik ematen.

Neurri handi batean, haurrak eta gazteak «burbuila» batean heziak izan dira eta izaten ari dira; sor daitezkeen aurkako elementuetatik eta gatazketatik babesten zaie. Eta babes horrek zailtasunei aurre egiteko beren baliabideak beren kasa garatzea eragozten du. Haurrei eta gazteei ematen zaien babesetik, haiek ez diete aurre egin behar beren gizarte-harremanetan izan daitezkeen gatazkak konpontzeko gizarte-baliabideak erabiltzea eskatzen dieten egoerei, edo eguneroko arazoak konpontzeko edo moldatzeko beharra ezarriko dieten egoerei. «Burbuila» batean hezten dira, kanpoan, helduen eremura iritsi arte igaro beharko dituzten arlo desberdinetan aurkituko dituzten beharrekin zerikusi gutxi duen «erraztasuneko» egoera batean, eta hori defizit bat da beren prestakuntza edo garapen pertsonalean.

Eredu babesle honetan gurasoek seme-alabenganako dituzten exigentziak ikasketen esparrura murrizteko joera dago, eguneroko eremuko beste arlo batzuk, esate baterako, etxeko lanetan laguntze hutsa, ahaztuz edo alde batera utziz. Gurasoek ikasketen eremuan helburuak betetzeko edo emaitza jakin batzuk «exijitzeko» joera dute, baina gero oso permisiboak dira beste esparru batzuetan; eta aisialdiarena horietako bat da. Haur edota gazteei lan-karga eta presio handiak eskatzen zaizkie ikasketetan —eta hori modu desegokian bizi dezakete gazteek, egonezin psikologikoa sorrarazteko arriskuarekin—, baina aldi berean beren gain beste erantzukizun batzuk hartzeko «zama kentzen zaie». Horrela hazkuntza-prozesua modu desorekatuan garatzen da, haur-gazteek pixkanaka familiaratik «kanpo» autonomia- eta independentzia-maila handiagoak beren gain hartzea eragozten duen gurasoen gehiegizko babesarekin.

Ingurune babesle eta aldi berean permisibo horretan ikasten dute haur eta gazteek gauzeekin eta «besteekin» harremanetan jartzen. Horrela euren artean errealtatea ulertu eta harekin erlazionatzeko modu kaltegarri bat sortzen da —edo sor daiteke—. Heziak izan diren «burbuila» ez bezalako errealtate bat. Eta horrela, babesaren eta permisibitatearen eraginez «gatzetasuna» «arduragabetasunaren» etapa bilakatzen da azkenean, alegia, berehalako gozamenera zuzendu eta eskainitako etapa hedonista bat. Errealtatearen aurrean hartutako jarrera hori gazteek toxiko batzuek egiten duten kontsumoan nabaritzen da (bereziki alkoholarena), baina baita eraikitzen dituzten itxaropenetan eta beren nortasun pertsonalaren prozesuan bertan ere. Ikuspegi horretatik aisialdirako eremua agertzen da gazteen garapen pertsonalerako gune sinboliko nagusi gisa; eremu horretan hasten dira gazteak gizartearekin modu independente eta autonomoan harremana izaten, gurasoen begiradatik urrun. Neurri

handi batean, gizarte-baldintzek aisialdia, eta zehazki asteburukoa, gure gizarteak gazteei uzten dien eremua, dibertsio eta gozameneko eremu bilakatzeraz eraman dute bertan garatu eta hazteko.

Hezkuntza-ereduen aldaketei zuzenean lotutako eta bereziki lan-merkatuan beste gizarte-aldaketa batzuekin erlazioatutako esparru horretan, «gazte-etaparen» luzapen bat gertatu da. Bizi izandako gizarte-aldaketetatik abiatuta, «gazte-etapa» luzatu egin da bere bi muturretan. Izan ere, gazte-eremuan gero eta adin txikiagoetan sartzen dira, gazteen artean garapen pertsonalerako eremu gisa agertzen den asteburuko aisialdirako irteeretan gero eta lehenago parte hartzen dutelako eta, alderantziz, gazte-eremu horretatik gero eta adin handiagoekin «irteten» dira. Gizarte-aldaketa hori kontuan hartu behar da, funtsezkoa baita gazteak eta gazteen bizimoduak ulertzeko.

Hezkuntza-eredu permisiboago batzuetatik —paradoxa bat bada ere— aisialdirako eremuan, hau da, «gazte-eremuaren» gune sinbolikoan gero eta lehenago sartzea ahalbidetzen ari dira. Paradoxa bada ere esan dugu, kontraesana dirudielako gurasoek seme-alabak zuzentzeko duten jarrera babesletik gazteak kanpora, aurkakotzat hartzen den horretara, gero eta adin txikiagoetan irteteak. Izan ere, 13 edo 14 urteko gazteak (haurrez ere hitz egin badezakegu ere), gero eta lehenago hasten dira gazte-sektoreen aisialdiko eremuak eta azturak hartzen. Gero eta goiztiarragoa den sarrera hori, beraz, eboluzio-egoera ez hain garatuetan gertatzen da. Horrek berekin dakar gazteek «kanpoan», familiaren aginduaren eta berdinen agindu berriaren eta eragin gero eta handiagoaren artean, gurasoen begiradarik eta babesik gabe zabaltzen zaizkien gizarte-ingurune berrietan aurkituko dituzten tentsioei aurre egiteko gizarte-baliabide eta baliabide pertsonal gutxiago izatea. Ikuspegi horretatik, asteburuko irteera autonomoan adina txikitzeak arriskuak ekar ditzake gazte horien osasunarentzat, toxikoen kontsumoari dagokionez, gaur egun gazteen dibertsio-ereduetan horiek duten presentziarengatik. Ildo horretan adierazgarria da adin ertainetako gazteak eurak izatea aldaketa horren eta bertan hautematen dituzten arriskuen lehen bozeramaileak. Badirudi gazteagotan haste horretan gazteak duela urte gutxi batzuk zeudenak ez bezalako toxikoen (bereziki alkohola eta kanabisa) kontsumo-ereduak garatzen ari direla, eta gazte helduagoen hainbat sektorek (pixka bat helduagoak direnek) ere, eredu horiek beren esperientzia izan denetik urrun hautematen dituztela. Dibertsio edota alkoholaren kontsumoko ereduak ezezagun izate horrek gazte izatean gertatzen ari den aldaketaren intentsitatea adierazi edo islatuko luke.

Asteburuko irteeretan, gazteen garapen pertsonalaren gune sinbolikoan, parte hartzen gero eta lehenago hasia ez dator bat eguneroko beste arlo batzuetan «erantzukizunak» beren gain hartzearekin, aitzitik, badirudi gazteak ikasketen esparruko exijentzia eta erantzukizunaren eta asteburuko irteeretako dibertsioaren artean bizi direla. Ikuspegi horretatik, gazte-etapa sinbolikoki dibertsioa eta arduragabetasuneko, ia erantzukizunik gabeko etapa moduan ikusten da eta gazteek halaxe bizi dute.

«Gozameneko» eta arduragabetasun mugatuko egoera hori da gazteen adin ertainekin bat datorrena, alegia 16-23 urte bitarteko adinarekin; horiek dira «gazte izatearen» gune sinbolikoa eta, beraz, helduek duten «gazteria zorionsuaren» irudira gehien hurbiltzen diren adinak. Adin ertain horietatik helduen eremuari zuzentzen zaion begirada ez da baiko-rra, «heldu» izatea ez da asmoen artean agertzen, baina nerabeek «gazte izatearen» gune nagusi horretara iritsi nahi dute. Helduen eremua ez da lortu nahi den helburu bat, alderantziz, bilatzen dena edo nahi dena da helduen eremu horretarako sarrera ahalik eta gehien atzeratzea, erantzukizunen eremu gisa modu ezkorrean markatuta agertzen baita. Horrela, helduen munduan parte hartzeko gizarte-eragozpenei gehitzen zaie mundu hori gazteentzat erakargarria ez izatea eta, ondorioz, «gazteen bizimoduaren» luzapena bi aldeetatik indartu egiten da. Aipamen grafiko batean, Donostiako neska gazteek diote «helduen bitzita estresatua izango dutela pentsatzeak estresatuta sentiarazten dituela».

— Baina gainera *estresatuta gaude, hemendik aurrerako gure bizitzan estresatuta egongo garela dakigulako*. Orain estresatuta nago, baina lanean hastean estresatuago egongo naiz, seme-alabak izatean estresatuago egongo naiz eta horrela gauzak gehitzen doaz...

— Erretiratzen zaren arte.

— Erretiratzen naizen arte, pentsa.

— Baina erretiratzen zarenean erretiro kaskarra izango duzu.

(4. TB. Emakumeak. 16-18 urte. Donostia. Maila ertain-altua.)

Aurreko belaunaldietan «heldu» izatera iristea erakargarria bazen ere, orain ez, eta horrek orainarekin duten lotura eta bizipena sendotzera bultzatzen ditu gazteak, ez dute heldutasuneko etorkizunean pentsatzen.

Gazte-eremuan gazteago sartzea fenomeno berri samarra dela esan badaiteke, gaztetasuna tradizioz «helduak» izan diren adinetara luzatzea gure gizartean jada oso zabaldua dagoen fenomeno da, guztiz normala baita etxetik 30 urte beteta alde egitea. Hala ere, esan beharra dago, dirudienez etxetik alde egiteko adin hori jaisten hasi dela zertxobait.

Lan-esparruko behin-behinekotasuna, ezegonkortasuna eta iragankortasuna (1990eko hamarkadan egin ziren erreformen, eta bereziki 1994. urtean egindakoaren ondorioak) dira gazteek hasieran lan-merkatuan parte-hartzeko dituzten baldintzak. Eta neurri handi batean baldintza horiek dira gazteek, gurasoen etxetik alde egiteko zailtasunen aurrean, gurasoen etxean denbora luzez egotearen oinarria —berez, oinarrietako bat—. Izan ere, gazte-sektore askok lan-merkatuan jasaten dituzten lan-baldintzek, etxebizitzaren prezio garestiarekin batera (bai alokairuan bai eta jabetzan ere), asko zailtzen dute etxetik alde egitea. Bestalde —eta ezin da inola ere alde batera utzi—, gazteek familiaren etxean duten egoera eta bizi-baldintzek ere ez dute etxetik alde egitera bultzatzen edo laguntzen. Ez dugu ahaztu behar gurasoen eta seme-alaben arteko belaunaldi-gatazka gure gizartearen beste —ez hain aspaldiko— etapa historiko batzuetan izan dena baino askoz ere txikiagoa dela; izan ere, beste etapa horietan hezkuntza-eredu autoritario eta errepresioegilea nagusi zen. Zentzu horretan, egindako taldeek gazteek dirudienez gurasoekin dituzten harreman onak islatzen dituzte, adinaz aparte ez baita izan gurasoekin egoera gatazkatu edo txarrik erakutsi duen talderik; aitzitik, oro har, elkarrenganako konfiantzazko harremana dutela aitortzen dute. Gurasoekin harreman onak dituztela, ez da harritzekoa «gurasoekin ondo bizitzen dela» dioen ideia behin eta berriz errepikatzea. Gazteek gaur egun familiaren etxean erosotasun-maila eta ongizate material handiez («ondo bizitzea») gozatzeaz gain, askatasun pertsonaleko esparru garrantzitsuak dituzte. Izan ere, gazteek ez dute etxetik alde egiteko beharrik sentitzen erabakiak nolabait independentzia edota autonomiarekin hartzeko, bereziki kontsumoaren alorrean. Gurasoekin gustura bizitzeak, mendekotasun ekonomiko handia izan arren, muina aisialdiko eremuan izango lukeen autonomia-eremu garrantzitsu bat garatzea ahalbidetzen die. Egoera pribilegiatu horretan gazteak ez dira familiaren etxetik alde egiteko bereziki behartuta edo bultzatuta sentitzen, alde egite hori konplikatu, zaila eta batzuetan lortezina dela iruditzen baitzaie; beraz, beren erantzuna —neurri handi batean gizarteak bultzatuta— «beren gaztaroa», beren bizimodu gaztea, luzatzea da.

Baina adinean aurrera egin ahala, gazte-sektore helduak atsekabe pertsonala erakusten hasten dira gaztetasunaren luzapen horrengatik, sozialki gero eta behartuagoa dela eta beren desio pertsonaletatik urrun dagoela sentitzen dutelako. Gazte-sektore helduenetan arian-arian «gazte-bizitzaren luzapen hori» —«sinbolotzat» asteburuko irteera izango lukeena— atsekabe handiagoaz bizi dute, beren garapenari eta hazkuntza pertsonalari mugak jar-

tzen baitizkie. Zalantzarik gabe, ikerketan gehien harritu gaituen alderdietako bat izan da, gazteen talde helduetan, haien diskurtsoetan gizarteak eman dien edo betetzen utzi dien lekuarekiko sentitzen duten nahigabea aditzera ematen duten seinaleak agertzen direla ikus-tea. Lan-merkatuko behin-behinekotasuneko eta ezegonkortasuneko baldintzak, bereziki kolektibo gazte horiengan eragina dutenak dira, etxebizitzaren prezio garestiarekin batera, guztiz autonomia izango den proiektu pertsonal bat garatzea eragozten dutenak. Etxebizitza bat eskuratzea (nahiago dute jabetzan) gazte helduenen diskurtsoan autonomia eta independen-tzia pertsonalaren gune sinboliko gisa, helduen mundurako sarrera gisa, agertzen da. Gaindi-tzen zaila den oztopo moduan azaltzen den azken jauzia da. Gazte helduen sektore horiek antzematen dute orain jada parte hartu nahi duten helduen mundurako sarrera ahalik eta gehien zailtzen zaiela.

Bikotekidearekin, baina bereziki bakarka, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunek etor-kizuneko proiektu bat eraikitzea eragozten dute, eta horrek ainguratuta egotera edo oraina, «berehalakoa», bizitzera bultzatzen ditu. Beraz, gizarteratze «heldu» bat lortzeko zailtasunaren —etxebizitza eskuratu ezinean laburtuko litzatekeen horren— aurrean, gazte-sektore garran-tzitsu batzuek dirudienez «kontsumo heldu» horri uko egin eta berehalakoagoa eta epe labu-rragokoa den kontsumo-eredu bat garatzea aukeratzen dute (edo horretara behartuta daude). Ikuspegi horretatik gazteen gizarteratzea kontsumoaren bitartez gertatzen ari da eta, ondo-rioz, kontsumitzaile-kolektibo gisa eratzen ari dira herritar gisa baino lehenago. Nork bere proiektu pertsonal autonomia garatu ezin duenez, gazteek beren diru-sarrerak berehalako kontsumo batera zuzentzea aukeratzen dute antza denez —autoa, bidaiak, arropa, aisialdia, etab.—, kontsumo hori epe ertaineko lorpen baten alde atzeratu ordez.

— Nik ez dut ulertzen. Zera esan nuen: «Zer...? Nola: ez dut ulertzen. Ezin dut... Ezin dut [etxe bat erosi] eta kito... Gastatzera. Pikutara dena, gastatzera...»

[Barreak]

— Egia da, azkenean...

(9. TB. Emakumeak. 25-29 urte. Zarautz. Aktiboak. Maila ertaina.)

Gazteen eremuaren goi-mugara hurbiltzea, helduen eremuko sarrerara (biologikoa dirudi soziala baino gehiago) gerturatzea adin handiagoko taldeek atsekabez bizi dute, bete gabeko

itxaropenak dituztelako, erabateko garapen pertsonalaren ezintasuna sentitzen dutelako. 25etik 29 urtera bitarteko Zarauzko emakume gazteen taldeak argi eta garbi islatzen du helduen eremuan, epe ertain-luzeko proiektu bat eraikitzeko eremu horretan, parte hartu ezinak eragiten dien nahigabea. Zalantzarik gabe, ikerketan azpimarratu beharreko gai bat, hain zuzen, Euskadiko gazte helduen hainbat sektore itxuraz sufritzen ari diren egonezin psikologiko handia da. Egonezin edo nahigabe pertsonal hori ez dator bat helduek nonbait gazteei buruz duten «gazteria zoriontsuaren» iritziarekin. Helduen diskurtso murriztailean gazteen eremua gehiegitan lotzen zaio gozamenaren eta arduragabetasunaren ideiarekin eta horrek «gazteria zoriontsua» dela pentsarazten du; baina gazteei eurei entzuten badiegu, lotura hori ez da uste bezain zuzena eta adiera bakarrekoa, batez ere gazte helduen sektoreei entzuten zaienean. Haien desilusio-sentsazioa, frustrazioarena, atsekabearena, bizi-hutsunearena edo eman nahi diogun izenarena deigarria da benetan. Aitortzen dute «bizitza ona» gozatzen eta bizitzen dutela, baina horrek ez ditu «zoriontsu» egiten azkenean, edo horren maximalista izaten saiatu gabe, ez die pentsa daitekeen bezainbeste gozarazten. Berehalakoan ahitzen den gozamina da, benetako proiektu pertsonal bat elikatzen eta eraikitzen ez duena. Gazte helduek eurek (gutxi gorabehera 24 urtetik gorakoak) egiten duten hausnarketa da, gauza materialei dagokienez beren gurasoek adin horretan izan zezaketena baino gehiago edukita, ez direla «zoriontsuago» sentitzen; gazteek duten ez gozatze hori, zorion-falta hori beren egonezinen, beren nahigabe handiaren sintomatzat hartzen dute. Posizio horretatik gazteek nabarmen adierazten dute eraiki dugun gizarte kontsumista eta materialistaren menpe sentitzen direla, eta horrek atsekabetzera, «inoiz ez konformatzera» eramaten dituela. Izan ere, gizarteak gero eta gehiago kontsumitzera behartzen du, kontsumitzeko ekintza bera kontsumitutako objektua baino gehiago baloratzen eramaten du, eta, ondorioz, geroko gozamenara iritsi ordez, erosketaren ekintzan bertan ahitzen den asebetetzea eskaintzen du.

Gaur egungo gizartearen integrazioa kontsumoak baldintzatzen duen neurrian, kontsumo-maila jakin batzuk lortu ezin izateak gizarte-posizio periferiko batean kokatzen du pertsona, eta, antza denez, ideia hori da Euskadiko gazte helduen atsekabearen, frustrazioaren oinarria. Gurasoek duten, eta eskaini dieten, bizitza-maila beren kasa errepikatu edo lortzeko ezintasunaren pertzepzioa porrota balitz bezala bizi edo sentitzen dute nolabait. Beren esperientzia pertsonaletik, etxetik alde egiteko eta beren proiektu pertsonala guztiz garatzeko dituzten zailtasunak, sarritan gurasoen laguntza ekonomikoa jasotzen jarraitu beharrak, gizartearen erdigunea —ustez beraie egokituko zaiena— bete ezinaren pertzepzioa sorrarazten ari da haiengan, hau da, posizio periferiko batera hurbiltzen ari direla sentitzen dute. Posizio periferiko hori gazteen diskurtsoan, sinbolikoki, etxebizitzaren kostua dela-eta nork bere herrian bizitzen jarraitzeko ezintasun gisa ageri da; horrela gizartearen erdigunetik «kanporatuta»

sentitzen dira. Adin-talde helduenen diskurtso horrek nabarmen uzten du beren itxaropenak ez direla bete, baina baita gizarteak eurengan jarrita dituen itxaropenei ez erantzuteak sorrazten dien frustrazioa ere.

### 1.1.1. Asteburuan irtetea

Taldeetan sortutako diskurtsoetan, asteburua lanegunei kontrajarrita ageri da, eta deskonexio gisa, asteko ohikeriaren haustura moduan bizi dute. Jarrera horretatik abiatuta, asteburuak funtsezko lekua betetzen du gazteen diskurtsoan, eta bera da garapen personalaren eremu nagusi, batez ere adin gazteenengan (gutxi gorabehera 22 urtera arte). Gazteek asteburuko irteerari ematen dioten nagusitasuna taldeen bileretan islatuta gertzen da, haiek beren esku-hartzeak hasteko aukeratzen duten gaia baita. Asteburuan garatzen dira haientzat atsegingarrienak diren egoerak, eta atsegintasun horren faktore nagusia lagunekin biltzea da.

Gazteen diskurtsoetan atentzioa gehien ematen duten alderdietako bat asteburuko bizi-penaren bilakaera da. Izan ere, kanpoko eremu horretara iritsi berriak diren edo duela gutxi iritsi diren nerabeen sektoreek asteburuko irteera «askatasun-eremu» gisa, eraikuntza pertsonaleko eremu gisa bizi dute, baina gazte helduen adinetan asteburuko irteerak atsekabea ere osagai duen bizipen bilakatzen dira pixkanaka. Paradoxa bada ere, asteburuko eremu askatzaileak nahigabez eta ohikeriaz bizitzeko gaitasuna du, eta batzuentzat gainera betebeharra ere izan daiteke, hau da, asteburuan «ezer ez egitea» askapen moduan bizi daiteke. Baina harrigarriena da ohikeriaren, nekearen (edota asperraren) pertzepzioa, jada sektore oso gazteetan aurkitzen dela, esate baterako, 16-18 urte bitarteko Donostiako nesken taldean. Antza denez, gazteen dibertsio-eredua ere —tabernetara irteteari eta alkohola edateari lotua— berehalako kontsumoaren beste «objektu» bat bihurtu da gazteentzat, eta horrek oso azkar «agortzera» darama: lehenago parte hartzen da dibertsio-modu horretan, baina lehenago ahitzen da eman dezakeen gogobetetzea. Horrela, aisialdiaren eremuak, gazteen gozamenari lotzen zaionak eta neurri handi batean «gazteria zorionsuaren» irudiaren oinarri denak, ez ditu gogobetetzen Euskadiko gazteen sektore handi batzuk, eta horrek aisialdirako bestelako aukerak bilatzera daramatza, dibertsio-aukera bakartzat nahitaez «edatea» duen eredutik kanpo.

Aukera horietako bat da lonja edo lokaletan elkartzea; bertan gazteek guztiz gara dezakete eurentzat asteburuaren alderdirik atsegingarriena dena —ikerketan parte hartu duten gazte

gehienek hala adierazi dute—. Toki horiek hitz egin, elkarrizketan aritu, lagunekin trukean aritu eta partekatzeak aukera ematen dute — litroak egiten edo kale-zurrutean ere berreskuratu da dimentsio sozial hori—, izan ere, halakoak nekez egin daitezke itxuraz edateko aukera bakarrik ematen duten taberna eta pubetako giro zaratatsuetan. Lonja edo lokaletan biltzen direnean, ordea, alkoholaren kontsumoarekin duten erlazioa desberdina da, hark protagonismoa galtzen baitu, dimentsio sozialaren garapen handiago baten alde.

Dimentsio sozialaren garapena, lagunekin partekatzearena, gure ustez funtsezkoa da, gazteek garapen pertsonal osasuntsua eta orekatua izan dezaten. Gazteen diskurtsoek nolabaiteko «hauskortasuna» erakusten dute adiskidetasun-harremanetan, harreman horiek neurri handi batean gozamenaren eremuan eta denboran ematen baitira. Harremanen hauskortasun hori azken muturreraino eramanda dirudienez zabaltzen hasi den ekintza batean islatzen da: hain zuzen, «lagun mozkorra» zaintzearen ardura larrialdietako zerbitzu medikoen eskuetan uztea. Lagun batek alkohol gehiegi edaten duenean bere ingurukoek, larrialdietan zaindu dezaten, 112 zenbakira deitu eta horrela parrandan jarraitu ahal izatea erabakitzen dutenean, harremanak euskarri duen «adiskidetasunaren ikuskera» izugarri hauskorra da. Lagunak dibertsio-uneetarako bakarrik direla ulertzen bada, gaztea bakarturik dago, ahul, zalantzak edo kezak dituenen besteren laguntza eskatu eta elkarrekin erabakiak hartzeko aukerarik gabe. Beraz, dimentsio afektiboaren garapena, lagunekiko trukea sendotzea elementu «osasungarria» da gazteentzat, babesa eta laguntza ematen dielako. Neska helduenek nabarmen uzten dutenez, barrena hustea osasungarria da, gaitasun terapeutikoa du. Hortaz, ona da komunikazioa erraztuko duen ingurune bat izatea, sentimenduak edo kezak ezkutatu ordez adierazten «irakatsiko» duena. Gure gizarteak, eta gazteen artean bakarrik ez, egonezinarekiko tolerantzia eskasa du, eta ondorioz «erlatibizatu» egiten du edo zuzenean ezkutatu. Jarrera ukatzaile horrek —barnerakoitasuna ez denak— guztiz garatzea eragozten dio norbanakoari.

Euskadiko gazteek adiskidetasunari, alegia, lagunekin dibertsio eta gozameneko uneak partekatzeaz gain babes gisa ere hartutakoari, ematen dioten balorazioa eta gazteei dirudienez batzuetan asteburuko irteerak eragiten dien nekea edo ohikeria-sentimendua kontuan hartuta, ez da arraroa gazteekin elkartzeko lonja edo lokal bat gazteek desiratzen eta bilatzen duten aukera bat izatea; baina zenbait eragozpen ditu: kostua eta batzuetan auzokoekin izan daitezkeen gatazka txikiak.

Asteburuko «neke-sentsazioa», ohikeriarena, herrien tamainaren araberakoa da nolabait, horrek aisialdiko eskaintza mugatu —eta gazteek diotenez ezagun— bat izateaz gain,

sistematikoki «jende berbera» topatzea baitakar eta, ondorioz, ohikeriaren pertzepzioa areagotu egiten da.

— Zona oso gutxi daude irteteko eta azkenean urte osoa toki berberetara joaten igarotzen duzu eta horrek aspertu egiten nau. Ostiraletan eta larunbatetan irteteak asko aspertzen nau. Nahiago dut nire mutil-lagunarekin joan eta kito, inora parrandara joan gabe. Nik nahiago dut. Buruz ezagutzen ditut, jende bera eta guzti.

(7. TB. 19-24 urte. Bilbo. Unibertsitateko ikasleak. Maila ertain-altua.)

Ikuspegi horretatik, aisialdiaz ohikoa ez den beste herri batean gozatzea egurasteko esperientzia, askatzailea da gazteentzat, horrekin batera irekitzea, berritasuna, aniztasuna eta anonimotua datozelako.

Izan ere, hiru lurraldeetako hiriburuetan egindako taldeetan, nahiz esparru txikiagoei dagozkienetan, «guztiek elkar ezagutzearen» interpretazio ezkorra egiten dute. Interpretazio hori biziagoa eta ezkorragoa da, agian, Gipuzkoan egindako taldeetan, eta bereziki neskek osatutakoetan. Dentsitate sozialaren bizipen negatiboak alderdi desberdinetan du isla, baina guztiek, «gizarte-kontrolaren» ideiatik abiatuta, nolabaiteko «zapalketa-pertzepzio» batera daramate eta, ondorioz, «kanpoko» askatasun-eremu gisa ageri da, norbera den bezala azaltzeko aukera eskaintzen duen eremu gisa. «Kanpoan» gozatzen den anonimotua askatasun-eremu gisa bizi da, han ez dago beldurrik gizarte-kontrolari dagokionez, besteen begirada arakatzailari dagokionez.

Lonjetan elkartzea nahiz asteburuko irteera, gazteek garatzen dituzten aisialdiko bestelako aukeren bilaketak Euskadiko gazteen zenbait sektorek gaur egun nagusia eta gehienena den dibertsio-ereduarekin sentitzen duten atsekabea adierazten du. Izan ere, eredu hori da errazen gara dezaketena, baina ez da gehien ematen diena, batez ere asteburuko irteeraren eremura iristearekin batera, familia-eremutik irten eta autonomia izaten hasteko etapa igaro ondoren. Beraz, lonjak edo lokalak lortzea errazteko ekimenak bultzatzea edota «gazteentzako ostatuen» sare bat sustatzea, Euskadiko gazteen hainbat sektore asebetetzen ez dituzten dibertsio-eredu batzuetatik urrundu nahian bilatzen ari direnaren ildoan egongo litzateke.

## 1.1.2. Indarkeriaren ‘egunerokotasuna’ gazteen inguruneetan

Nerabeen eta adin ertainetako sektoreen diskurtsoan deigarria da «indarkeriaren», gazteen inguruneetan izaten diren erasoen «egunerokotasuna». Hau da, Euskadiko gazteek, batez ere adin txikienetakoek, nolabaiteko indarkeria-egoerak bizi dituzte, antza, bai eskola-ingurunean bai eta aisialdiko eremuan ere. Indarkeriarekin bizitze hori, gizarte-egonezin baten sintoma dela kontuan hartu gabe, haiengan eragina izateko arriskua du, erasoen hartzaile edo biktima izan daitezkeelako bakarrik ez, baita besteekin izaten dituzten harremanetan mesfidantza, beldurra, etab. sor daitezkeelako ere.

Nerabeen artean (15-16 urtera arte), eskola-erasoa beren kezken artean agertzen da (beldurra ere aipatzen dute). Bestalde, adin ertaineko gazteen artean (16 eta 21-22 urte bitartekoak) eraso-egoerak edo funsgabeko probokazioak nahiko ohikoak dira gazte horiek ibiltzen diren dibertsio-zonetan, eta alkoholarekin edota bestelako drogen kontsumoarekin lotzen dute, esate baterako, kokainaren edo droga sintetikoen kontsumoarekin.

Bi fenomeno horiek, alegia eskola-erasoak eta funsgabeko probokazioak, forma desberdinak hartzen dituzten arren, biak dira mugagabeak, bietan erasotzaileek ez dute beren burua kontrolatzen eta, jada adierazi dugunez, biak dira sinbolikoki gaur nagusi den hezkuntza-ereduaren ezaugarri kaltegarriak. Kanpoko mugarik ez izateak inolako mugarik ez barneratzera dararama, eta horrek aukera txikienean erantzun erasokorrek ematea errazten du. Zentzu horretan, elkarriketatuak izan diren larrialdi-zerbitzuetako batzuek azpimarratu dute azken urteetan gehitu egin direla gazteen parranda-zonetara zerbitzuren bat betetzera joaten diren larrialdietako zerbitzuak biktimatzat dituzten gertakari bortitzak. Egoera horietan, alkohola mugen desinhibitzailerik denez, «erasoa» dibertsioaren zati bihurtzen da, eta onartzen den muga bakarra polizia-aren autoritate instituzionala da.

Indarkeria-giro horretan, eskola-erasoak eta funsgabeko probokazio deitzen ari garenak duten beste elementu bat bakardadea ahultasuntzat hartzea da eta, alderantziz, lagun-taldea babes eta defentsatzat hartzea. Horrela ulertzen da egoera horien aurrean itxuraz batez ere arriskuan dauden sektoreek (metropoli-barrutietako maila ertain-baxuetako 16 eta 18 urte bitarteko gazteak), adiskidetasunaren «indar gutxiko» ikuskera horretan, «ezagunaren» irudiak beren itxaropenei erantzuten dien ikuskera horretan, eroso sentitzea. «Ezagunen kopurua» beharra dagoenean haiengana jotzeko aukera ematen duen laguntza-saretzat hartzen da, bai haiengandik zerbait hartzeko bai eta beharra izanez gero haiengandik babesa jasotzeko ere.

Eskola-erasoaren kasuan azpimarratu egin behar da gazteen artean zein zabaldu-ta dagoen, eta fenomeno honen aurrean erakusten duten «ohitura». Fenomeno horri buruz hitz egiteko *bullying* hitza erabiltzeak jada adierazten du zein hurbilekoa duten, eta dirudienez ikastetxeetan eta etxeetan hitz egiten dute gai horretaz. Gizartean sortutako kezka, itxuraz gazteek ere badutena, kontuan hartuta, badirudi kideen artean gerta daitezkeen gatazka- eta eraso-egoera guztiak «eskola-erasoaren» barnean sartzen direla. Eta baliteke horrela benetako eskola-erasoko egoeren larritasuna eta dramatismoa erlatibizatzeko arriskua izatea. Hori kontuan izanik, gazte-talde horietan atentzioa ematen duen lehena da beraiek *bullyingaren* barnean sartzen dituzten egoerei aurre zein normaltasunekin egiten dieten. Eta agian, zoritxarrez beraientzat eguneroko esperientzia bat denez, horregatik izango dute hain garbi erasoaren mekanismoak nola funtzionatzen duen. Ahultasunaren ideia nagusia da gazteek *bullyinga* garatu eta indartzeko sorgin-gurpilean sartzera bultzatzen duen prozesuaz duten irudian. Ahula da «bere burua defendatzen ez dakiena» edo bakarrik dagoena. Fenomeno horretan parte hartzen dutenak ez dira biktima eta erasotzaileak bakarrik, hirugarren batek ere parte hartzen du, alegia lekukoek. Hirugarren horren egoera deserosoa —eta arriskutsua— da, lekuko diren egoera horretan, gaitzetsi arren, burua jiratzten dutelako, gatazkan ez sartzeko beste alde batera begiratzten dutelako: ez dute nahi erasoaren edo bazterketaren helburu izaterik eta erasotzaileari aurre egin behar izaterik. Arazoa da jarrera pasibo horrekin erasotzailearen botere-jarrera eta biktimaren bakardadea eta ahultasuna betikitzen edota sendotzen dituztela. Lekukoen itxurazko «parte ez hartzea» azken batean jarduera aktiboa da. Egoera hori betikitzean eta erasotzailearen —lider negatiboaren— botere-jarrera elikatzean, hirugarrena bera lehenago edo beranduago harengana hurbiltzera behartuta geratzen da. Taldekoa izateko beharrak, orain bai, jarduera aktibo batera bultzatzen du. Taldetik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta errazagoa izango da haren diskurtso bera izatea, eta hasiera batean gaitzesten ziren balioak azkenean barneratzea; horrek azkenean erasoan, biktimak, baztertuta geratu direnak, ez onartzen ere modu aktiboan parte hartzea erraztuko du. *Bullyingaren* fenomeno horretan esku hartu eta zerbait egiteko zailtasuna kontuan hartuta, «hirugarrenaren» leku horretatik lan egitea ona izan daiteke, itxuraz pasiboa den bere parte-hartzea biktimaren kontrako bihur ez dadin, aitzitik, izatekotan erasotzailearen kontrakoa izan dadin, sustatuz, lagunduz eta baliabideez hornituz.

Ildo horretan interesgarria iruditzen zaigu eskola-erasoa jasateko arrisku handiena duten gazteen artean *bullyinga* beti izan dela dioen ideia desegitea; izan ere, askotan gurasoak dira lehenak ideia hori transmititzen. Pertzepzio horren arabera eraso «normalizat» hartu eta bizi-tzeko arriskua dago, eta horrek garrantzia kentzen dio eskola-erasoari, gaur egun gertatzen ari den bezala; gainera, gertatzen ari denaren erantzukizuna biktimaren gain uzteko arrisku ezkutua ere badago.

Zentzu horretan, beharrezkoa dirudi gazteekin «eskola-erasoaren» «anormaltasuna» lantzen jarraitzea. Jakina, biktimei lagundu behar zaie, baina «hirugarrenaren» jarrera edo irudia ahaztu gabe, hark itxuraz ezer ez egin arren bera ere biktima izan edo «erasotzaile» bilaka baitaiteke.

## 1.2. DROGEN KONTSUMOA

Drogen kontsumoari dagokionez, gazteek bereziki azpimarratzen dute haien kontsumoaren «normalizazioa», eta horren ondorioz, toxiko batzuk gehiago ikusten dira eta beren kontsumoa gutxiago ezkututzen da, esate baterako, kanabisa eta kokaina. Gehiago ikuste hori gazteen inguruneetan drogak eskuratzeko erraztasunaren usteari gehitzen zaio. Ideia hori talde guztietan ageri da —gazteek diote Euskadin drogak lortzea Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan baino errazagoa dela—, baina bereziki Donostiako taldean, hauen ustez kokaina, kanabisa edo alkohola praktikan berdin-berdin lor baitaitezke.

Ikusgarritasun eta eskuragarritasun handiago honi gehitzen zaio, gainera, era honetako substantzien prezioek izandako beherakada eta gazteek, aldi berean, diru-kopuru handiagoak erabiltzen dituztela. Beraz, gaur egun gazteek ezagutzen duten gizarte-ingurunean, hainbat arrazoi direla-eta, errazagoa da drogak eskuratzea, eta hori izan daiteke drogak kontsumitzen hasteko adina aurreratu izanaren oinarria. Hori da gazte helduek beren esperientziari dagokionez adierazten dituzten aldaketetako bat; gazteek orain «normaltasun» handiagoz bizi dute kanabisaren kontsumoa edota kokainarena, ez dira hautematen asteburuetan irteten hasi zirenean bezain jokabide urrun eta debekatu gisa. Kontsumo horien «normaltasunak» bere kontsumo ludikoaren legitimazioaren ideia hurbiltzen du, alkoholaren kontsumoak jada duenaren antzera; eta arriskuen pertzepzioa urrundu egiten du, horiek mendekotasunaren esparruan kokatzeko joera dutelako eta esparru hori gazteek gara dezaketen kontsumo ludikotik urruti hautematen dutelako.

Drogen eskuragarritasun-pertzepzioaren testuinguru horretan, alkoholaren eta tabakoaren kontsumoaren nagusitasunaz gain, kanabisaren kontsumoa ere nahiko legitimatuta dago gazteen artean; kokaina eta droga sintetikoak dira espazio ez hain normalizatuetan agertzeko joera dutenak. Heroina ez da agertzen Euskadiko gazteen diskurtsoan, izan ere gazte-sektore ertainen esperientziatik eta inguruneetatik oso urrun azaltzen da.

### 1.2.1. Alkoholaren kontsumoa

Gazteek alkoholaren kontsumoari buruzko hausnarketa egiten dutenean beren diskurtsoan agertzen den argumentuaren harietako bat da, adina kontuan izan gabe, euskal gizartean kontsumo horrek duen normalizazio-legitimazioa. Normalizazio hori estatistiketan islatzen da, Euskadiko alkohol-kontsumoaren batez bestekoa Estatukoa baino handiagoa baita.

Gazteek nabarmen uzten dute alkoholaren kontsumoa errazten —edo bultzatzen— duen ingurune bat dagoela. Gazteen parranda-zonetan ohikoak diren «2x1» motako eskaintzak, edo alkoholik gabeko edariek duten prezioa bera —Zarauzko taldean ironikoki esan dute «urrezteko edaten dela»— alkoholaren kontsumoak gizartean duen legitimazioaren isla dira.

Euskal gizartean alkoholaren kontsumoak duen normalizazioaren ondorioz, Euskadiko gazteek normaltasun osoz ikusten dute haren kontsumoa, beren hazkuntza-prozesuan eman beharreko beste urrats baten moduan, kontsumo horren arriskuak zalantzan jarri gabe; adibidez, tabakoaren eta biriketako minbiziaren arteko lotura ezagutzen dute eta arrisku horrek tabakoa kontsumitzeko motibazioa kentzen die, baina alkoholaren kontsumoan ez da halakorik gertatzen. Alkoholaren kasuan osasunerako arriskuak «gehiegikerian» kokatzen dira eta epe luzerako. Orainean alkoholaren kontsumoaren arriskua, alkoholaren eraginpean gidatuz gero trafiko-istripu bat izateko aukerara mugatuko litzateke.

Gazteen diskurtsoan, alkoholaren kontsumoa kontsumo sozial bezala agertzen da, hazkuntza-prozesuan eman beharreko beste urrats baten moduan; are gehiago esan daiteke: alkoholaren kontsumoko kultura baten pertzepziotik, gizarteratze- edo integrazio-prozesuan eman beharreko beste urrats baten moduan agertzen da. Alderantziz, tabakoaren kontsumoa bakarkako kontsumo gisa agertzen da, eta norberak erabakitzen du parte hartu nahi duen ala ez. Beraz, desberdinak dira tabakoak bakarkako kontsumo gisa duen pertzepzioa eta alkoholak gizarte-kontsumo gisa duena, eta horren ondorioz taldearen presioak funtzio oso desberdina du batean ala bestean. Gazteen diskurtsoak, hain zuzen, tabakoaren kasua bakarkako kontsumo gisa deskribatzen du eta, beraz, «ez kontsumitzeak» ez du arriskuan jartzen taldekoa izatearen sentimendua; aitzitik, alkoholaren kontsumoa maila sozialean garatzen da, asteburuan eta, beraz, berdinek direnekiko harremanen gunean, eta hor indarra hartzen du taldekoa izatearen ideiak. Taldekoa izan nahi horretan, taldeak heterogeneotasuna (ez kontsumitzea) ezabatzeko egiten duen presioak alkoholaren kontsumoan ere parte hartzea eta horrela baztertuta ez sentitzera edo alkoholaren kontsumoak, itxuraz, ekartzen

duen konplizitatetik kanpora ez geratzera eramaten edo bultzatzen du. Hori kontuan izanik, egokia dirudi gazteen artean besteen erabakiarekiko errespetuaren ideia sendotzea, taldekoa izatea homogeneotasunean oinarritzen ez dela erakustea. Gazte-sektore batzuek koadri-lan aldarrikatzen eta eskatzen duten askatasun-eremua heterogeneotasunean oinarritutako partaidetza baten garapena da, alegia askatasun pertsonala eta taldekoa izatea aurrez aurre jarri beharrik ez izatea.

Gizartean alkoholaren kontsumoak duen legitimazioa bakarrik ez, euskal gizartean «txikiteoaren kultura» dagoela ere kontuan hartuta, sektore gazteenek, agian oraindik alkohola kontsumitzen hasi ez diren nerabeek, hura ez kontsumitzea argudiatzeko joera handiagoa dute «adin-kontua», alegia unea oraindik iritsi ez dela esateko, erabaki hori aztura osasungarrien testuinguru batean, barneratutako kanpoko agindu batean kokatzeko baino. Alkoholaren kontsumoan parte hartzea integratzea eta «tradizio» bati, haurtzarotik ikusi den kultura bati eta gizarte-harremanetarako eredu bati jarraitzea bezala agertzen da.

Gazteek beren kontsumo-eredua alkoholaren kontsumoko testuinguru kultural horretan sartzeko joera dute, beren litroak edo kale-zurruta txikiteo tradizionalarekin parekatuz —eta beraz legitimazio sozial bera bilatuz—. Gazteen diskurtsoan helduen kontsumo-eredua eta gazteen eredua agertzen dira eta, adinean gora egiten den neurrian, txikiteoko eredu tradizionalak gazteen eredu hori ordezkatzeko du. Bi kontsumo-eredu horiek eremu berean sartzean, gazteek ez dute hausnartzen zein desberdinak diren eta batak zein besteak osasunarentzat izan ditzaketen arrisku edo eragin desberdinak zein izan daitezkeen. Egiaz, bi ereduak dimentsio sozial bera dute, lagunekin elkartzeko eremuak dira, baina txikiteoan garrantzitsuena elkartzea da, eta hori edateko aitzakiatzat hartzen da, eta kale-zurrutean, berriz, motibazio nagusia «edatea» da. Txikiteoan —ardoa edo garagardoa edanaz—, kontrolik eza iristen bada, gehiegi edatearen bilatu gabeko ondorioa da, baina litroen kasuan —graduazio handiko edari alkoholikoak edanaz—, bilatzen dena hain zuzen «kontrolik gabe egotera» iristea da eta, gainera, egoera horrek ustez ekartzen dien «ongizatea» ahalik eta azkarren lortzea. Beraz, bi ereduak oso desberdinak dira: edaten jakitea erakusten duen (eta balioa ematen dion) txikiteoaren kulturaren —dirudie-nez landa-inguruei dagokiena— aldean, «litroak» —batez ere hiri-inguruetan ikusten dena— kultura horren kontrakoa dira, edaten jakitearen kontrako gidaliburua da (grinak bultzatutako kontsumoa, nahasketak, etab.).

Gazteen diskurtsoan alkoholaren kontsumoak toki garrantzitsua betetzen du haien aisialdiaren denboraren garapenean. Alkoholarekin duten harremana adinarekin batera aldatuko da, baina modu batean edo bestean beti ageri dela dirudi.

Egindako taldeek argi eta garbi erakusten dute alkoholarekiko harremanean izaten duten bilakaera, aisialdiko lehen irteeretatik, adin helduenetara arte, argi eta garbi helduen eredutzat har daitekeen alkoholaren kontsumo-eredu bat garatzen den arte. Bilakaera hori gazteek eurek deskribatzen dute espresuki eta, neurri handi batean, «litroetatik» «txikiteora» pasatzeko ibilbidean laburbilduko litzateke.

Ikerketak oinarritzat hartu duen adin-tarte zabalean, alkoholarekin duten harremana oso desberdina da, bilakaera argi bat dago. Fase batzuk bereizten direla esan daiteke. Fase horiek alde batetik ikaskuntzaren osagaia dute, norberaren ezagutzarena eta, horrekin batera eta zuzenean horrekin erlazionatuta, irteeraren esperientzia.

Bilakaera horretan, talde gazteenak asteburuetako aisialdiko beren irteeretan alkoholaren kontsumoaren atarian kokatzen dira; adin ertainak dituzten gazteen taldeak, 16tik 20-21 urtera dituztenenak, alkohola irensteko eredu inpulsiboago eta neurriz gainekoetatik hurbilago daude, eta zaharrenen taldeek, helduen eredutik hurbil dagoen kontsumo-eredu bat garatzeko joera dute.

Garapen edo ibilbide horretan, taldearen diskurtsoak bereziki azpimarratzen du «ikaskuntzaren» ideia, alkohola kontsumitzen den neurrian norberaren gorputza ezagutzekoa. Ikaskuntza horrek «kontrolatzearen» ideian du garapen handiena. Hau da, ikaskuntzak, norberaren gorputza ezagutzeak «bere burua kontrolatzen jakitera», kontrolik gabeko gehiegikeriara ez iristera eraman behar du subjektua. Norberaren esperientziatik egindako ikaskuntzaz gain, alkohola kontsumitzeko ereduaren aldaketak irteeraren esperientziaren aldaketari ere erantzuten dio. Gazteek arian-arian etapak «agortzen» dituzte, gorago beste atal batean adierazi dugun bezala, asteburuetako irteeretan ohikeriaren, gogaitasunaren sentsaziora iritsi arte.

Alkoholarekiko erlazioan hasten den ikaskuntza-prozesu horretan funtsezkoa da, eta norberaren «kontrolaren» ildo beretik doa, alkoholak organismoan duen eragina zein den jakitea. Gazteek adierazten dutena da eurentzat alkoholaren kontsumoak izan ditzakeen eragin atsegingarriak «maximizatzeko» ideia, eta eremu negatiboenetara (hau da, kontrolik gabeko mozkorra) iritea saihestea. Nork bere burua ezagutu eta alkoholak bere gorputzean eragin ditzakeen ondorioak ezagutzeko testuinguru horretan, fase edo estadio desberdinak agertzen dira gradiente moduan. Estadio horiek «giro oneko» egoera oinarritzkoenetik hasita, «txispatuta egotea», «aitzorra hartzea» eta azkenik kontrolik gabeko mozkorra izango lirateke.

Lehen fasea batez ere gazte helduek alkohola kontsumitzeko dituzten eruedetan gertatzen da. Kopa baten inguruan elkartutako lagunak bilera lasaia eta alai. Alkoholaren kontsumoa bigarren mailakoa da lagunekin elkartzeko esperientzia atseginarekin alaitasuneko, lasaitasuneko giro batean, azken batean, nor bere jendearekin «giro onean» garatzen den bizikidetzat. Giro erlaxatu eta lasai hori da gazteek alokatzen eta partekatzen dituzten lonja edo lokaletan sortzen denarekin lotzen dutena.

Bigarren estadia, «txispatuta egotea» gazte askorentzat «egoera ezin hobea» da. «Txispazte» horrek taldearen adierazpen onena erakutsiko luke, konplizitate-maila handia lortzen baita. «Idealizatutako» egoera horretatik abiatuta, ondo pasatzeko zeharkatu beharrik ez dagoen «muga» gisa txispazte horretara iritsi nahia agertzen da, are gehiago, ondo pasatzeko, gozatzeko, portaera desinhibitua baina kontrolatua eta norbere kordean (mozkorren arazorik gabe) izateko «bermea» eskaintzen duen egoera da. «Txispazte» egoera benetan gozatzen den une bezala agertzen da; gazteek hor geratu nahi dute, beste urrats bat eman eta «aitzurrera» pasatu gabe. Hain zuzen, txispazte hori azken muturreraino, mugaraino, eramateak hura gainditzeko arriskua dakar berekin, nor bere burua ondo ezagutzen ez badu edo «kontrolatzeko» behar bezain heldua ez bada.

Gazteen diskurtsoan bi estadio horiek, kontsumo txikia edota «txispaztea» bera ere ez dira praktika arriskutsuen ideiarekin lotuta ageri. Gazte gehienek jokabide horretan ez dute ikusten beren osasunarentzako arriskurik. Gehienez ere baldintza horietan gidatzeak ekar dezakeen arrisku erantsia hautematen dute. Gazteentzat eremu horietan kokatzea nor bere burua ezagutzeko aukera bat da, beren mugak probatzeko aukera; eta hori garrantzitsua da une horretan bizi duten etapan, eta aldi berean, «osasungarritzat» bi zentzutan har daitezkeen egoera atsegingarriak ematen dizkie: egoera atsegingarria eta nor bere burua ezagutzeko laguntza.

Alkoholarekiko harremanaren inguruan ezarri dugun sailkapen moduko honetan «aitzurra» «txispa» baino askoz ere egoera gozakaitzagoa da. «Txispaztean» talde-dibertsioa guztiz garatzen da, baina «aitzurra» eta, jakina, «mozkorra» ere esperientzia banakakoagoak izateko joera dute. «Aitzurra» lortzeko ez dakar gizarte-harremanak garatzea, aitzitik, eragotzi edo saihestu egiten ditu. Laguna orduan hasten da karga bilakatzen. Indibidualizazio bat gertatzen da, taldea talde gisa desagertu egiten da.

Alkohola kontsumitzeko gazteen ereduaren barnean, Euskadiko gazte-sektoreen zati handi batek, batez ere gazteenek, «aitzur» hori lortzea dute asteburuko irteeretako helburu, eta

gainera hori ahalik eta azkarren lortzea. Litroen karakterizazioak, graduazio oso handiko edari alkoholikoekin, txupitoeekin, nahasketekin, etab. astebururo helburu hori erraz samar lortzea ahalbidetzen du.

«Aitzurra harrapatzea» irteteko eredu hori Euskadiko gazteen hainbat sektoretan gertatzen dela egia bada ere, egia da era berean gazteen euren gaitzespena eta kritika eragiten dituela eta gazte horiek «beste arrazoirik gabe edatearen» eta «dibertitzeko irtetearen» ereduak kontrajarri eta aurrez aurre ipiniko dituztela. Gazteen ingurunean bertan gaitzetsi egiten da irteeraren azken helburua aitzurra harrapatzea izatea, horrek «dibertsioari» uko egitea, lagunekin ibili eta azkenean haien karga bat izatea, alegia dibertsiorako eragozpen bat izatea dakarrelako. Mozkortzeko edatea, helburutzat hartuta, ez da dibertigarria, edo gutxienez ez du eskaintzen partekatze prozesu baten amaieran «mozkortuta» amaitzeak eskaintzen duen dibertsio bera.

Mozkorra, «super aitzurra», gazteen diskurtsoan agertzen den azken estadioa da, alkoholaren neurritz kanpoko kontsumoan txarrena, «lurrean botata egotearekin» lotzen dena. Neska nerabeen taldeetan muturreko egoera hori da «koma etilikoarekin», alkoholaren neurritz kanpoko kontsumoaren ondorioarekin, lotzen dutena. Gazteek alkoholarekin duten harremanean eraikitzen duten ibilbidean, neurrigabekeria-egoerak lehen irteerei lotzen zaizkie, alegia alkoholarekin izaten diren lehen kontaktuei. Edateko kultura ezagutu gabe edo izan gabe erraz gaindi daitezke mugak.

### 1.2.2. Kanabisaren kontsumoa

Euskadiko gazteen artean «porroen» kontsumoa praktika normal samarra da, inola ere ez da ikusten ezohikotzat, aitzitik, «normalizaziotik» hautemateko joera dago.

Taldeetan adierazitakoa kontuan hartuta eta porroen kontsumoa ia talde guztietan agertu den arren —13-15 urte bitarteko nesken taldean izan ezik—, dirudenez, era horretako kontsumo-motan nagusi dira —ikuspegi kualitatibotik— 16-20 urte bitartekoak, batez ere gizonak. Sektore gazteenak gero eta indar handiagoz ari dira sartzen antza kontsumo horretan, baina batez ere gazte helduen sektoreek egin zezaketena baino «naturaltasun» handiagoz.

Alkoholaren kasuan baino askoz ere gutxiago bada ere, gazteek helduen sektoreetan kanabisa kontsumitzen dela aipatzen dute. Itxuraz, helduen munduko kontsumo hori ez dute karga negatiboarekin ikusten, alderantziz, nolabaiteko kutsu terapeutiko edota osasungarriarekin agertzen da eta horrek positibo bilakatzen du bere kontsumoa.

— **Eta hori osasungarriagoa ala kaltegarriagoa iruditzen zaizue?**

— Osasungarriagoa.

— Porroak bakarrik bai.

— **Osasungarriagoa, zergatik?**

— Txarrak dira, baina tira...

— Oso, oso txarrak dira.

— Erlaxatzeko egiten dute.

— A bai!

— Neuronak kentzen dizkizu.

— **Zuentzat ez da txarra erlaxatzeko izatea.**

— Txarra da erretzea baina agian urtebeteen... *Nire osabak urtean bost aldiz egiten du, porroak erretzen ditu erlaxatzeko.* Agian loak hartu ezinik dabilenean edo gaez gaizki pasatzen duenean porro bat erretzen du.

(2. TB. Gizonak. 13-15 urte. Lekeitio. Maila ertaina.)

Adin-tarte heldueneren barnean kanabisaren «kontsumo helduaren» eredu hori agertu da. Kontsumo hori ez da sartzen gazteek kokatzen duten eremu ludikoan, aitzitik, bakarkako kontsumo gisa azaltzen da, barne-barneko eremuan egiten dena, eta helburutzat erlaxazioa bilatzea duena. Debekatutako kontsumo bat izatetik osasungarri denaren espazioan ageri da berriro ere.

Helduen kontsumo normalizatu eta «positibo bilakatutako» honen presentziak gazteenek kanabisaz duten irudian eragiteko ahalmen handia du. Toxiko honen kontsumoaren mugak ezartzen lagundu dezakeen eredu desberdin bat da: agian, alkoholaren kontsumoaren kasuan

gertatzen denaren antzera, «ez kontsumitzea» —*a priori* ezin hobea litzatekeena— gazteek aukeratzen dutena ez bada, gutxienez erreferentziazko kontsumo-eredua helduena izan dadila, hau da, noizbehinkako eta neurrizko kontsumoa.

Dena dela ezin dugu ahaztu, «lasaigarri» —eta beraz batzuentzat «osasungarri»— deitu daitekeen kanabisaren kontsumo-eredu baten osaeratik abiatuta, zailagoa dela gazteei droga honen kontsumoa saihesteko prebentzio-politikak transmititzea, arian-arian, gizartean legitimatuta dagoen kontsumo bat delako ideia hedatzen ari baita, alkoholarekin gertatu den bezala.

Ingurune horretan bitxia da egunero porroak erretzea bezalako praktikak edota haien kontsumoa egunerokotasunaren arloan —esate baterako eskolan bertan— sartzea, gazte askok nahitaez «mendekotasun» bat bezala ez hautematea; eta ondorioz, ohiko kontsumo horren arriskuak ere ez dira hautematen. Kanabisaren kontsumoa egunerokotasunaren arloan sartzeak, norbanakoaren osasunean zuzenean eragin ditzakeen kalteetan ez pentsatu arren, nerbio-sisteman duen eragin depresorearen ondorioz izan daitezkeen istripuetan pentsatzera eramaten du. Adibidez, porroak kontsumitzen dituztela aitortzen duten Arrasateko langile gazteek badakite arduragabekeria handia litzatekeela lanean porroak erretzea, eta ez bakarrik espediente bat ireki diezaieketelako edo kalera bota ditzaketelako, baita batez ere lan-istripu bat izan edo eragiteko aukera dagoelako ere.

Alkoholarekin gertatzen denaren antzera, kanabisaren kontsumoaren arriskuen pertzepzioa «gehiegierian» kokatzen da. «Noiz utzi ez jakiteak» eragiten du «burua» galtzea, «harrapatuta geratzea», hain zuzen, osasun/gaixotasunaren esparruari dagokionez sektore gazteek erakutsi dituzten kezkekin bat datorren autonomiaren eta nortasunaren galera. Zentzu horretan egokia litzateke kanabisaren kontsumoaren arriskuak neurritz kanpoko kontsumoak bakarrik dituela dioen ideia bertan behera uztea, eta kontsumo horren ondorio negatiboak haien esperientziarekin lotzea, hau da, autonomia galtzeko aukera —taldeetan agertzen den «harrapatuta» geratzeko aukera hori— beren kontsumo-ereduari lotzea.

### 1.2.3. Kokainaren kontsumoa

Gazteen ustez kokaina hartzen hastea ibilbide baten amaiera da, drogen kontsumoan egindako bide baten amaiera. Baina alkoholak edo kanabisak betetako eremutik oso urrun agertzen den amaiera bat da. Kanabisaren kontsumotik hurbil agertzen diren maila ertain/ertainbaxuetako gizonezko gazteen sektoreetan, kokainaren kontsumoa urrun azaltzen da. Itxuraz, emateko prest ez dauden urrats bat da, mendekotasuna sortzeko duen gaitasunaren beldur direlako eta, beraz, arriskuen beldur direlako.

Gazteek kokaina eta droga sintetikoak kanabisa edo alkohola bezalako beste toxiko batzuetatik bereizten den eremu batean kokatzen dituzte. Eremu horretan arriskuaren pertzepzioa handiagoa da, haien ustez «mendekotasuna» lehenago agertzen delako, hau da, kontaktu gutxiago behar dira kokainaren mende erortzeko; horrek gazteek normalean drogen kontsumoak kokatzen duten, eta «autokontrolaren» ideiak menderatzen duen dibertimenduzko kontsumoaren eredia hautsiko luke.

## 1.3. OSASUNARI ETA PRAKTIKA OSASUNGARRIEI BURUZKO IKUSMOLDEAK

Osasunari buruzko ikuskeretan generoa aldagai erabakigarriagoa da adina baino. Mutilek eta neskek sortutako diskurtsoek desberdintasunak nabarmen uzten badituzte ere, azpimarratu beharra dago bi nozio horien artean elkarguneak egoten hasi direla, batez ere sektore gazteenengan: izan ere, adin helduenetan gehiago nabarmentzen dira desberdintasunak.

Emakume gazteen osasunaren ikuskera «ondo sentitzearen» ideian oinarritzen edo gartzten da, alderdi fisikoak nahiz emozional eta psikologikoak kontuan hartuta. Osasunaren ikuskera integral eta orokor horretan garrantzi handia du norberarekiko harremanaren dimentsioak, baina baita besteekiko harremanarenak ere.

Gizonen artean, ordea, osasunaren nozioa «ondo egotearen» inguruan eratzen da, eta «ondo egote» horretan ongizate fisikoak garrantzi handiagoa du psikologikoak baino. Gizonezkoen diskurtsoan, besteekiko harremanen dimentsioa emakumeen artean baino gutxiago agertzen da. Gizonek duten osasunaren ikuskeran maila emozional-psikologikoak ez du bete-

tzen emakumeen diskurtsoan duen posizio nagusia; aitzitik, gizonak beren osasun-nozioa indarraren, ahalmen fisikoaren ideian oinarrituta eraten dute.

Testuinguru horretan, sektore gazteenak elkarrengandik hurbilago daude itxuraz. Izan ere, gizonetako gazteak osasunaz duten ikuskeran dimentsio emozionala eta afektiboa gehiago sartzen hasi dira, emakumeen diskurtsoan azaltzen den bezala, eta aldiz emakumeek emakume-sektore helduenek baino gehiago hartzen dute kontuan osasunaren dimentsio organikoena.

### 1.3.1. Emakumeek osasunari buruz duten ikusmoldea

Emakume gazteen artean osasuna «ondo sentitzea» delako ideia «emozioen/harremanen» arloaren eta «gorputzaren» arloaren arteko orekaren isla izango litzateke, baina maila emozional edo psikologikoari garrantzi handiagoa emanez. Ongizate animikoaren, «norbere buruarekin gustura egotearen», «besteekin gustura egotearen» (familia, lan-ingurunea, etab.) dimentsio hori nesken talde guztietan agertzen bada ere, adin-tarte helduenetan hartzen du zentzu orokorra eta integralagoa. «Gustura egote» horrek kanpokoaren exigentzien eta norberak kanpoko horri aurre egiteko duen moduaren arteko orekaren ideia adierazten du hain zuzen. Helduen adinetan kanpoko den horrek gero eta garrantzi handiagoa hartzen du arlo desberdinetan: lana, bikotea, familia, etab. eta horrek lortu nahi den orekara iristea gero eta gehiago eragozten du.

Subjektibotasunak emakumeen diskurtsoan garrantzi handiagoa hartzeak lotura zuzena du nesken taldeetan agertzen diren «somatizazioekin» eta egonezin psiko-patologikoekin: esate baterako, depresioarekin. Egoera horiek, aldiz, ez dira agertzen mutilen taldeetan, askoz ere hurbilago baitaude eta dena ematen baitute osasunaren ikuskera organiko-fisiko batetik; hau da, gaixotasun bat izatea-ez izatea da «osasuntsu» egotearekin zuzenean lotzen dena. Ildo horretan bertan egongo lirateke nesken talde askotan agertu diren elikadura-jokabidearen nahaste jakin batzuk (adibidez, «betekadaren sindromea»), egonezin emozionalaren sintoma.

Neska gazteek maila emozionalari ematen dioten garrantzia kontuan hartuta bakarrik uler daiteke gaixotasun mentalak (bereziki depresioak) haiengan sortzen duen kezka. Hain zuzen, eurengandik hurbil dagoen «gaixotasuneko» eremu batean kokatzen dituzte halakoak eta gaixotasun organiko-fisikoak, berriz, urruti kokatzeko joera dute. Arreta gorputzean jartzen dutenean, gazteek gaixotasuna gaztetasunaren eremu sinbolikotik kanpo kokatzen dute. Gorputz gaztea, gizon gazteen ikuskerarekin bat etorritik, berez da osasuntsua. Gaixotasuna muga gisa,

kronikoa den zerbaiten moduan, adin askoz ere helduagoei dagokie. Gaztetasuna funtsean, definizioz, bizitasuna da, osasun fisikoa.

Emakume gazteek osasunaz duten ikuskeran dimentsio emozionalari ematen dioten garrantzia eta funtzioa kontuan hartuta, ez da harrizkoa haiek suizidio-egoerak ulertzeko duten modua. Atentzioa ematen du suizidioaren aurrean gizonak eta emakumeek duten jarrera desberdina; izan ere, gizonak aukera hori «ahultasunaren» ideiatik ulertzen dute eta emakumeek, berriz, izugarritzko bakardade-egoeretan aukeratutako «irteeratzat» hartzen dute.

Jakina, emakumeen osasun-nozioan ageri den subjektibotasunaren garrantzi handiagoak gazteek beren buruei ematen dizkieten zainketak zehazten dituzte. Erlaxazioa, tentsioak kentzea bilatzea emakume gazte askok osasungarria denaren eremuan sartzen dituzten ekintza edo praktika askoren oinarria da; ariketa fisikoa «ongizatea» ekartzen duen eremu pertsonal gisa bizitzaren maila berean dago. «Ongizate psikologikoaren» nagusitasunaren ikuspegi horregatik, hain zuzen, emakume gazteek (gizonen diskurtsoan ere agertzen da, baina ez hain indartsu) «praktika osasungarri» gisa debekatuta dauden baina gogoaren ongizatea sustatzen duten zenbait kontsumo egiten dituzte. Kontsumo edo praktika puntual, neurritzko edo kontrolatu horiek gehiegikeriari edo mendekotasunari kontrajartzen zaizkie eta hartaz egiten den interpretazioa guztiz ona da.

### 1.3.2. Gizonak osasunari buruz duten ikusmoldea

Gizonen osasunari buruzko diskurtsoan «ondo egotearen» ideiak dimentsio fisikora igortzen du. Osasuna indar gisa, bizitasun, erresistentzia, etab. gisa hautematen da eta, horren ondorioz, gaixotasuna (osasunaren antitesizat hartuta) muga bezala interpretatzen dute.

Emakumeen kasuan, ekar dezakeen ongizate animikoa kontuan hartuta, agindua haustea osasungarri bezala bizi eta hauteman badaiteke ere, gizonen diskurtsoan, «aztura txarrak», alegia sozialki osasungarritzat hartzen ez direnak izatea osasuntsu egotearen pertzepzioarekin batera daiteke, mugaren bizipenik ez baitago. Organikoa denaren nagusitasunetik, gizonen osasun-nozioa «medikalizatuagoa» agertzen da, hau da, proba medikoak norbanakoaren «osasunaren» azken balorazio gisa duen «objektibotasunak» indar handia du. Baliteke muga fisikorik ez izatearen bizipen pertsonala gorputzaren «barneko» proba medikoen emaitzekin bat ez etortzea, proba horiek nabarmen utz baititzakete arauak haustea, erretzea edo edatea bezala osasungarriak ez diren azturak jarraitzeak, gorputzean eragin ditzaketen ondorioak. Ikuspegi

horren arabera —diagnosi medikoaren objektibotasunaren alde subjektibotasuna minimizatzen duen ikuspegiaren arabera—, proba medikoa da «osasuna» benetan baloratzen duena, hau da, norbait osasuntsu dagoen ala ez adierazten duena.

Gizon gazteen diskurtsoan, nagusiki adierazten duten osasun-ikuskeran, gorputzaren eta adimenaren arteko bereizketa handiagoa islatzen da, alegia bi maila horien arteko erlazio txikiagoa. Gorputzaren eta adimenaren arteko bereizketa horrek organismoaren ikuskera mekanizistagoa islatzen du, hau da, gorputza makina bat bezala. Ikuspegi horretatik eta osasuna indar gisa, mugarik ezaren moduan hartuta, interpretatzen dugu gizon gazteei beldur gehien ematen diena muga fisikoa dela, baliaezintasuna beldur horren ondorioz agertzen delarik. Muga fisiko horrek lortu berria duten familia-etxearekiko askatasun-eremua deuseztatuko luke.

Euskadiko gizonezko gazteen artean osasunaren ikuskera hori nagusi bada ere, badirudi gero eta gehiago direla —sektore gazteenak eta maila ertain eta ertain-altuetakoak— osasunaren dimentsio edo bizipen subjektibo bat barneratzen ari direnak. Hau da, emakumeen osasun-ozio «ondo sentitzea» erantsi diote beren ikuskerari eta, beraz, ikuskera horretan sartu dute «ongizate psikologikoaren» ideia, eta ideia hori erlaxazioa eta deskonexioa bilatzen dituzten zainketen praktikan islatzen da.

### 1.3.3. Nork bere burua zaintzea gazteen artean

Gizon eta emakume gazteek beren buruak zaintzen dituztenean motibazio estetikoak eta osasungarri denaren agindutik hurbilago dauden motibazioak agertzen dira, baina egia esan, bi dimentsio horiek ez dira bereizita eta bakoitza bere aldetik garatzen, aitzitik, elkar gurutzatzeko joera dute. Erlazio hori elikaduraren eta ariketa fisikoaren edo kirolaren arloetan agertzen da bereziki, hain zuzen ere, gazteen kolektiboek beren burua zaintzeko praktiken artean nagusi direnak eta praktika osasungarrien artean nagusi direnak.

Gizonen kasuan, kirola egiteari eta elikadura zaintzeari lotuta dauden zainketak gizonen artean erreferentzia den gorputz kementsua, indartsua lortzera edo ahal bezainbeste garatzera zuzenduta daude neurri handi batean. Gizonezkoen gorputzaren irudi edo ikuskera nagusi hori, dirudenez, lehiakortasunaren ideian oinarrituta dago, edo bestela beste gizonezkoei aurka egitearen ideian oinarrituta. Indar fisikoa (batez ere gizarte-sektore ertain/ertain-baxuetan) gizar-tean onartua izateko modu bezala agertzen da.

Bestalde, emakumeek —motibazio estetikoago batetik— beren burua zaintzeko elikaduraren eta ariketa fisikoaren arloetan egin dezaketenarekin emakume gazteen artean erreferentziazkoa den gorputz-eredura hurbiltzea lortu nahi dute: alegia «gorputz argalera» hurbiltzea, baina bitxia bada ere, osatutako neska-talde bakoitzean parte-hartzaileraren batek «loditu nahia» adierazi du eta, horrekin batera, gehiegizko argaltasunaren estetikarekiko gaitzespena eta emakume gazteen osasunean duen eragin ona adierazi dute. Zentzu horretan badirudi Euskadiko neska eta mutil gazteen artean dagoen edertasun-kanonak erreferentziazat gorputz argala badu ere, ez dela gehiegizkoa, aitzitik, gorputz orekatua dela.

Bai gizonetzkoek bai eta emakumeek ere gaitzetsi egiten dute gorputz «lodia». Gazteen artean «gehiegizko pisua» saihesteko motibazioa batez ere estetikoa da, osasun-arrazoien araberakoa baino gehiago. Kolektibo gazteonek, une horretan bizi duten garapen pertsonaleko prozesuan erakusten duten segurtasun-falta dela-eta, besteen iritziari eta besteen begiradari begira daude, eta beste edozein gazte-kolektibok baino gehiago saihesten dute «gehiegizko pisua», horrek beren ingurunean seinalatuta egotea dakarrelako; izan ere, kolektiboan nagusi den jarrera nabarmena ez izatea da, burlen edo erasoen xede izatea saihesteko. Emakumeek beren burua zaintzeko egiten dituzten zainketa batzuetan motibazio estetikoak indar handiagoa izateak erraztu egiten du «besteen» iritzia emakumeen diskurtsoan gehiago agertzea gizonetzkoen diskurtsoan baino eta, gainera, modu desberdinean agertzen dira: emakumeen kasuan «liluratzeko» aukeran oinarrituta eta gizonetzkoen kasuan «lehian ibiltzeko» aukeran oinarrituta.

Emakume gazteen kasuan, dimentsio estetikoa kontuan hartuta, gainera, arroparekiko eta kosmetiko bidezko zainketarekiko kezka agertzen da. Bi horiek ez dira gizonetzkoen diskurtsoan agertzen; izan ere, zainketen eta higiene pertsonalaren arloaren artean egiten duten lotura eskasagoa edo oinarritzkoagoa da. Emakume-taldeetan, osasunaz duten ikuskera integralarekin eta dimentsio psikologikoari ematen dioten garrantziarekin argi eta garbi bat etorritz, indar dezenterekin agertzen dira «erlaxatzeko» zainketak, masajeen bitartez, talasoterapiako saioen bitartez, bakarka paseatuz edo zaletasunen bat garatuz.

### 1.3.4. Elikadura zaintzea

Elikadura zainketa gisa talde guztietan agertu da eta leku garrantzitsu bat du praktika osasungarrien eremuan. Gorago adierazi dugunez, zaintzeko modu horretan batera existitzen dira agindu osasungarriak eta agindu estetikoak, eta baita inola ere gutxietsi ezin den janariari

lotutako gozamenaren dimentsioa ere. Elikadurari loturiko zainketaz haratago, gizonezkoen eta emakumezkoen taldeek janariarekiko erakusten duten harremana oso desberdina da. Mutilen taldeetan jatea gozameneko testuinguru batean agertzen da, egoera gozagarri baten testuinguruan, badirudi gurasoek esan behar dietela «aski da!!»; baina nesken taldeetan —eta bereziki 13-15 urte bitarteko nerabeen taldeetan—, zenbait produktu jan nahi ezaren aurrean, janaria batzuetan gurasoekiko gatazkako edo tentsioko testuinguru batean agertzen da.

Ez da kasualitatea emakumez osatutako talde guztietan, elikadura-nahastetzat (anorexia edo bulimia) hartu ezin diren arren, janariarekiko harremanean egonezina islatzen duten hainbat egoera agertzea: antsia, depresioa, etab. Emakumeen taldeetan behin eta berriz agertu da janaria modu inpulsiboan eta kontrolik gabe irenstea («betekadaren sindromea»), depresio-egoerei edo depresio aurreko egoerei edota antsia eta estreseko egoerei lotuta.

«Aztura osasungarri» buruz hitz egitean, gazteen diskurtsoak berehala erakusten du elikadura zaintzea praktika osasungarri nagusia dela —kirola egitea edo ariketa fisikoa egitearekin batera—. Gazteen iritziz «elikadura egoki bat» «denetik jatearen» ideian, dieta orekatsua egitearen ideian laburbilduko litzateke. Gazteen diskurtsoan elikadura egokia familiaren etxeetan egiten dutenarekin bat dator, alegia «amak prestatutako janariarekin», janari lasterraren edo aurretik prestatutako janariaren aldean (etxetik joaten direnen sektoreetan agertzen direnak). Dieta egokia, antza, gero eta gehiago lotzen da elikagaien jatorria kontrolatzeko aukerarekin. Gazteen diskurtsoetan ideia hori agertzen da familiak berak landatutako produktuen kontsumoa berreskuratzeaz duten iritzi onari eta elikagaien manipulazio edota artifizialtasunarekiko mesfidantzari lotuta. Jaten dugunaren kontrola galdu izana minbizia bezalako gaixotasunen eragin gero eta handiagoarekin erlazionatzen dute eta, beraz, ingurumen-faktoreek norbanakoaren jarduteko edo esku hartzeko eremua gainditzen duten gaixotasunen agerpenean duten eragina adierazten dute. Horren ondorioz, prebentzioaren ideia bera erlatibizatzen dute, eta horrek eragin kaltegarria du osasuna zaintzeko orduan.

«Etxea» elikadurari dagozkion aztura osasungarrien eremu gisa identifikatzean, «kanpoko» araua hausteko eremu bezala agertzen da. Eta hori ez litzateke azaldu behar zapore desberdinekiko gustuaren eta antzekoen ikuspegitik, aitzitik, araua hausteak gazteenak hasten ari diren autonomia-prozesuan duen funtzioa ere kontuan hartu beharko litzateke.

Etxean, jakina, gazteek elikadura zaintzeko ardura amaren eskuetan uzten dute; gazteen elikadura-azturak familia-eremuko azturek zehazten dituzte zuzenean. Beraz, familia-etxetik alde egitea aztura osasungarriak nolabait ez zaintzeari lotuta agertzen da, baina pixkanaka be-

rreskuratu egiten dira aztura osasungarri horiek. Gizarte-sektore ertain-altuetako familia-tes-tuinguruak dira, antza, elikadura-aztura egokiak jarraitzeko arau gehiago eta ardura handiagoa erakusten dutenak, eta zorrotzagoak dira agindua betetzeari dagokionez, batez ere industria-gozogintzaren, aurrez prestatutako janarien, freskagarrien, gozokien eta abarren kontsumoa debekatu edo murrizteko orduan. Bestalde, gizarte-sektore ertain eta ertain-baxuak ez dira ageri horren debekatzailerik.

Gazteek esandakoa kontuan hartuta, badirudi Euskadiko etxeetan orokorrean elikadura zaintzeko ardura handia dela, eta fruta eta barazkien aniztasuna eta kontsumoa ondo finkatutako eta hedatutako bi ideia direla —inkestek erakusten dutenaren arabera, euskal gizarteak dieta dibertsifikatu bat egiten du—. Euskadiko gazteek duten elikadura osasuntsuaren eraikuntzan eta pertzepzioan lehenago egin ahal izan ditugun ikerketekin alderatuta, elementu «berri» bat ageri da: frutaren kontsumoak duen nagusitasuna. Itxura denez, erakundeek fruten eta barazkien kontsumoa sustatzeko egin berri dituzten kanpainen eragina izan dute, eta Euskadiko etxeetan lehenik ere nahiko barneratuta zegoen aztura bat areagotu dute.

Gazteen diskurtsoan, eta bereziki emakumeen diskurtsoan, murrizketaren ideiatik hurbilago dagoela eta osasunaz duten ikuskera integral-erlazionala kontuan hartuta, araua haustea «osasungarri» denaren eremutik hurbil agertzen da, gozatzea ongizate-iturria delako.

### 1.3.5. Ariketa fisikoa egitea

Jada adierazi dugunez, kirola edo ariketa fisikoa egitea —elikadurarekin batera— zainketa osasungarrien oinarrian agertzen da, baina halakoak praktikatzeko ez da berdin agertzen sektore guztietan eta generoari dagokionez, hain zuzen, desberdintasun handiak daude. *Gazteen argazkiak* 8<sup>2</sup> azterlanetik hartutako datuen arabera, gazteen %64k kirolen bat egiten du; gizonen artean %74k egiten du eta, aldiz, emakumeen %52k.

Generoaren araberako desberdintasuna nabarmen geratzen da, praktika horren mailaz edo egindako kirol-motaz gain, azterketa honetarako are interesgarriagoa den beste zerbaite-

---

<sup>2</sup> GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA. *Gazteen argazkiak*, 8. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea = Gobierno Vasco, Gabinete de Prospección Sociológica, 2005.

tan ere: gazteek kirola edo ariketa egiteko dituzten motibazioetan. Izan ere, jada aipatutako *Gazteen argazkiak 8* azterlanean ere islatuta zeuden motibazio horiek.

Gizon eta emakume gazteen taldeetan gertatutakoa kontuan hartuta, modu oso laburrean esan dezakegu kirola edo ariketa fisikoa egiteko hiru motibazio-eremu daudela, edo nahiago bada, kirola egiteak gazteei egiten dien ekarpenaren pertzepzioan eta bizipenean.

—Irudi-mailan: kirola egiten hastea, motibazio «estetiko» batengatik, alegia «irudia zaintzeko».

—Gizarte-mailan: kirola egitea lagunekin elkartu eta dibertitzeko.

—Emozio-mailan: ariketa fisikoa norbera erlaxatzeko, gozamen pertsonalerako eremu gisa.

Kirol-praktikaren hiru dimentsio horiek elkarrekin gurutzatzen dira, baina indar desberdina dute sektore bakoitzean eta, jada aipatu dugunez, desberdintasun horretan garrantzi handia du generoaren aldagaiak.

Gizonen kasuan kirola egitea gizarte-mailarekin erlazionatzen da batez ere. Gizonezko gazteentzat kirola egiteak, neurri handi batean, lagunekin elkartzea esan nahi du. Gizonezkoen artean gertatzen ez den bezala, emakumeen artean kirola edo ariketa fisikoa bakarrik egiteko joera dago, eta gehienetan dimentsio soziala baztertuta geratzen da. Ildo beretik, gizonezko gazteek gehiago hitz egiten dute kirola modu formalago batean edo taldeetan antolatuta egiteaz. Neskek, ordea, ariketa fisikoa egiteaz hitz egiten dutenean, ez dute «kirolaz» hitz egiten, ariketa informalago batez baizik. Horri esker, emakume gazteen zenbait sektore garrantzitsuk, batez ere adin ertain eta helduetako taldeetan, hainbat ariketa fisiko sartzen dituzte beren egunerokotasunean, esate baterako: joan-etorriak oinez, bizikletaz, etab. egitea, praktika osasungarri gisa. Baliteke jarduera fisiko horiek kirol bezala ez bizitzea, ezta kiroltzat hartzea ere —eta horrek bere isla izan dezake mintzagai kirola egitea duten inkestetan—, baina toki nagusi bat betetzen dute gazteek beren buruari ematen dizkieten zainketen aukeraren barnean.

Kirola bakarrik egitearen testuinguru horretan, emakume askok ariketa egitea osasungarria denaren arloan sartzen dute, baina ez gorputza zaintzea den aldetik edo forma fisikoaren aldetik, baizik eta batez ere «ondo sentiarazten» dielako; hau da, maila fisikoan baino gehiago

psikologikoan eragiten du, eta horrek osasuntsu denaren eremuan sartuko luke. Ikuskera horretan, ariketa egitea ez da agertzen behar bat bezala bakarrik, nork beretzat bilatutako une baten moduan baizik, denbora eta eremu intimoak dira, pertsonalak.

Ariketa egiteko behar hori emakumeek itxuraz ariketa fisikoa egiteari dagokionez hautesmaten eta bizitzen duten «derrigorrezkotasunaren» aurkakoa da guztiz, kirola edo ariketa egitea irudiaren eremuan modu murriztailean sartzenean.

Adin-tarte gazteenetan, bai emakumeen bai eta gizonezkoen kasuan ere, garatzen ari den ikuskera bat agertzen da kirolari dagokionez, alegia kirola praktika osasungarri integral gisa. Badirudi gazteen belaunaldi horretan gaur egun kirola ulertzeko dagoen modua baino bi-ziagoa den zerbait bazala eratzen edota irakasten ari dela beste ikuspegi batetik, kirola «jardue- ra fisikotzat» hartzea gainditzen duena, kirola egitea eremu pertsonal batera eramaten duena, praktika hori erlaxazio-bide, «argitzeko» bide bilakatzen duena; egunerokoa denarekiko «desko- nexio osasuntsu» bihurtzen dela esan daiteke. Ikuskera orokor horrek mutilen artean ohikoagoa eta tradizionalagoa den kirol-praktikaren dimentsio soziala jasotzen du, hau da, kirola lagune- kin elkartzeko modu gisa, baina gainera, ikuspegi berriago batetik, kirola norberaren erlaxazio- rako eremutzat hartzen duen ikuskera horretatik ere hurbil dago.

### 1.3.6. Bide segurtasuna


Jakina denez, trafiko-istripuak gazteen osasun-arazo nagusietako bat dira, bai estatuan bai eta Euskadin ere; izan ere, lehen heriotza-kausa dira kolektibo horretan eta, beraz, gazteen osasunari buruzko edozein planteamenduren ardatz bilakatzen da arazo hori.

Gazteen kolektiboan izaten diren istripuen larritasunaren eta istripu ugarien testuinguru horretan, egia esan, azken bost urteetan Euskadin nabarmen behera egin du 14-24 urte bitarte- ko gidari gazteak nahasita dauden istripuen ehunekoak (1. grafikoa).

Beharakada horrek baikor samarrak izateko aukera ematen digu eta gai horren inguruan gazteen kontzientziarioa gero eta handiagoa dela pentsarazten digu, edota denbora honetan burutu diren ekintzak beren emaitzak jasotzen ari direla. Taldeetan gai honen inguruan era- tutako diskurtsoak, gazteen aldetik alkoholaren eraginpean gidatzearen arriskuei buruzko kon- zientziario —eta barneratze— garrantzitsu bat adierazten duela egia bada ere, egia da baita

**1. grafikoa**

14 ETA 24 URTE BITARTEKO GIDARIAK NAHASITA DITUZTEN ISTRIPUAK (%)  
(2001-2005)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila. *Trafiko istripuen urtekari estatistikoak (2001-2005)*.

zigorraren aukerak (isuna, puntuak kentzea, etab.) eragiten jarraitzen duela eta gidatze arriskuak izateko motibazioa kentzeko oraindik ere beharrezkoa dela. Kontzientziazioaren eta zigorpresioaren konbinazioak beharrezkoa izaten jarraitzen du antza. Ildo horretan, azpimarratzekoa da gazteen artean itxuraz eragin handia duen Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak abiarazitako estrategia, hau da, alkoholemia-kontrol selektiboak jartzea. Parranda-zonetan kontrol selektiboak egoteak, kontrola jarrita egongo delako segurtasunak, «halabeharraren» eremua murriztu egiten du eta hori oso garrantzitsua da gazteen artean, «nork bere burua kontrolatzera» behartzen duen edo presio egiten dion neurrian. Kontrol bat topatuko dutela ziur egotean, gazteek nahiago dute neurri handiago batean alkoholik ez edatea kontrol bat egotea aukera bat besterik ez balitz baino.

Taldeek ez dute erakusten, ezta gutxiagorik ere, jokabide arriskutsuak errotik guztiz kendu direneko egoera bat, esate baterako, alkohola irentsi ondoren gidatzea edo abiadura azkarrean gidatzea. Taldeetan agertzen dena da jokabide horien beherakadarako joera argia.

Taldeetan abiadura azkarrean eta modu arriskutsuan gidatzea edo alkoholaren eraginpean gidatzea gero eta gehiago agertzen dira gazteek beraiek kritikatzeko eta gaitzesten duten jokabide gisa; «arduragabetasuna» eta «axolagabetasuna» erakusten dute eta hori faktore garrantzitsu bat da, gazteek talde hurbilenaren kritika edo gaitzespena kontuan hartzen dutelako. Gaitzespen sozialeko eta norberak arriskuak barneratzeko testuinguru horretan, gazteek gero eta gehiago garatzen dituzte eremu arrikutsu horretatik urruntzen dituzten estrategiak: garraio publikoa erabiltzea, alkoholaren kontsumoa gutxitzea, etxera itzuli aurretik atseden hartzea, etab.

Agindua eta edanda gidatzearen arriskuak gehiago barneratuta eta onartuta, gazteak «arriskuen prebentziorako agente» bihurtzeko gai dira —gero eta gehiago— lagunei alkoholaren eraginpean ez gidatzeko konbentzitzen edo ideia hori burutik kentzen dietenean. Testuinguru horretan lagunaren jarrerari eta erantzukizunari buruzko hausnarketa interesgarri bat sortzen da. Egoera horietan erantzukizunaren ideiaz baliatu behar dute, ez norberarenganako bakarrik, baita lagunenganako edota errepidean topa ditzaketen «beste» ezezagunenganako ere. «Beste» horren presentziak badirudi nolabaiteko indarra duela alkohola edan ondoren gidatzea burutik kentzeko edota geldiarazteko. Taldeek ziur aski gazte askok parranda-gau baten ondoren etxera itzuli nahi dutenean erabaki behar duten eguneroko dilema erakusten dute: «Zer egin behar da gidaria gidatzeko baldintzarik onenetan ez badago?, autoa ez hartzeko konbentzitzen saiatu?, berarekin ez itzultzea erabaki?, edo arriskatu eta itzuli?». Galdera horien erantzunek erantzukidetasunaren ideiarekin jotzen dute. Segurtasuna ez dago kio gidariari bakarrik, baita lagunei ere. Hori faktore garrantzitsu bat da, 24 urtetik beherako gidariak izaten dituzten istripuetan ibilgailuetako okupazioa batez besteko osoa baino handiagoa izaten dela kontuan hartuta, horrek hain zuzen handitu egiten baitu izan daitezkeen biktimen kopurua.

### 1.3.7. Harreman afektibo-sexualak

Taldeek elementu nagusi bat adierazten dute gaur egun gazteen artean harreman afektibo-sexualak nola garatzen diren ulertzeko: hau da, gazteek «egonkortasunaren» ideiaz duten iritzi eta bizipen berria, funtsezko elementua baita gazteen artean aurkitzen diren sexu-praktika arriskutsuak aztertzeko orduan. Izan ere, «egonkortasunaren» ideia hutsal hori da gaur egun afektibitatearen eta sexuaren hezkuntzan eta sustapenean lan egiten duten profesionalak gehien kezkatzen dituen alderdietako bat, neurri profilaktikoak hartzeari dagokionez gazteen ja-

rreran eta portaeran duen eraginarengatik. «Egonkortasunaren» noziotik ia berehala sortzen da konfiantzaren ideia, eta horrek bestearekiko harremanaren eremua zehazten du, baina batez ere harreman horretan dagoen «arriskuen» pertzepzioa zehazten du; eta horrek prebentzio-baliabideak erabili (edo uzteko) orduan funtsezkoak diren erabakiak hartzera eraman dezake.

Denborari dagokion egonkortasun hori gero benetan ez da horrenbestekoa eta harremana «hautsi» ondoren, jarraian beste harreman bat hasten da eta hau ere «egonkorra» balitz bezala bizi hasten da berehala. Bizipen horri «monogamia seriatu» deitzen hasi zaio, eta gazteen arteko harreman-eredu berri bat da. Harreman-eredu horrek, «gaizki ulertutako» egonkortasun batean eta «bestearekiko» konfiantzan oinarrituta, preserbatiboaren erabileran lasaikerian erortzea errazten edo sustatzen du, GIB kutsatzeko arriskua, sexu-transmisioko beste gaixotasun batzuk kutsatzekoa edo desiratu gabeko haurdunaldien arriskua areagotuz. Testuinguru horretan, datozen urteetarako hipotesiak dira gazteen sektoreen artean sexu-transmisioko gaixotasunen gorakada bat izatea, HIESa barne, bai eta haurdunaldien kopuruan eta norik bere borondatez etendako haurdunaldien kopuruan ere.

Gazteek beren diskurtso zentzuzkoenean erabateko erresistentzia eta gaitzespena adierazten dute babesik gabeko sexu-harremanak izateari dagokionez. Sexu-harreman arriskutsuak izatea, preserbatiborik erabili gabe, arduragabetasun izugarritzat hartzen dute gazteek, «axolagabetasun» handia dela uste dute, haurdunaldien arriskua izateaz gain sexu-transmisioko gaixotasunak kutsatzeko arriskua ere badagoelako. Hau da, gizarte-mailan gazteen artean preserbatiborik erabili gabe sexu-harremanak izatea jokabide «gaitzetsia» edo «kritikatua» da. Preserbatiboak erabiltzea (eta eskuratzea) guztiz normalizatuta dagoenez, ez dago arrazoirik, zentzuzkorik behintzat, halakorik ez erabiltzeko. Testuinguru horretan, gazteen diskurtsoetan ez da agertzen preserbatiborik gabeko sexu-harremanak izateko «aldarrikapen» espliziturik. Zentzu horretan arrisku handiena duten sektoreak agian 16-18 urte bitarteko gizonezkoak izango lirarteke, sexu-harremanak izaten hasteko desioak itxuraz «denak balio du» irrazional batetara eramaten dituelako, *a priori* arrisku berezia duen edo sexu-harreman arriskutsuak izateko aukera gehiago duen kolektibo bihurtuz.

Maila arrazionalenean preserbatiboaren erabilera zalantzan jartzen ez bada ere, badirudi errealitatean ez duela beti arrazionaltasunak agintzen. Gazteek sexu-praktika arriskutsuen subjektu direla aitortzen dute, «salbuespenaren» alorrean sartzen badute ere. Izan ere, taldeetan esandakoaren edo sortutako diskurtsoan adierazten denaren arabera, albuespen hori «salbuespen ugari» dira berez, eta «beroaldiari» eta alkoholaren kontsumo arriskutsuari lotuta agertzen dira.

Preserbatiboa erabiltzeko ala ez erabiltzeko orduan «egonkortasunaren» eta konfiantzaren nozio hutsalean oinarritutako harremanek izan dezaketen eraginaz gain, ezin dugu ahaztu praktika arriskutsuei dagokienez koitoaren ondorengo pilula izateak edota abortatzeko aukerak berak ere gazteen portaeran eta jarreran izan dezaketen eragina.

Taldeetan, koitoaren ondorengo pilula preserbatiborik gabeko sexu-harreman oso bat izan denerako «aliatu ezin hobea» bezala agertzen da, eta gainera segurtasun-elementu bat da neurriak hartu arren istripuren bat izaten denerako. 16 urtetik gorako nesken talde guztietan parte-hartzaileetako batzuek koitoaren ondorengo pilula erabili beharra izan zuten noizbait. «Hurrengo eguneko» pilula izateak eta eskuratu ahal izateak minimizatu edo erlatibizatu egiten du haurdun geratzeko arriskua. Haurdunaldi-arriskua txikitze horrek, alderantziz, sexu-transmisioko gaixotasunak kutsatzeko arrisku handiagoa izatea ekar dezake, haurdun geratzeko arriskutik babestuta egotean —Euskadiko gazteen sektore handi batzuentzat kezka nagusia izaten jarraitzen baitu sexu-harremanak izateko orduan—, preserbatiboaren erabilera «lasaikerian» eror daitekeelako eta, are gehiago, gazteak «monogamia seriatuaren» eremuan gero eta gehiago dituzten egonkortasunaren eta konfiantzaren ikuskeran eta bizipenean oinarrituta.

Pilula eskuratu ahal izateak eta kezka sortzen duen haurdunaldi baten arriskuak sortzen duen larritasuna amaitzea itxuraz horren «erraza» izateak preserbatiboa erabiltzeko orduan disuasio-eragina duela dirudi —gazte-sektore batzuegan—, hurrengo eguneko pilula haurdun ez geratzeko «segurtasun-elementu» baten moduan hautematen dutelako. Larrialdietarako metodo bat izatetik antisorgailu normal izatera pasa daiteke emakume gazte batzuentzat eta horrek arrisku larrian jar dezake beren osasuna. Nesken taldeetan, eta adinean gora egin ahal are gehiago, koitoaren ondorengo pilula hartzearen egokitasunari buruzko nolabaiteko zalantza agertzen da. Pilula hori hartzearen egokitasuna edo, zehatzago esateko, prebentzioa ez da zalantzan jartzen arrazoi moral batengatik —izan ere, gazteen diskurtsoan ez dago halakorik—, emakumearen osasunean izan dezakeen eragina zalantzan jartzen dutelako baizik. Gazte gehienek uste dute koitoaren ondorengo pilula hartzea saihestu egin behar dela, eta batez ere behin eta berriz hartzea, emakumearen osasunean izan ditzakeen eraginengatik (nahasketa hormonal, antzutasuna, etab.).

Koitoaren ondorengo pilulari dagokionez ez da kritika edo kexarik agertu hura eskuratzeko zailtasunak direla-eta. Landa-lana garatu den hiru lurraldeetan eta herrietan gazteek ez dute adierazi arazorik izan dutenik edo osasun-profesionalek dagokion errezeta egitea ukatu dietenik. Oro har, talde eta esparru guztietan pilula eskuratzea erraz samarra dela agertu da.

Gazteek zeharkako esperientzien bitartez jakin dute estatuko beste hiri batzuetan, esate baterako Iruñean, edo esperientzia zuzenen bitartez ezagututako Europako beste herrialde batzuetan oztopoak daudela, eta horiei kontrajartzen diete erraztasun hori, eragozpenik ez izate hori. Koitoaren ondorengo pilulari loturik agertzen den arazo nagusia ordutegi deseroso eta desegokiak dira, asteburuetan edo jaiegunetan zentroak irekitzeko-ixteko ordutegiak, etab., horiek baitira gazteek gehienbat sexu-harremanak izaten dituzten egunak eta, beraz, orduan sortzen baita koitoaren ondorengo pilula hartzeko beharra.

Koitoaren ondorengo pilula baino gutxiago agertzen bada ere, abortatzeko aukera ere azaltzen da gazteen diskurtsoan, babesik gabeko sexu-harremanak izaten dituztenerako «segurtasun-elementu» gisa. Abortua koitoaren ondorengo pilula ematea baino praktika askoz ere urrunagoa izan arren, gazteen diskurtsoan modu «normalizatuan» agertzen da, hau da, egoera larrietan azken alternatiba gisa erabil dezaketen «baliabide» moduan ikusten dute. Erabilerraztasuna eta bestelako zalantzarik ez dagoela kontuan hartuta, badirudi gazte-sektore batzuentzat (maila ertainetako gizonezkoak) abortua diru-eremu huts batean sartu dela, alternatiba hori erabili ahal izatea dirua izatearen edo ez izatearen arabera den neurrian, abortatzeak emakume gazteen osasunean eragin ditzakeen ondorioei buruzko hausnarketarik ia egin gabe. Neskek eurek haurdunaldia eta abortatzeko aukera ikusteko duten modua ere oso desberdina da. Abortua azken baliabidea da, eta kasuren batean abortuari buruzko nolabaiteko hausnarketa pizten bada ere, ez dirudi «oztopo moralik» dagoenik, beharra izanez gero neskek abortua beren iritziz erabilerraza den aukera gisa planteatu dezaten. Emakume gazteek abortatzeko aukerari dagokionez kontuan hartzen dituzte beren osasunean eragin ditzakeen ondorioak; maila fisiko-organikoan baino gehiago, maila afektiboan, psikologikoan.

#### 1.4. GAXOTASUN KEZKAGARRIENAK

Emakume nahiz gizon gazteen artean oso hedatuta dago gorputz gaztea gaixotasunik gabeko gorputz gisa, eta, beraz, gorputz osasuntsu gisa, ikusteko joera. Ikuspegi horretatik, badirudi beren «gaztetasunak» «zauritu ezin» bilakatzen dituela, gaixotasun larririk gabeko eremu batean kokatzen dituela; gazteen eremutik hurbil gehienez ere ondoez fisiko iragankorrak kokatzen dituzte, gaixotasunarekin erlazionatzen duten eta adin-tarte zaharragoetan kokatzen duten ondoez kroniko eta mugatzailetik urrun.

Horrela, gazteek beren osasunaren inguruan dituzten kezkez edo kezkatzen dituzten gaixotasunez hitz egitean, bereizi egin beharko lirateke beren egoeratik hurbilago sentitzen dituzten gaixotasunak eta beste gaixotasun batzuekiko sentitzen duten kezka, hurbil hautematen dituzten ala ez kontuan hartu gabe.

Testuinguru horretan, gazteak —gazte diren aldetik— mugaketa edota mendekotasunezko egoeren aurrean ahul sentitzen dira. Hau da, lortu dituzten autonomia- eta independentzia-esparruak galtzeko beldur dira. Mugaketa-egoerei edo autonomia galtzeari dieten beldurak forma desberdina du gizonezkoen eta emakumeen diskurtsoetan; izan ere, bat etortzen dira argi eta garbi kolektibo bakoitzean nagusi diren osasun-ikuskerekin.

Gizonezkoek muga fisikoari diote beldur. Trafiko-istripu bat izateko aukerak ahul sentiarazten ditu. Baliaezintasunaren ideia, gorputz-adar bat galtzeko aukera «heriotza baino okerragoa» dela agertzen da mutilen diskurtsoan. Gizonezkoen diskurtsoan nagusi den osasunaren ikuskera organikoak istripu fisikoa haien kezken ardatzean kokatzen du, «maila mentaleko» istripu baten aukera, ordea, aldendu eta urrundu egiten du. Aldentze horrek —edo ukatzeaz ere hitz egin daiteke— zaildu egiten du mutilek drogen kontsumoak neuronetan eragindako kaltea gehiago barneratzea. Neuronetan eragindako kalte hori drogen neurritz kanpoko kontsumoari lotzen zaion bitartean, kontsumo ludikoa eta, jakina, noizbehinkako kontsumoa edo «dastatze hutsa» arriskurik gabeko eremu batean agertzen dira. Bestalde, emakumeek mugari dioten beldurra ez dute maila fisikora zuzentzen, mentalera baizik. Emakumeek ez diote beldurrik eta ez dira ahul sentitzen «gaixotasun mentalaren» aurrean, modu orokor eta zehaztugabea; aitzitik, mugari dioten beldurra—neurri handi batean ekimen-galera bezala, «zabartzea» bezala ulertuta—, depresioan ardaztuko litzateke. Depresio-egoera hori gazteen eremuan sartutako ondoez bezala, edo kasu batzuetan jasatera iritsi diren ondoez bezala hautematen dute.

Emakume nahiz gizon gazteak horren interpelatuta edo ahul sentitzen ez diren maila orokorrago batean, bi gaixotasun aipatzen dira bereziki: minbizia eta HIESa. Gazteek gaixotasun horietara gerturatzean, neurri handi batean, norbanakoak bere gaixotasunean duen «erantzukizunaren» inguruan artikulatuko da haien pertzepzioa, eta horrek lotura garbia du prebentzioari ematen zaion garrantziarekin. Ikuspegi horretatik, gaixotasun bati zein besteari esleitutako lekua oso desberdina da, halakoa baita kasu bakoitzean irudikatzen duten subjektuaren beraren esku hartzeko aukera ere.

Gazteen diskurtsoan, minbizia «halabeharrekoa» da guztiz, norbanakoaren esku hartzeko eremua gainditzen duten faktoreei erantzuten die: ingurumena, karga genetikoa,

etab. Eta norbanakoa subjektu pasibo bilakatzen dute, jarduteko gaitasunik gabe eta, beraz, prebentziorako eremurik gabe. Minbizia saihesteko aukera biriketako minbiziaren kasuan bakarrik agertzen da, eta gainera modu erlatiboan, ez erretzea ere ez baita halakorik ez jasateko nahikoa berme. Minbizia prozesu «gorabeheratsu» gisa, esku hartzeko eremurik gabetzat hartzean, erlatibizatu egiten dira «praktika osasungarriak». Adibidez, jarrera horren arabera, zein zentzu du elikadura zaintzeak, elikagaien ekoizpenak dituen prozesuei buruzko kontrolik ez badago? Bestalde, bizitzen ari garen ekoizpen-prozesu naturalak (nekazaritza ekologikoa, transgenikoak errefusatzeari, etab.) berreskuratzera eramango gintuzke. Prebentzioaren kultura, praktika osasungarrien kultura garatu nahi bada, ezinbestekoa da «halabeharrendaren» ideia, subjektuak berak esku hartzeko eremurik ez dagoela dioen ideia zehaztea edo minimizatzea.

HIESa maila sinbolikoan kokatuko litzateke, minbiziaren kontrako posizioan. HIESak ez dio halabeharrezko prozesu bati erantzuten, aitzitik, subjektuaren ardurak —berez «arduragabetasunak»— bere tokia du prozesu horretan. Norbanakoak badu kutsatzea saihesteko esku hartzeko aukera zuzena. Prebentzioaren eremutik, ona da gazteak —norbanako guztiak— kutsatzea saihesteari erantzule sentitzea, horrek neurri profilaktikoak hartu eta praktika arriskutsuak saihestea esan nahi duelako. Dirudienez hori da jarrera nagusia Euskadiko gazteen diskurtsoan, baina, maila ertain/ertain-baxuko mutilen hainbat sektoretan, erantzukizunaren ideia besteari ardurapean uzten da antza. Jarrera horietatik, besteari dagokio kutsatzea saihesteko neurriak hartzea: prebentzioa erabiltzea, norbera gaixo dagoela jakinaraztea, etab. «Erantzukizuna» besteen esku uzte hori gaizki ulertutako egonkortasunaren eta konfiantzaren ideian —monogamia seriatua— oinarrituta ezarritako harremanen ingurune batean gertatzen da, eta horrek praktika arriskutsuak izateko arriskua ekartzen du.

Minbiziaren kasuan pertzepzio nagusia da guztion artean ingurune gero eta kaltegarriagoa eraikitzen ari garela, eta horrek praktika osasungarrien zentzua ahalik eta gehien erlatibizatzea eraman dezake; baina HIESaren kasuan, paradoxa bada ere, gizartean gutxiago azaltzeak praktika arriskutsuak saihesteko «beharra» erlatibizatzea eraman dezake, eta horrek GIBaren kutsatze-kasuek gora egitea eragin dezake.

Alderdi deigarrietako bat da taldeetan, HIESari buruz hitz egiterakoan, gazteak ez dituztela aipatzen gaixotasun hori kroniko bilakatu dituzten terapia antirretobiralak —gaixotasunaren aurrerakada oztopatzen duten eta gaixoei bizi-kalitate ona eskaintzen dieten horiek—. Gazteen irudikapenetan gaixotasun hilgarria da halabeharrez —ez kronikoa—, eta gaixoak bizi-kalitatea guztiz galtzen du.

Gazte batzuek HIES gaixoaz duten irudia pertsona hondatuarena da, gaixotasunak fisikoki «markatutako» pertsonarena. Erabat okerra den uste horrek, HIES gaixoak —oro har— itxura fisikoki «markatua» duela alegia, ideia oker batera daramatza gazteak: identifikazio fisikoa posible dela pentsatzera. Gazte horientzat itxura hondatu horrek filtroaren —areago, bermearen— lana egingo luke pertsona jakin batekin sexu-harremanik edo arrisku-praktikarik ez izateko garaian. Horrela, bada, HIESak gorputzean isla duela eta erraz igarri daitekeela pentsatzea berez arrisku bat izan daiteke, prebentzio aktiboa ez delako barneratzen eta ez delako guztiz barneratzen, baita, GIBaren kutsaketa ekiditeko modurik eraginkorrena preserbatiboa erabiltzea dela. Gaixotasuna ikusgarria, antzemangarria dela baieztatuz, inplizituki, gaixotasunaren irudi eraikiarekin bat ez datorren itxura osasungarria duten pertsonekin preserbatiboa ez erabiltzea erlatibizatzen ari dira gazteak.

Taldeetan ez da informazio faltaren ideia indarrez agertzen, bai ordea HIESa lehen munduan presente egotearen kontzientzia falta, komunikabideetan horren sarri ez agertzea, kontrol mediko handiagoa edo kasu-kopuruaren murrizketa baino haratago.

## 1.5. OSASUNAREN SUSTAPENA ETA HEZKUNTZA

Unibertsitatekoak ez diren etapetan dauden gazte ikasleen kolektiboak agertzen dira osasunaren sustapeneko eta hezkuntzako ekintzen hartzaile gisa. Ildo horretan «exijentzia» edo «eskakizun» ugari zuzentzen zaizkie irakaskuntzako profesionalei. Ekintza horiek eskola-ingurunean kontzentratzen direnez, hezkuntza-sistematik goiz irteten diren gazteen sektoreentzat zailagoa da informazio hori lortzea.

Egindako taldeetan, oraindik Derrigorrezko Hezkuntzako edo Batxilergoko mailetan dauden gazte ia guztiek parte hartu dute osasunaren hezkuntza eta sustapeneko ekintzaren batean. Alde horretatik, esate baterako drogen kontsumoari edo sexualitateari buruzko inolako prestakuntza- edo informazio-ekintzarik jaso ez duten ikastetxe erlijiosoetako ikasle diren neskek dira salbuespena.

Osasunaren hezkuntza-programaren bat ezagutu duen gehiengo horren barnean, gazteek parte hartu duten osasun-hezkuntzako ikuspegiei edo jardueri buruz dituzten iritziak eta gustukoak dituztenak adierazi dituzte. Dirudenez, ekintzak «ona» edo «txarra» denari buruzko

planteamendu arau-emaille eta dikotomiko «huts» batetik informazioa ematera mugatzen direnean, hau da, ikasleei informazio-hartzaile pasibo bat besterik ez izateko aukera bakarrik uzten zaienean, ez zaizkie interesatzen. Gainera, informazio hori jada «buruz dakitela» uste edo sinesten dute, eta horrek interesik ez izatea eragiten die, ekintza horiek «eskolak galtzea» dela pentsarazteaz gain.

Burutzen diren ekintza askotan ageri den ikuspegi arau-emaillearen aurrean, gazteek, zuzenean izan duten esperientzia kontuan hartuta, drogen edo alkoholaren kontsumoan argi-ilunak sumatzen dituzte, eta hori ez dator bat sarritan jasotzen duten informazioaren dikotomia murriztailearekin. Gazteenek «dastatzeko» erakusten duten interesa anibalentzia-eremu horretan sartu behar da, alkoholaren edota beste droga batzuen kontsumoak batzuetan pizten dien erakargarritasun beldurgarriaren eremuan. Drogen eta alkoholaren «kontsumo ludikoak» maiz positibotasunaren kutsua ematen zaion eremu batean kokatzen ditu kontsumo horiek, eta zaila da positibotasun horren kontra argudiatzea. Jarrera autonomoa indartuko duten argudioen, norberaren erabakia sendotuko duten argudioen premiazko testuinguru horretan, gazteek adierazten dute beraientzat ez dela nahikoa «ona» denaren eta «txarra» denaren agindua ezagutzera. Taldeetan esaten den bezala, inoiz ez da izan hainbeste informazio, baina ezta hainbestearainoko droga-kontsumorik ere. Ikuspegi arau-emaille hutsak baztertzeko testuinguru horretan berreskuratzen dira aho batez eta modu bizian gazteei norbanako aktibo gisa zuzentzen zaizkien ekintza positiboak: film bat ikusi ondorengo eztabaidak, trafiko-istripu bat zuzenean bizi izan dutenen solasaldiak, mendekotasun-arazoak dituztenen solasaldiak, etab.

Elkarrizketatu ditugun bide segurtasuneko hezkuntza-arduradunek adierazi dutenez, beren esperientziaren arabera, gazteen artean harrera oso ona zuten trafiko-istripuen biktimek ikastetxeetara egindako bisitaldiek. Trafiko-istripuaren ondorioak zuzenean aurrez aurre izateak, eragin handiagoa du (antza denez) modu arriskutsuan gidatzeak dituen arriskuez ohartzeko, errepidean egin behar ez denari buruzko kanpaina estandarizatuagoek baino. Errealitatea, hartzen diren erabakiek (edo hartzen ez direnek) izan ditzaketan ondorioak aurrez aurre izatean ohartzen dira gazteak beren erantzukizunaz ere.

Gazteei prestakuntzako eta prebentzioko ekintzak interesatzen zaizkie ekintzaren subjektu aktibo gisa tratatzen zaienean, aginduak «gogoraziko» dizkien heldurik gabeko ingurune batean erabakiak hartu behar dituzten subjektu gisa tratatzen zaienean, hau da, beren aginduak sortu behar dituztenean, abantailak eta eragozpenak baloratu behar dituztenean, horrela beren erabakiak benetan autonomoak eta independenteak izan daitezen eta kontsumo edo praktika arriskutsu jakin batzuen aurrean taldearen indar edo presioari, parekoa denari, «bes-

teari» aurre egin ahal izan diezaioten. Azken batean, beren ingurunean aurki ditzaketan egoera desberdinetan izan daitezkeen argi-ilunei aurre egin eta irtenbidea aurkitzeko prestatzen dituzten edo laguntzen dieten ekintzak interesatzen zaizkie.

Gazteak eta elkarrizketatutako profesionalak bat datoz ikuspegi arau-emaile dikotomiko batetik ez, egin behar denean eta egin behar ez denean oinarrituta ez, baizik eta gazteak informazio bat barneratu eta horretan oinarrituta erabaki bat hartzea xede duen ikuspegitik lan egiten denean gazteen harmena handiagoa dela esatean. Eta horixe da, dirudienez, azkenaldian hedatzen ari den lan-ildoak. Gazteak irteera bat baino gehiago dituzten hipotesi desberdinen aurrean jartzea, hartu beharreko erabaki edo eman beharreko erantzun argi edo bakar bat ez duten hipotesien aurrean jartzea; azken batean, gazteak erabaki beharrendaren dileman jartzea.

## 1.6. SISTEMA MEDIKOA

Gazteen artean sistema medikoa, eta zehazki lehen mailako arreta, prebentziotik eta osasunaren sustapenetik urrun dagoen eremu gisa agertzen da, zuzenean «gaixotasunaren» eremuan sartzen dute. Sistema medikoa ez dute ikusten «osasungarri denaren eremuaren» barruan edo eremu horretan parte hartzen, osasunik eza dela pentsatzen dute. Gazteak lehen mailako arretako sistema medikora hurbiltzen direnean beti dago gaixotasunen bat, eta kasurik okerrenean helburua errezeta bat egitea da.

Gaitzen bat dagoelako ohiko azterketak egitea beharrezkoa den kasuez gain, gaixotasun bat edo ondoez puntual bat izan gabe kontsultara joatea harrigarria da gazteentzat. Taldeetan praktika hori gutxienena dela ikusi da, eta nesken artean agertu da, dieta baten kontrol medikoari lotuta. Elikadura zaintzea eta hark osasunean duen eragin zuzena gero eta gehiago ari dira hedatzen gazteen artean, eta bereziki emakumeen artean; izan ere, hauek kontzientziatuago daudela dirudi, agian «elikadura-nahasteak» hurbilago dituztelako. Nolabaiteko kezka erakusten duen testuinguru horretan, itxuraz, kontrol medikoaren prebentzio-funtzioan eta funtzio osasungarrian pentsatzen dute argaltzeko edo loditzeko dieta bat egiteko orduan, horrela ahalik eta modu osasuntsuenean egiteko.

Nesken artean ginekologoarengana joatea ere ez da sartzen «prebentzioaren» eremuan. Ginekologia-konsultara joateko dituzten motibazioak izango lirateke hilerokoaren zikloan ara-

zoak edo nahasteak izatea («jada ez nuen beste erremediorik») edo sexu-harremanak izaten hastea edota izatea, eta ahozko antisorgailuak hartzeko erabakia. Emakumeen diskurtsoan nagusia da ginekologoarengana behin sexu-harremanak hasi ondoren joaten hastea egokia dela uste izatea. Ginekologoarengana joatearen eta sexu-jardueraren arteko lotura horretan emakumeen osasunaren ikuspegia izugarri murriztailea da, eta horren ondorioz sortzen diren hutsunea eta arduragabekeria eten egin behar dira.

Lotsa, beldurra, elkar gurutzatzen duten eta ginekologoarengana joateko motibazioa izugarri galarazten duten sentimenduak dira; eta bereziki beldur handia ematen duen «lehen bisitarako» motibazioa galarazten dute, esperientzia deserosotzat hartzen baita, indarkeria simbolikoko dosi handi baten zama duen esperientziatzat. «Eraso-bizipen» hori batzuetan —gehienetan, antza—, areagotu egiten du paziente gazteen urduritasunaren eta tentsioaren aurrean profesional medikoek duten jarrera ez ulerkorrek. Era horretako kontsultetara eraman ohi den tentsioarekiko pazientziarik ez izatea edo ez ulertzea ez da inola ere hurbiltzea errazten duen elementu bat, alderantziz, ginekologoarenganako bisiten normalizazioa eragozteko edo saihesteko arriskua dago.





**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK**BILDUMA

## 2. Analisi kuantitatiboa



## Analisi kuantitatiboa

### 2.1. GAZTEEN EREMUAREN BEREIZGARRIAK

#### 2.1.1. Lehentasun pertsonalak: ondokoen balorazioa; osasuna, familia, adiskidetasuna, maitasuna, sexua, aisialdia, lana, ikasketak, politika eta erlijioa

«Lehentasun pertsonalak» izena jarri diegu osasunaren, familiaren, adiskidetasunaren, maitasunaren, sexuaren, aisialdiaren, lanaren, ikasketen, politikaren eta erlijioaren kontzeptuei. Inkesta egin duten guztiengan eragina duten multzo handi horietako bakoitzaren pertzepzioaren bitartez, gazteak zein parametrotan mugitzen diren jakin nahi dugu.


Osasuna, familia, adiskidetasuna, maitasuna, sexua, aisialdia, lana eta ikasketak, ordena horretan, 15etik 29 urtera bitarteko gazteen artean «oso ongi» balorazioa gainditu duten zortzi aldagai dira —proposatutako 10 aldagaietatik—, 0 «garrantzirik ez» eta 10 «erabateko garrantzia» diren eskala batean.

Kontzeptu orokor batzuk, esate baterako, osasuna, familia, adiskidetasuna, lana edo sexua Gazteen Euskal Behatokiak egiten dituen galdeketetan sartzen dira. Horrela, ia urte eta erdiko aldian (2005eko martxotik 2006ko uztailean) kontzeptu horietako bakoitza zein mailatan onartzen den ikus daiteke, gazteek ematen dieten garrantzi-mailaren arabera. Ildo horretan, azpimarratzekoa da zeharka aztertutako aldi horretan kontzeptu bakoitzak lortzen duen balorazioari dagokionez, barne-koherentzia handia dagoela.

Planteatutako kontzeptuak gazteek ematen dieten balorazioaren arabera ordenatzean, ondoko zerrenda atera zaigu: lehenik «osasuna» nagusitzen da 9,1en (2006ko uztailean) eta 9,25en (2005eko martxoa) arteko balioekin, eta azkenik, «erlijioa», 3,19ren (2006ko uztailean) eta 3,52ren (2005eko martxoa) arteko balioekin, 0 «garrantzirik ez» eta 10 «erabateko garrantzia» izanik; tarteko balioak dira familia, adiskidetasuna, maitasuna, aisialdia, lana, sexua, ikasketak eta politika.

Aldagai honi buruz ditugun azken datuak 2006ko uztailekoak dira eta ondoko grafikoa ikus daitezke (2. grafikoa):

**2. grafikoa**  
LEHENTASUN PERTSONALAK



\* Alderdietako bakoitzari emandako puntuazioa. 0tik 10era doan eskalan (0k «ez du batere garrantzirik» esan nahi du, eta 10ek «erabateko garrantzia du» esan nahi du).

Orokorrean, emakumeek eta gizonek nahiko antzera baloratzen dituzte planteatu zaizkien kontzeptuak; hala ere, emakumeek gizonek baino garrantzi handixeagoa ematen diete «osasuna», «familia», «adiskidetasuna», «maitasuna», «lana», «ikasketak» eta «erlijioa» kontzeptuei; eta, aldiz, gizonezkoentzat «sexuak» bakarrik du emakumearentzat baino garrantzi handiagoa (1. taula).

Desberdintasun adierazgarriagoak aurkituko ditugu adinaren aldagaia aintzat hartzen badugu, balioek barne-desberdintasun txikiak erakusten dituzten arren. «Erljioa» kontzeptuan izan ezik, gainerako aldagaiek lotura estua dute adinarekin; zenbat eta adin handiagoa, orduan eta gehiago onartzen da planteatutako kontzeptuei ematen zaien garrantzia; aipatutako «erlijioa» kontzeptuarekin, berriz, kontrakoa gertatzen da: adina handitu ahala, murriztu edo gelditu egiten da aldagai horri ematen zaion garrantzi-maila (2. taula).

«Sexua» kontzeptuari lurralde bakoitzean ematen zaion garrantzi-maila bakarrik ezagutzen dugu, eta, gai horri dagokionez, lurraldeen arteko desberdintasunak hutsalak direla azpimarratu behar dugu. Bizkaian ematen diote garrantzi gehien, 7,59ko puntuazioarekin; Araban, berriz, gutxien, 7,17ko puntuazioarekin (Gipuzkoan, 7,41).

**1. taula**

## LEHENTASUN PERTSONALAK, GENEROAREN ARABERA

	GIZONA	EMAKUMEA
Osasuna	9,01	9,22
Familia	8,72	8,93
Adiskidetasuna	8,70	8,88
Maitasuna	8,31	8,63
Lana	7,46	7,91
Sexua	7,67	7,29
Ikasketak	7,24	7,65
Erljioa	3,04	3,33

\* Alderdietako bakoitzari emandako puntuazioa, 0tik 10era doan eskalan (0k «ez du batere garrantzirik» esan nahi du, eta 10ek «erabateko garrantzia du» esan nahi du).

**2. taula**

## LEHENTASUN PERTSONALAK, ADIN TALDEEN ARABERA

	15-19	20-24	25-29
Osasuna	8,86	9,17	9,25
Familia	8,69	8,78	8,99
Maitasuna	8,21	8,52	8,62
Lana	7,38	7,72	7,90
Sexua	7,14	7,54	7,67
Politika	4,20	4,74	4,71
Erljioa	3,60	2,98	3,09

\* Alderdietako bakoitzari emandako puntuazioa, 0tik 10era doan eskalan (0k «ez du batere garrantzirik» esan nahi du, eta 10ek «erabateko garrantzia du» esan nahi du).

Aurkeztu diren zazpi «garrantzi-aldagaietatik» bosti «langilearen» profilean ematen zaie garrantzi handien; salbuespenak dira «ikasten ari dena» eta «ikasten eta lanean ari dena»; lehenak «erlijioari» garrantzi handiagoa ematen diolako eta bigarrenak «ikasketei» garrantzi handiagoa ematen dielako. Beraz, hamarren gutxi batzuegatik bada ere, «langilea» «ikasleen», «langabeen» edo «aldi berean lan egin eta ikasten dutenen» aurretik kokatzen da gehien inporta zaizkion gaiak baloratzeko orduan (3. taula).

### 3. taula

LEHENTASUN PERTSONALAK, LANBIDEAREN ARABERA

	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LANEAN ARI DA	LANGABEA
Osasuna	8,99	9,26	9,22	8,94
Familia	8,60	9,03	8,93	8,85
Maitasuna	8,38	8,61	8,67	8,06
Lana	7,45	7,90	7,73	7,82
Sexua	7,24	7,73	7,64	7,30
Ikasketak	7,69	7,03	7,84	7,12
Erljioa	3,40	3,20	2,84	2,86

\* Alderdietako bakoitzari emandako puntuazioa, 0tik 10era doan eskalan (0k «ez du batere garrantzirik» esan nahi du, eta 10ek «erabateko garrantzia du» esan nahi du).

Ez dirudi gizarte-klasea osagai bereizle irmo bat denik maila desberdinetan «politikari» (aldagai honi buruzko datuak bakarrik ditugu) ematen zaion garrantzia baloratzeko, erantzuna antzekoa baita hiruretan; hala ere, maila «altua/ertain-altuan» du baliorik handiena, 4,9 punturekin, eta maila ertainean baxuena, 4,4 punturekin (maila ertain-baxua/baxuan, 4,6 puntu).

## 2.1.2. Gazteen kezka

### 2.1.2.1. Gaur egungo kezka pertsonalen sailkapena

Dirua, irudia eta besteek norberaz pentsatzen dutena dira, osasun pertsonalarekin batera, 15etik 29 urtera bitarteko gazteen kezka nagusiak. «Norberaren dirua/ondasun materialak» da kezka nabarmenena eta besteekiko alde handia du. Pentsa daitekeenez, oraindik diru-sarrerarik ez duten edota beren lan-jardueran hasten ari diren gazteek argi eta garbi adierazten dute baliabide materialen gabeziak sortzen dien kezka.

Bikotekidearekin, familiarekin edo adiskideekin dituzten gizarte-harremanak dira buruan darabilten beste kezka bat, baina ez aurrekoak bezain handia (4. taula).

#### 4. taula

GAUR EGUNGO KEZKA PERTSONAL GARRANTZITSUAK (%)

«GAUR EGUN, BA AL DUZU ONDOKOekin ZERIKUSIA DUEN KEZKA PERTSONAL GARRANTZITSURIK?»	%
Dirua/ondasun materialak	32,0
Irudia/itxura pertsonala	20,3
Besteek ni nola baloratzen nauten	20,1
Osasun fisikoa/psikomentala	18,1
Senideekiko harremanak	12,8
Adiskideekiko harremanak	10,0
Bikotekidearekiko harremanak	9,9
Besteek nigan duten kontrola	9,8
Sexualitatea	9,7

\* Alderdietako bakoitzari baiezeko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.

«Besteek bera nola baloratzen duten» 24 urtera arte areagotu egiten den kezka handi bat da, baina adin horretan nabarmen gutxitzen da. Pentsa daitekeenez, hamarkada-aldaketatik —30 urte— hurbilen dagoen adina nork bere buruarengan segurtasun handiagoa izatea ekartzen duen alderdi bat izaten hasten da, eta, ondorioz, besteek pentsatzen dutenak gero eta garrantzi gutxiago du (5. taula).

### 5. taula

GAUR EGUNGO KEZKA PERTSONAL GARRANTZITSUAK, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«GAUR EGUN, BA AL DUZU ONDOKOEKIN ZERIKUSIA DUEN KEZKA PERTSONAL GARRANTZITSURIK?»	15-19	20-24	25-29
Besteek ni nola baloratzen nauten	19,4	22,8	17,6

\* Alderdiari baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.

Deigarria da «besteek norbera nola baloratzen duten» aldagaiak lurralde historikoen arabera sortzen duen kezka-maila desberdina. Arabak eta Gipuzkoak antzeko portaera dute —Gipuzkoan pisu handiagoa—, eta aldiz Bizkaia gai hori ia arazotzat ere ez duela adierazteagatik nabarmentzen da (6. taula).

«Bikotekidearekiko harremanek» sortzen duten kezka dagokionez, EAEn %9,9ko puntuazioa lortzen zuela ikusi dugu, hau da, arabarrek eta bizkaitarrek adierazten dutena baino pixka bat handiagoa, baina gipuzkoarrek eurentzat hori arazo handiagoa dela adierazi dute (6. taula).

### 6. taula

GAUR EGUNGO KEZKA PERTSONAL GARRANTZITSUAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«KEZKATZEN DUENA ONDOKOAREKIN LOTUTA DAGO...»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Besteek ni nola baloratzen nauten	23,3	15,8	26,1
Bikotekidearekiko harremanak	7,4	8,6	13,3

\* Alderdietako bakoitzari baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.

«Lanean» aritzea erabakigarria da «besteek bera nola baloratzen duten» arazo bat izan ez dadin; besteentzat, ordea, arazo handiagoa da (7. taula).

### 7. taula

GAUR EGUNGO KEZKA PERTSONAL GARRANTZITSUAK, LANBIDEAREN ARABERA (%)

«KEZKATZEN DUENA ONDOKOAREKIN LOTUTA DAGO...»	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LANEAN ARI DA	LANGABEA
Besteek bera nola baloratzen duten	22,3	15,3	24,8	21,4

\* Alderdiari baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.

#### 2.1.2.2. Kezkatzeko arrazoiei buruzko hainbat esaldirekiko duten adostasun-maila

Zalantzarik gabe «azterketak» eta «estutasuna eta tentsioa» aldagaiek pisu espezifikoko garrantzitsua dute gazteentzat, ohiko kezka handien artean. «Lana» eta «kezka, estutasuna eta tentsioa» ere hurbiletik bizi dituzten kontzeptuak dira (8. taula).

### 8. taula

KEZKATZEKO ARRAZOIAK

ONDOKO ESALDIEKIKO ADOSTASUN MAILA	PUNTUAZIOA
Azterketa-garaiari kezkak larritu egiten nau eta tentsioa eragiten dit	6,70
Eguneroko lanean ohikoa da kezkatzeko arrazoiak izatea	5,85
Eguneroko lanean ohikoa da estutasunak eta tentsioak izatea	5,79
Azterketa-garaiko kezkak loa kentzen dit	5,05

\* Alderdietako bakoitzari emandako puntuazioa, 0tik 10era doan eskalan (0k «ez du batere garrantzirik» esan nahi du, eta 10ek «erabateko garrantzia du» esan nahi du).

«Azterketak/tentsioa-loa» erlazio horren ondorioak jasateko joera handiagoa erakusten du emakumeak gizonak baino (9. taula).

### 9. taula

KEZKATZEKO ARRAZOIAK, GENEROAREN ARABERA

ONDOKO ESALDIEKIKO ADOSTASUN MAILA	GIZONA	EMAKUMEA
Azterketa-garaiko kezkak larritu egiten nau eta tentsioa eragiten dit	6,17	7,25
Azterketa-garaiko kezkak loa kentzen dit	4,35	5,78

\* Alderdietako bakoitzari emandako puntuazioa, 0tik 10era doan eskalan (0k «ez du batere garrantzirik» esan nahi du, eta 10ek «erabateko garrantzia du» esan nahi du).

Zenbat eta adinez nagusiagoa, orduan eta gazte gehiagok lan egiten duela suposatzen dugu planteamendu orokor gisa, eta planteamendu horretan, zenbat eta zaharragoa izan orduan eta «kezka» eta «estutasun/tentsio» gehiago sentitzen dira lanean, ziur aski lan-erantzukizun handiagoak hartzen direlako (10. taula).

### 10. taula

KEZKATZEKO ARRAZOIAK, ADIN TALDEEN ARABERA

ONDOKO ESALDIEKIKO ADOSTASUN MAILA	15-19	20-24	25-29
Eguneroko lanean ohikoa da kezkatzeko arrazoiak izatea	4,82	5,80	6,12
Eguneroko lanean ohikoa da estutasunak eta tentsioak izatea	5,18	5,71	6,00

\* Alderdietako bakoitzari emandako puntuazioa, 0tik 10era doan eskalan (0k «ez du batere garrantzirik» esan nahi du, eta 10ek «erabateko garrantzia du» esan nahi du).

«Langabeak» eta «langileak» dira lanarengatik «kezka» gehien dituztenak, segida logiko baten barnean; halaber, «estutasunak eta tentsioak» dituztela gehien adierazten dutenak dira. Oraindik «ikasten ari direnek» arazo horiek susmatu besterik ezin dituzte egin eta «ikasten eta lanean ari direnek» kezka horiek gutxien jasaten dituztenak dira, agian ordu gutxiagoz edo erantzukizun gutxiko lanpostuetan lan egiten dutelako (11. taula).

### 11. taula

#### KEZKATZEKO ARRAZOIAK, LANBIDEAREN ARABERA

ONDOKO ESALDIEKIKO ADOSTASUN MAILA	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LANEAN ARI DA	LANGABEA
Eguneroko lanean ohikoa da kezkatzeko arrazoiak izatea	5,57	6,12	5,28	6,15
Eguneroko lanean ohikoa da estutasunak eta tentsioak izatea	5,41	6,09	5,11	6,59

\* Alderdietako bakoitzari emandako puntuazioa, 0tik 10era doan eskalan (0k «ez du batere garrantzirik» esan nahi du, eta 10ek «erabateko garrantzia du» esan nahi du).

## 2.1.3. Etorkizunari begira dituzten pertzepzioak


### 2.1.3.1. Gurasoen ekonomiarekin alderatuta, etorkizunean izango duten ekonomiaren ikusmoldea

Inkestari erantzun dion populazioaren erdiak —%52,1ek— uste du etorkizunean lortuko duen maila ekonomikoa gaur egun bere gurasoek dutenaren antzekoa izango dela; hala ere, gazteen ia heren batek —%28,3k— uste du etorkizunean bere ekonomia gurasoena baino «zertxobait hobea» izango dela. Gazte horien prestakuntza intelektual eta tekniko hobeak horietako askok gurasoen aukerak gainditzea aurreikusi ahal izatea ahalbidetzen du (3. grafikoa).

Etorkizun ekonomiko hori «zertxobait hobea» izateak nahiko antzekoa den erlazioa erakusten du adin-taldearen arabera ere; hala eta guztiz ere, azpimarratu egin behar dugu adinean gora egin ahala etorkizunean ekonomia «gutxi gorabehera berdin» baloratzeko aukerak murriztu egiten direla, eta, aldiz, etorkizunean maila «zertxobait baxuagoa» izateko ustea areagotu egiten dela. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta zehaztasun handiagoa dute beren lan-arloko egoerei eta ahalmenei buruz, eta, hortaz, ekonomia-arlokoiei buruz ere; eta datu horiekin gazteek beren usteak finkatzen dituzte: batzuek gurasoena bezalako ekonomia sumatzen dute, eta beste batzuek, aldiz, zertxobait okerragoa (12. taula).

### 3. grafikoa

ETORKIZUNEAN NOLAKOA IZANGO DA ZURE MAILA EKONOMIKOA,  
ZURE GURASOENAREKIN ALDERATUTA? (%)



### 12. taula

NORBERAREN ETORKIZUN EKONOMIKOAREN PERTZEPZIOA, GURASOEN MAILA  
EKONOMIKOAREKIN ALDERATUTA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«ETORKIZUNEAN, NOLAKOA IZANGO DA ZURE MAILA EKONOMIKOA, GURASOENAREKIN ALDERATUTA?»	15-19	20-24	25-29
Zertxobait hobea	29,3	26,5	29,6
Gutxi gorabehera berdina	56,7	53,6	46,4
Zertxobait okerragoa	9,8	17,0	19,7
Ed/Ee	4,1	2,9	4,3
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Gizarte-klasea zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta esperantza handiagoa dute gazteek gurasoena baino ekonomia-maila zertxobait hobea» izateko; beraz, beren aukerak hobetzeko esperantza handiagoa dute teoriar gutxiago dutenek.

Gurasoak bezala geratuko direla, «gutxi gorabehera maila bera» izango dutela pentsatzen dute maila «altu/ertain-altuko» eta «ertaineko» gazte gehienek, eta maila «ertain-baxu/baxukoen» artean, aldiz, aukera horrek indarra galtzen du. Hala ere, deigarria da «maila ertain-baxu/baxukoek» gurasoena baino maila «zertxobait okerragoan» geratzeari ematen dioten ehunekoa, esanguratsua baita —%24,4— (13. taula).

### 13. taula

NORBERAREN ETORKIZUN EKONOMIKOAREN PERTZEPZIOA, GURASOEN MAILA EKONOMIKOAREKIN ALDERATUTA, GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)

«ETORKIZUNEAN, NOLAKOA IZANGO DA ZURE MAILA EKONOMIKOA, GURASOENAREKIN ALDERATUTA?»	ALTUA/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
Zertxobait hobea	26,0	28,4	35,4
Gutxi gorabehera berdina	53,3	53,4	34,1
Zertxobait okerragoa	18,4	14,5	24,4
Ed/Ee	2,2	3,7	6,1
<b>PORTZENTAJEKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

#### 2.1.3.2. Norbera prestatu den edo prestatzen ari den arloan lan egiteko aukera

Inkesta egin dutenen gehiengo absolutuak —%71,1— baietz erantzun du «prestatzen ari den edo prestatu den ikasketa-arloan lan egitea espero duen» galdetu zaionean, eta horri «ari da jada» erantzuna eman dutenen %11,5 gehitzen badiogu, %82,6ra iristen da. Hau da, gazteek prestakuntzaren eta lanbidearen arloan egin duten aukera da etorkizunean finkatzea espero dutena (4. grafikoa).


Urteak betetzen diren neurrian gutxitu egiten da «norbera prestatzen ari den edo prestatu den ikasketa-arloan lan egiteko» esperantza hori; zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta

hobeto jakiten da lana sortzen den tokian egingo dela lan, norberak eskaintzen duen prestakuntzarekin bat etorri lan egin behar lukeen tokian baino gehiago (14. taula).

Gipuzkoarrak dira baikorrenak edo itxaropentsuenak beren lanbide-etorkizuna jaso duten prestakuntzarekin bat etortzeari dagokionez (15. taula).

#### 4. grafikoa

PRESTATU ZAREN EDO PRESTATZEN ARI ZAREN ARLOAN  
LAN EGITEA ESPERO DUZU? (%)



#### 14. taula

PRESTATU DEN EDO PRESTATZEN ARI DEN ARLOAN LAN EGITEKO ITXAROPENA,  
ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«PRESTATU ZAREN EDO PRESTATZEN ARI ZAREN ARLOAN LAN EGITEA ESPERO DUZU?»	15-19	20-24	25-29
BAI	85,0	73,9	56,2

#### 15. taula

PRESTATU DEN EDO PRESTATZEN ARI DEN ARLOAN LAN EGITEKO ITXAROPENA,  
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«PRESTATU ZAREN EDO PRESTATZEN ARI ZAREN ARLOAN LAN EGITEA ESPERO DUZU?»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
BAI	70,8	67,3	77,5

«Ikasleak» dira beren ikasketak eta beren lanbide-profila bat etortzean konfiantza handiena dutenak, baina «langileak» dira bat etortze hori —ikasketak/lanbide-profila— gauzatzeko jada esperantza gutxien dutenak, ikasleen aldean ia erdiraino jaisten den ehunekoarekin (16. taula).

### 16. taula

PRESTATU DEN EDO PRESTATZEN ARI DEN ARLOAN LAN EGITEKO ITXAROPENA,  
LANBIDEAREN ARABERA (%)

«PRESTATU ZAREN EDO PRESTATZEN ARI ZAREN ARLOAN LAN EGITEA ESPERO DUZU?»	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LANEAN ARI DA	LANGABEA
BAI	89,5	48,5	76,2	60,0

Gizarte-klasearen eskalan prestakuntzaren eta lanbide-profilaren etorkizuneko egokitzapen horretan duten konfiantzak behera egiten du nabarmen; itxaropen hori dute maila «altu/ertain-altukoek», baina mesfidantza areagotu egiten da gizarte-klasean behera egitearekin batera (17. taula).

### 17. taula

PRESTATU DEN EDO PRESTATZEN ARI DEN ARLOAN LAN EGITEKO ITXAROPENA,  
GIZARTE KLAUSEAREN ARABERA (%)


«PRESTATU ZAREN EDO PRESTATZEN ARI ZAREN ARLOAN LAN EGITEA ESPERO DUZU?»	ALTUA/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
BAI	77,8	69,9	59,8

#### 2.1.3.3. Etorkizuneko osasun fisikoa

Inkestari erantzun dioten gazte gehienek pentsatzen dute beren «osasun fisikoa» guxtienez orain arte bezalakoa izango dela, baina ia heren batek —%29,3k— osasun hori «hobetzea» espero du, eta, aldiz, etorkizun «okerragoa» ikusten dutenak %14,0 dira (5. grafikoa).

### 5. grafikoa

ETORKIZUNEAN NORBERAK IZANGO DUEN OSASUN FISIKOAREN PERTZEPZIOA (%)



Emakumeak egonkorragoak dira eta neurri handiagoan espero dute osasun fisikoari dagokionez orain dauden bezala jarraitzea; baina gizonek gehiago uste dute beren osasun fisikoak gorabeherak izango dituela, puntuazio altuagoa ematen baitiete «hobe» eta «okerrago» balierei (18. taula).

### 18. taula

ETORKIZUNEAN NORBERAK IZANGO DUEN OSASUN FISIKOAREN PERTZEPZIOA, GENEROAREN ARABERA (%)

«ETORKIZUN HURBILEAN, ZURE OSASUN FISIKOA NOLAKOA IZANGO DELA USTE DUZU?»	GIZONA	EMAKUMEA
Hobe	31,3	27,3
Berdina	49,7	58,0
Okerragoa	16,4	11,6
Ed/Ee	2,6	3,1
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Gizarte-klase «baxu/ertain-baxua» da «etorkizuneko bere osasunak» okerrera egin dezakeela gehien uste duena eta hobera egin dezakeela gutxien uste duena (24. taula).

**19. taula**

ETORKIZUNEAN NORBERAK IZANGO DUEN OSASUN FISIKOAREN PERTZEPZIOA,  
GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)


«ETORKIZUN HURBILEAN, ZURE OSASUN FISIKOA NOLAKOA IZANGO DELA USTE DUZU?»	ALTUA/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
Hobea	28,3	30,8	17,1
Berdina	56,5	52,5	61,0
Okerragoa	14,3	13,4	19,5
Ed/Ee	1,0	3,3	2,4
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

## 2.1.3.4. Etorkizuneko gogo-aldarteak

Etorkizuneko osasun fisikoa, okerrera egin dezakeela gazte gutxiak uste dutelako nabarmentzen da, eta «etorkizuneko gogo-aldarteak» are itxaropentsuagoak da. %37,1ra igotzen da «hobea» izango dela uste duten gazteen kopurua, eta, aldiz, %3,6k bakarrik uste du «okerragoa» izango dela (6. grafikoa).

**6. grafikoa**

ETORKIZUNEAN NORBERAK IZANGO DUEN GOGO ALDARTEAREN PERTZEPZIOA (%)



Arabarrak dira «etorkizuneko gogo-aldarteak» gaur egungoa baino «hobea» izango delako itxaropen handiena dutenak; bizkaitarrak, berriz, etorkizun hori «okerragoa» izan daitekeela gehien uste dutenak dira (20. taula).

## 20. taula

ETORKIZUNEAN NORBERAK IZANGO DUEN GOGO ALDARTEAREN PERTZEPZIOA,  
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)


«ETORKIZUN HURBILEAN, ZURE GOGO ALDARTEA NOLAKOA IZANGO DELA USTE DUZU?»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Hobea	43,1	37,6	33,7
Berdina	52,5	52,9	59,6
Okerragoa	2,0	5,4	1,3
Ed/Ee	2,5	4,1	5,4
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

## 2.1.3.5. Etorkizunean seme-alabak izateko asmoa

Inkestari erantzun dioten gazteen hiru laurdenean etorkizunean guraso izateko asmoa dute edo jada badira. «Seme-alaba bat adoptatzea» aukerak %2,6ko pisua du; «seme-alabarik izateko asmorik ez dutenak», aldiz, %9,1 dira. Bestalde, «seme-alaba biologiko 1 edo 2» izatea %61,0ra iristen da eta «2 seme-alaba biologiko baino gehiago izatea» %11,8ra iristen da, baina bada %14,9 bat galdera horri oraindik zein erantzun eman ez dakiena ere (7. grafikoa).

## 7. grafikoa

ETORKIZUNEAN SEME-ALABAK IZATEKO ASMOA (%)



## 2.1.4. Gazteek dituzten harreman afektiboak, lagun arteko harremanak eta laguntzak

### 2.1.4.1. Adiskidetasunari buruzko balorazioa

Gazteei premisa batzuk planteatu zaizkie jakiten saiatzeko inkestaturen artean adiskidetasunak zein toki betetzen duen eta hura nola ulertzen duten. Alde horretatik, adiskidetasuna gizarte-kontzeptu gisa, hau da, «denbora pasatzeko lagunak» kontzeptua unibertsala, hedatua eta argia dela iruditu zaigu. Hala ere, lagunari erronkak eskatzen zaizkion neurrian, esate baterako kezka azaltzea edo laguntzea, adiskidetasun horrek indarra galtzen duela ikusten dugu (21. taula).

**21. taula**

ADISKIDETASUNARI BURUZKO BALORAZIOA (%)

ONDOKO ESALDIEKIKO ADOSTASUN MAILA	%
Erraza da denbora pasatzeko lagunak izatea	94,7
Beti dituzu kezkatzen zaituzten gaiei buruz hitz egiteko lagunik	83,5
Koadrilarekin irteten zarenean ondo pasatzen eta arazoez ez hitz egiten saiatzen zara	78,6
Erraza da arazoak dituzunean babesa eta laguntza emango dizkizuten lagunak aurkitzea	72,1

\* Alderdietako bakoitzari baiezeko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa («oso ados» + «nahiko ados»).

«Koadrilarekin irteten denean ondo pasatzen eta arazoez ez hitz egiten saiatzen da» erantzuna batez ere gazteenei dagokie —15-19 urte—, gazteek urteak bete ahala argi eta garbi murrizten baita baieztapen horrekiko duten adostasun-maila. Ikusi dugunez, zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta zintzotasun handiagoa dago berdinak direnekiko, kezka eragiten dieten guztia azaltzeko, eta laguna jada ez da dibertsiorako bakarrik (22. taula).

## 22. taula

ADISKIDETASUNARI BURUZKO BALORAZIOA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

ONDOKO ESALDIEKIKO ADOSTASUN MAILA	15-19	20-24	25-29
Koadrilarekin irteten zarenean ondo pasatzen eta arazoez ez hitz egiten saiatzen zara	86,0	77,4	73,8

\* Alderdiari baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa («oso ados» + «nahiko ados»).

Bizkaian dute adostasun handiena «koadrilarekin irteten denean ondo pasatzen eta arazoez ez hitz egiten saiatzen da» premiarekin, adiskidetasuna horrela ulertzen dutelako edo gazte horiek lagunei azaltzeko arazo gutxiago dituztelako. Gorago ere ikusi dugu kezkek pisu gutxien Bizkaian dutela, bai «besteek norberari buruz egiten duten balorazioari» dagokionez, bai eta «bikotekideari» dagokionez ere (23. taula).

## 23. taula

ADISKIDETASUNARI BURUZKO BALORAZIOA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

ONDOKO ESALDIEKIKO ADOSTASUN MAILA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Koadrilarekin irteten zarenean ondo pasatzen eta arazoez ez hitz egiten saiatzen zara	76,2	82,5	73,0

\* Alderdiari baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa («oso ados» + «nahiko ados»).

### 2.1.4.2. Lagun onenak non ezagutu diren

Interesgarria iruditu zitzaigun azterketa-unibertsuak barnean hartzen dituen adin desberdinetan adiskidetasunaren jatorria luzerako ikuspegi batetik aztertzea. Hala bada, «Lehen Hezkuntzako ikaskide izatea» adiskidetasunaren jatorri handia da inkestatu gehienentzat. Oso urrun, Bigarren Hezkuntza, unibertsitatea, Batxilergoa eta mobida adiskidetasunaren beste iturri batzuk dira. Eta eragin oso txikiarekin agertzen dira lana, jaioterria, kirola eta beste batzuk lagun onenak aurkitzeko aukera moduan (24. taula).

**24. taula**  
LAGUNEN JATORRIA (%)

«ZURE LAGUN ONENAK EZAGUTU DITUZU...»	%
Lehen Hezkuntzako ikaskide zirenean	67,4
Bigarren Hezkuntzako ikaskide zirenean	15,1
Unibertsitateko ikaskide zirenean	11,6
Batxilergoan ikaskide zirenean	11,4
Gau-giroan, mobidan	10,0
Lanean	5,8
Herrian	3,2
Kirola egiten	2,8
Auzoan	2,7
Gurasoen lagunen seme-alabak direlako	1,2
Beste lagun batzuen bitartez	1,1
Bestelakoak	1,6
Ez duzu lagun onik	0,3
Ed/Ee	1,6

\* Ehunekoan baturak ez du %100 ematen, erantzun anitzeko galdera baita. Taulan agertzen den ehunekoa aukera hori lehen, bigarren edo hirugarren aukera moduan hautatu duten pertsonena da.

«Lehen Hezkuntzako ikaskide zirenetik lagunak izatea» oinarritzko balioa da, baina adin-ean gora egin ahala galdu egiten da, bi inkestatutik batentzat nagusia izaten jarraitzen duen arren (25. taula).

**25. taula**

LAGUNEN JATORRIA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«ZURE LAGUN ONENAK EZAGUTU DITUZU...»	15-19	20-24	25-29
Lehen Hezkuntzako ikaskide zirenean	75,4	65,0	52,8

\* Alderdiari baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.

«Lehen Hezkuntzatik hasita ikaskide izateak» EAeko batez bestekoa baino balio handiagoa izaten jarraitzen du Gipuzkoako lurraldean (26. taula).

**26. taula**

LAGUNEN JATORRIA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«ZURE LAGUN ONENAK EZAGUTU DITUZU...»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Lehen Hezkuntzako ikaskide zirenean	63,4	65,5	72,6

\* Alderdiari baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.

Ikusi dugunez, adina faktore bat da jatorriz «Lehen Hezkuntzako» adiskide direnak galtzeko; lanbideari dagokionez ere, beste horrenbeste gertatzen da, «ikasleak» bakarrik baitira hala adierazten dutenak; «langileentzat» eta «langabeentzat» balio horrek indarra galtzen du funtsean (27. taula).

**27. taula**

LAGUNEN JATORRIA, LANBIDEAREN ARABERA (%)

«ZURE LAGUN ONENAK EZAGUTU DITUZU...»	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LANEAN ARI DA	LANGABEA
Lehen Hezkuntzako ikaskide zirenean	76,1	59,8	62,4	61,4

\* Alderdiari baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.

### 2.1.4.3. Lagunekin zertaz hitz egiten den

EAEko hamar gaztetik seik lagunekin edozertaz hitz egiten dute. Gazteen heren batek —%36,0k— dio «lagunekin gai batzuei buruz ez duela hitz egiten edo nahiago duela ez hitz egin». Intimitaterik ez izatea, konfiantzarik ez izatea edo adiskidetasuna zer den ez baloratzea izan daitezke horrela jokatzeko arrazoietakoko batzuk (8. grafikoa).

**8. grafikoa**

BA AL DAGO LAGUNEKIN HITZ EGITERAKOAN SAIHESTEN  
DUZUN EDO EZ TRATATZEA NAHIAGO DUZUN GAIRIK? (%)



### Lagunekin hitz egiterakoan saihesten diren gaiak

«Barru-barrukoak/pertsonalak» eta «familiarrak» dira lagunekin izandako elkarrizketetan hitz egin nahi ez diren oinarrizko gaiak; hau da, ingurune pertsonal itxienari dagokion guztia da lagunekin gutxien hitz egiten dena. «Politika» saihestu beharreko beste gai handietako bat da; Euskadik bizi duen egoera politiko eta sozial berezia izan daiteke gazteek irekiak izan baino diskretuak izatea nahiago izateko arrazoietakoko bat. Eta aipatzeko interesgarria iruditzen zaigun beste emaitza da «Ed/Ee» erantzunak atera duen ehuneko handia, %31,0 hain zuzen; gure ustez, gazteei zaila egiten zaie beren berdinkideekin zertaz hitz egiten ez duten zehaztea. Badakite zenbait gauza isilean gordetzen dituztela, gai batzuei buruz ez dutela besteekin hitz egiten, baina kosta egiten zaie zeintzuk diren zehaztea (28. taula).

**28. taula**

LAGUNEKIN HITZ EGITERAKOAN SAIHESTEN DIREN EDO EZ TRATATZEA NAHIAGO DIREN GAIK (%)

«LAGUNEKIN HITZ EGITERAKOAN SAIHESTEN DITUZUN GAIK»	%
Intimoak/pertsonalak	28,8
Familia	20,0
Politika	13,7
Lana	1,8
Sexua	1,4
Ikasketak	1,0
Bestelakoak	2,3
Ed/Ee	31,0
<b>PORTZENTAJEKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

\* n = lagunekin hitz egiterakoan gai jakin batzuk saihesten dituzten edo ez tratatzea nahiago duten gazteak.

Zalantzarik gabe eta ondoko taula kontuan hartuta, mutilak neskek baino askoz ere isilagoak dira lagunei beren konfidentziak kontatzeko orduan (29. taula).

**29. taula**

LAGUNEKIN HITZ EGITERAKOAN SAIHESTEN DEN EDO EZ TRATATZEA NAHIAGO DEN GAIK DAGOEN ALA EZ, GENEROAREN ARABERA (%)

«LAGUNEKIN GAI BATZUEI BURUZ HITZ EGITEA SAIHESTEN DUZU, EDO NAHIAGO DUZU EZ HITZ EGIN?»	GIZONA	EMAKUMEA
BAI	41,4	30,6

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa da lurralde irekiena, bertako gazteak dira interesatzen zaizkien edo kezkatzen dituzten gaiet buruz lagunekin hitz egiteko joera handiena dutenak (30. taula).

### 30. taula

LAGUNEKIN HITZ EGITERAKOAN SAIHESTEN DEN EDO EZ TRATATZEA NAHIAGO DEN GAIRIK DAGOEN ALA EZ, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)


«LAGUNEKIN GAI BATZUEI BURUZ HITZ EGITEA SAIHESTEN DUZU, EDO NAHIAGO DUZU EZ HITZ EGIN?»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
BAI	34,7	38,9	31,7

#### 2.1.4.4. Arazo pertsonalak eta baliabide afektiboak

Gazteek lagunez duten iritzia aztertzean urrats bat gehiago eman eta ikusi dugu, beharrezkoa izanez gero, laguntzeko ere badituztela; erantzun guztiz sendo batek —%95,6— erakusten du «gazteak barru-barruko arazo bat balu, lagunei kontatu eta laguntza eskatu ahal izango liekeela». Hau da, lagunak arazoak kontatzeko ere badira, baina muturreko egoeretan; badirudi adiskidetasuna gai larri edo zailtarako bakarrik dela, eta lagunei guztia kontatzea gehiegikeria dela. «Familia» ere —%93,1— inkestatuek beren barru-barruko arazoak kontatzeko duten euskarri handi gisa ageri da. «Ikaskideak edo lankideak» oso urrun azaltzen dira —%50,3— barru-barruko arazoak kontatzeko baliabide gisa (9. grafikoa).

### 9. grafikoa

ARAZO INTIMOREN BAT BAZENU, KONTATU ETA LAGUNTZA ESKATU AHAL IZANGO ZENUKE... (%)



\* Alderdietako bakoitzari baiezkotza eman dioten pertsonen ehunekoa.

«Ikaskideengandik edo lankideengandik» jaso daitekeen laguntzari dagokionez, emakumeak dira hura eskatzeko joera handiena dutena; ziur aski ikaskide edo lankide horiek adiskidetzat gehiago hartzen dituztelako izango da (31. taula).

### 31. taula

BALIABIDE AFEKTIBOAK, GENEROAREN ARABERA (%)

«ARAZO INTIMOREN BAT BAZENU, KONTATU ETA LAGUNTZA ESKATU AHAL IZANGO ZENUKE...»	GIZONA	EMAKUMEA
Ikaskide edo lankideen artean	46,6	54,0

\* Alderdiari baiezko erantzuna eman dioten gazteen ehunekoa.

«Adiskidetasuna laguntzeko baliabide gisa» hartzeko orduan, adina ez da alderdi bereizle bat; alde horretatik, aztertutako edozein adinetan (15-29 urte) hala izan daitekeela uste dute, baina gazteenak zertxobait nagusitzen dira eta adinean gora egin ahala baliabide hori, gutxi bada ere, galduz doa.

Ez da gauza bera gertatzen «ikaskideak» laguntzeko baliabidetzat hartzearekin, ikusi dugunez gazteenak baitira —15-19 urte— premisa horrekin ados ageri direnak. Gazteak zaharitzen doazen neurrian urrundu egiten dira «ikaskide edo lankide» batek barru-barruko arazo intimo batean lagundu ahal izateko aukeratik (32. taula).

### 32. taula

BALIABIDE AFEKTIBOAK, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«ARAZO INTIMOREN BAT BAZENU, KONTATU ETA LAGUNTZA ESKATU AHAL IZANGO ZENUKE...»	15-19	20-24	25-29
Lagunartean	96,9	95,6	94,4
Ikaskide edo lankideen artean	60,4	47,6	45,1

\* Alderdietako bakoitzari baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.

Ia ez dago desberdintasunik lurraldeen artean «lagun» batek arazo intimo batean lagundu ahal izateko aukera baloratzeko orduan; hiruretan antzera baloratzen da.

Hala eta guztiz ere, arazo intimo baten aurrean eman dezakeen laguntza horri dagokionez «familia» baloratu behar denean, nolabaiteko aldea aurkitzen dugu Gipuzkoan, horretarako Arabak eta Bizkaiak erakusten dutena baino joera txikiagoa baitute han; izan ere Araban eta Bizkaian berdintsua da erantzuna (33. taula).

### 33. taula

BALIABIDE AFEKTIBOAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«ARAZO INTIMOREN BAT BAZENU, KONTATU ETA LAGUNTZA ESKATU AHAL IZANGO ZENUKE...»	ARABA	BIZKAIÀ	GIPUZKOA
Lagunartean	94,6	95,8	95,7
Familiartean	94,6	94,8	89,7

\* Alderdietako bakoitzari baiezeko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.

Gizarte-klasea bada elementu berezile bat «arazo intimo baten aurrean ikaskideak edo lankideak baliabidetzat» hartzeko orduan; maila «altua/ertain-altuan» baiezekoak maila «ertain-baxua/baxuan» baino dezente gehiago dira. Zenbat eta gizarte-klase baxuagokoa izan, orduan eta guxtiago hartzen dira kontuan «ikaskideak edo lankideak» arazo baten aurrean laguntzeko (34. taula).

### 34. taula

BALIABIDE AFEKTIBOAK, GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)

«ARAZO INTIMOREN BAT BAZENU, KONTATU ETA LAGUNTZA ESKATU AHAL IZANGO ZENUKE...»	ALTUA/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
Ikaskide edo lankideen artean	49,5	51,4	40,2

\* Alderdiari baiezeko erantzuna eman dioten gazteen ehunekoa.

Lanbideak ere «arazo intimo baten aurrean ikaskideek edo lankideek» duten zereginari buruz batzuek zein besteek pentsatzen dutenaren gaineko informazioa eskaintzen digu. Langa-beak (%30,0) dira iritzi horrekin bat gutxien datozenak, besteak beste lanean ari ez badira ziur aski antzinako ikaskide edo lankideengandik urrundu direlako edo haien aldetik desengainu bat jaso zutelako. Ikasleak dira %58,6rekin, «ikaskideek edo lankideek» arazo intimoen aurrean laguntza eman dezaketela gehien uste dutenak (35. taula).

### 35. taula

BALIABIDE AFEKTIBOAK, LANBIDEAREN ARABERA (%)

«ARAZO INTIMOREN BAT BAZENU, KONTATU ETA LAGUNTZA ESKATU AHAL IZANGO ZENUKE...»	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LANEAN ARI DA	LANGABEA
Ikaskide edo lankideen artean	58,6	43,7	50,5	30,0

\* Alderdiari baiezko erantzuna eman dioten gazteen ehunekoa.

## 2.1.5. Indarkeria ohiko ingurunean

### 2.1.5.1. Indarkeria asteburuan

«Asteburuetan ibiltzen diren ingurunean indarkeria» dagoela uste al duten dioen galderari %52,9k erantzun dio «ezetz» eta %44,8k «baietz» (Ed/Ee, %2,3).


«Asteburuetan ibiltzen diren ingurunean izan daitekeen indarkeriari» dagokionez, mutilak dira batez ere baieztapen horrekin ados daudenak, %50,4, nesken %39,2ren aldean.

Zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta adostasun handiagoa «asteburuetan ibiltzen diren ingurunean indarkeria dagoela» dioen premisarekin (%59,7). Baieztapen horrekin ados

dauden gazteen portzentajeak behera egiten du adinean gora egin ahala: 25 eta 29 urte bitartekoengan proportzioa %32,7koa da eta 20 eta 24 urte bitartekoengan, %44,7koa.

#### 2.1.5.2. Azken hamabi hilabeteetan nahasita egon diren borroka fisikoen kopurua

Inkestari erantzun dioten gazteen %7,6k dio «azken hamabi hilabeteetan borroka fisikoren batean nahasita egon dela», ezetz erantzun duen %91,8ren aldean. «Borroka egin dutela» adierazi dutenen artean, gehienetan «behin» bakarrik izan da, %4,6 (10. grafikoa).



Ohikoagoa da «azken urtean borroka fisiko batean nahasita egon dena» mutila izatea, baina bi generoek antzeko ehunekoak dituzte borroka-kopuruan nahiz borrokarik ez izatean (36. taula).

Zenbat eta adinez nagusiagoa izan, orduan eta ehuneko txikiagoak «borroka fisikoetan» nahasita egon direnen artean (37. taula).

**36. taula**

AZKEN HAMABI HILABETEETAN NAHASITA EGON DIREN BORROKA FISIKOEN KOPURUA,  
GENEROAREN ARABERA (%)

«AZKEN HAMABI HILABETEETAN, ZENBAT ALDIZ EGON ZARA BORROKA FISIKO BATEAN NAHASITA?»	GIZONA	EMAKUMEA
Bat ere ez	89,6	94,0
Bat	5,9	3,3
Bi edo hiru	2,9	0,9
Lau edo gehiago	1,0	1,3
Ed/Ee	0,7	0,6
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

**37. taula**


AZKEN HAMABI HILABETEETAN NAHASITA EGON DIREN BORROKA FISIKOEN KOPURUA,  
ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«AZKEN HAMABI HILABETEETAN, ZENBAT ALDIZ EGON ZARA BORROKA FISIKO BATEAN NAHASITA?»	15-19	20-24	25-29
Bat ere ez	86,3	92,5	95,5
Bat	6,5	4,6	3,0
Bi edo hiru	3,6	1,6	0,6
Lau edo gehiago	3,1	0,5	0,2
Ed/Ee	0,5	0,7	0,6
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

### 2.1.5.3. Azken hilabeteetan bizi nahi ez zuten egoeraren bat bizi izan dute eskolan

Inkestari erantzun dioten gazteetatik inkesta egiteko momentuan ikasle zirenen %78,6k adierazten du ez duela ikaskideengandik inongo tratu txarrik jaso. %21,4k «baietz» erantzun dio «eskolan tratu txarrak jasan izanari» buruzko galderari; hau da, 5 gaztetik batek nolabaiteko eskola-jazarpena jasan izana adierazi du.<sup>3</sup>

«Adar-jotzeak» dira ikasleek ikastetxeetan ikaskideen aldetik jasaten dituzten oinarrizko ekintzak, baina %7,0k gainera dio «ikasle batek edo ikasle-talde batek gauza mingarriak edo desatseginak egin dizkiola»; halaber, %3,2k «taldetik baztertu egin dutela» sentitzen du (11. grafikoa).



\* Alderdietako bakoitzari baiezkotzat eman dioten pertsonen ehunekoa.

Era berean, baieztatu daiteke adin-taldearen arabera ez dagoela alderik eskolako tratu txar izendatu dugun horri dagokionez. Izan ere, eskolako tratu txarrak lehen pertsonan bizi izan dituzten 15 eta 19 urte bitarteko gazteen ehunekoa 30 urteetatik gertu dauden gazteenaren antzekoa da oso (%22,0 eta %22,3, hurrenez hurren) (38. taula).

<sup>3</sup> «Ikasle bat eskolan tratu txarrak jasotzen ari dela diogu beste ikasle edo ikasle talde batek gauza mingarri edo desatseginak egiten dizkionean. Tratu txartzat hartzen da baita pertsona horri gustatzen ez zaion modu batean behin eta berriz adarra jotzea edo taldetik baztertua izatea. Ez dago tratu txarrik indar bera duten bi ikasle liskarrean edo borrokan aritzen badira. Ez dago tratu txarrik burla modu adiskidetsuan egiten denean.» Health Behaviour in School Aged Children (HBSC-2002). OME eta Osasun eta Kontsumo Ministerioa.

### 38. taula

NORBERAK BIZI IZAN DITUEN DESIRATU GABEKO EGOERAK, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«TRATU TXARRIK BIZI IZAN DUZU ESKOLAN?»	15-19	20-24	25-29
BAI	22,0	20,4	22,3

\* n = ikasleak.


#### 2.1.5.4. Azken hilabeteetan eskolan beste ikasle batzuk ikusi dituzte bizi nahi ez zuten egoeraren bat bizi izaten

Inkesta egin duten ikasleen %44,0k eskolan tratu txarrak igarri dituzte inguruko beste pertsona batzuegan. Nabaritu dugunez, ikuspegia erabat desberdina da norberak jasatean edo besteei gertatzen zaiela antzematean eta ziur aski tratu txar hori errazago ikusten da jasaten dutenak beste batzuk direnean, norbera denean baino.

Era berean, besteengan antzematen diren «eskolako tratu txarren» egoeren tipologiak eragin handiagoa du, norberak jasaten dituen tratu txarrak direnean baino. «Adar-jotzeak», «gauza mingarriak entzutea» eta «taldetik baztertua izatea» eskala handiagoan ikusten dira beste batzuei egiten zaizkienean (12. grafikoa).

### 12. grafikoa

BESTE IKASLE BATZUEK BIZI IZANDAKO DESIRATU GABEKO EGOERAK (%)



\* Alderdietako bakoitzari baiezkotza eman dioten pertsonen ehunekoa.

Gazteak urteak betetzen dituen eta eskola uzten duen neurrian, urrutiago geratzen zaio «eskolan tratu txarrak» ikusi izana; hala ere, azpimarratu behar dugu 15-19 urteko bi gaztetik batek baino gehiagok halakoak ikusi izana adierazi duela (39. taula).

### 39. taula

BESTE IKASLE BATZUEK BIZI IZANDAKO DESIRATU GABEKO EGOERAK,  
ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«ESKOLAN TRATU TXARRAK IKUSI DITUZU?»	15-19	20-24	25-29
BAI	57,4	36,7	22,3

\* n = ikasleak


## 2.1.6. Elkarteak eta gizarte konpromisoa

### 2.1.6.1. Elkarte bateko kide izatea

Aztertutako unibertsoaren ia hiru laurden ez dira inolako elkartetakoak, edo beste modu batera esanda, 15etik 29 urtera bitarteko hiru gaztetatik bat baino gutxiago dira kulturaren, ki-rolen, ekologiaren eta abarren esparruko elkarte bateko kide (13. grafikoa).

### 13. grafikoa

ELKARTEREN BATEKO KIDE ZARA GAUR EGUN? (%)



Zalantzarik gabe, gizona (%33,1) aktiboagoa da elkartegintzan emakumea (%22,0) baino, hamaika puntu gehiago baititu.

«Gizarte-klasea» aldagaiak orientatzeko informazioa ematen digu; sozialki zenbat eta beherago egon, orduan eta txikiagoa da elkarteren bateko kide diren gazteen kopurua. Zentzu horretan, maila «altu/ertain-altuko» gazteak (%34,9) dira elkartegintza-mugimenduarekiko lotura handiagoa dutenak, gizarte klase ertainekoek (%25,3) eta ertain-baxu/baxukoek (%24,4) baino.

#### 2.1.6.2. Jendearenganako konfiantza

«Jende gehienarengan konfiantza izan daiteke» baieztapenari dagokionez, mesfidantza sozial handia ikusi dugu, %59,4k «ez» erantzun baitu, konfiantza dutenen %33,7ren aldean (Ed/Ee, %6,9).

«Jende gehienarengan konfiantza izan daiteke» baieztapenari dagokionez, ikusi dugunez lurralde mesfidatiena Bizkaia da (%29,4), eta Araban (%38,4) eta Gipuzkoan (%38,9) iritzia antzekoa da.

#### 2.1.6.3. Ezgaitasun fisiko edo mentalari buruzko iritzia


Gazteei atal honetan planteatu genien azken galdera beren kideen ezgaitasun fisiko edo mentalari buruzkoa da.

Inkestatuen %84,6k dio bere lagunartean inork «ez duela gaixotasun kronikorik edo ezgaitasunik» (14. grafikoa).

Hala ere, beren lagunen artean edota familian «ezgaitu fisiko/mental» bat duten gazteei dagokienez, haiekiko inplikazio/laguntza zenbaterainokoa den jakin nahi genuen. Alde horretatik, ikusi dugunez, egoera horretan dauden gazteen ia erdiak «ahal duen guztietan laguntzeko» joera du. Gainera, haien ikuspegitik, ustezko «ezgaitu fisiko/mentalen» laurdenak baino gehiagok «ez du laguntzarik behar» (40. taula).

**14. grafikoa**

BA AL DAGO EZGAITU FISIKO EDO MENTALEN  
BAT ZURE LAGUNARTEAN? (%)

**40. taula**

EZGAITASUN FISIKO EDO MENTALA DUTEN LAGUNEI EMATEN ZAIEN LAGUNTZA (%)

«LAGUNTZEN AL DIOZU EGITEKOREN BATEAN?»	%
Bai, ahal dudan guztietan	48,1
Eskatzen didanean bakarrik	18,4
Ez, nahiago dut ez lagundu	0,9
Ez du laguntzarik behar	27,4
Ed/Ee	5,2
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

\* n = lagunartean ezgaitu fisiko edo mentalen bat duten pertsonak.

## 2.2. ALKOHOLA, TABAKOA, DROGAK ETA GAUA

### 2.2.1. Tragoak hartzera irtetea

Euskadiko gazteek alkohola kontsumitzen dute gauez «tragoak hartzera» irteten direnean, nagusiki taberna eta diskoteketan (%60,9k). %26,8 «hasieran litrotan edo kale-zurrutean ibili eta gero taberna edo diskoteketara» joaten dira. %2,4 baino ez dira gau osoan litroak egiten ibiltzen. %6,0 ikuskizunetara joaten da eta %1,1ek bakarrik adierazten du «gauez ez dela parrandara irteten» (41. taula).

**41. taula**  
GAUEKO AISIARAKO AZTURAK (%)

«PARRANDARA IRTETEN ZARENEAN, OHIKOENA DA...»	%
Taberna edo diskoteketara joatea	60,9
Litroak egitea eta gero diskoteketara joatea	26,8
Ikuskizunetara joatea	6,4
Gau osoa litroak egiten pasatzea	2,4
Gauez ez da parrandara irteten	1,1
Bestelakoak	0,6
Ed/Ee	1,8
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

Aipatu beharra dago badagoela alderik «edateko» moduan, gazteen adinaren arabera. Alkoholaren kontsumoa nagusiki taberna eta diskoteketan gauzatzen da (42. taula) baina, adinean gora egiten den heinean, aukera hori garrantzia hartuz joaten da gainerakoan aldean.

Alkoholarekiko harremana «gau osoan litroak egiten» edo «hasieran litroak egiten eta gero taberna eta diskoteketara joaten» gauzatzea gehienbat gazteenen kohorteari lotuta dago. Aztura horiek pixkanaka baztertu egiten dira, urteak betetzen diren neurrian (42. taula)

#### 42. taula

GAUEKO AISIARAKO AZTURAK, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«PARRANDARA IRTETEN ZARENEAN, OHIKOENA DA...»	15-19	20-24	25-29
Taberna edo diskoteketara joatea	45,3	59,9	74,9
Litroak egitea eta gero diskoteketara joatea	36,3	30,8	14,2
Ikuskizunetara joatea	7,8	4,6	7,5
Gau osoa litroak egiten pasatzea	5,7	1,1	1,3
Gauetz ez da parrandara irteten	1,8	0,9	0,9
Bestelakoak	0,5	0,6	0,6
Ed/Ee	2,6	2,2	0,6
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

### 2.2.2. Alkohola kontsumitzeko legezko adina zein den jakitea

Azterketak 15etik 29 urtera bitarteko inkestatuak hartzen ditu barnean eta interesgarria iruditu zitzaigun haiek leku publikoetan alkohola saldu eta kontsumitzeari buruzko legea zein neurritan ezagutzen zuten jakitea. Alde horretatik egiaztatu dugu inkesta egin duten gehienek, %88,8k, badakitela legezko adina 18 urtekoa dela; halere, gazteen %10,0ek baino gehiagok ez daki hori dela adina, edo nahastuta dabil gai horretan (43. taula).

**43. taula**

ALKOHOLA KONTSUMITZEKO LEGEZKO  
ADINA ZEIN DEN JAKITEA (%)

«ESAN DIEZADAKEZU ZER ADINETAN DEN LEGEZKOA LOKAL BATEAN ALKOHOLA KONTSUMITZEA?»	%
<15 urte	0,5
16 urte	7,8
17 urte	0,4
18 urte	88,8
>18 urte	0,2
Ed/Ee	2,3
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

**2.2.3. Etxeratzeko jarritako ordua betetzea**

Inkesta egin duten 10 gaztetatik ia 8ri gurasoek ez diete etxeratzeko ordurik jartzen gauzez irteten direnean. Etxeratzeko ordua dutenen ehunekotik —%20,0—, erdia baino zertxobait gehiago (%11,9) «inoiz ere ez» da iristen etxera hitzartutako ordua baino beranduago; gainerakoek maiztasun desberdinekin egiten dute, baina %2,1 bakarrik iristen da «beti» berandu (44. taula).

Gizonek eta emakumeek antzeko ereduari jarraitzen diete gauzez etxeratzeko ordu bat izateko edo ez izateko orduan, bai eta ezarritako araua onartu edo hausteko mailan ere; hala eta guztiz ere, neskek ordutegia betetzeko joera handiagoa dute eta mutilak arau-urratzaileagoak eta gurasoen aldetik ordutegi-arau gutxiagorekin ageri dira (45. taula).

## 44. taula

ETXERA BUELTATZEKO EZARRITAKO ORDUAN ETXERATZEA (%)

«GURASOEK GAUEZ ETXERA BUELTATZEKO ORDURIK EZARTZEN BADIZUTE, ADOSTUTAKO ORDUA BAINO ORDUBETE BERANDUAGO HELTZEN ZARA?»	%
Inoiz ere ez	11,9
Batzuetan	5,1
Oso gutxitan	1,1
Beti	2,1
Ez diote ordurik jartzen	78,7
Ed/Ee	1,1
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

## 45. taula

ETXERA BUELTATZEKO EZARRITAKO ORDUAN ETXERATZEA, GENEROAREN ARABERA (%)

«GURASOEK GAUEZ ETXERA BUELTATZEKO ORDURIK EZARTZEN BADIZUTE, ADOSTUTAKO ORDU BAINO ORDUBETE BERANDUAGO HELTZEN ZARA?»	GIZONA	EMAKUMEA
Inoiz ere ez	9,6	14,3
Batzuetan	5,6	4,7
Oso gutxitan	1,4	0,9
Beti	1,6	2,7
Ez diote ordurik jartzen	80,7	76,7
Ed/Ee	1,1	0,7
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

20tik 29 urtera bitarteko gazteek antzeko portaera dute helduek ezarritako gaueko arauak betetzeko orduan: ia ez dute ordutegi-murrizketarik eta halakoak dituztenean, bete egi-ten dituzte. Alde handiena inkestatu gazteenek ematen dute; zentzu horretan, 15etik 19 urtera bitarteko 10 gaztetatik ia 6ri gauez etxeratzeko ordua jartzen diete. Eta, bestalde, ordutegia du-tenen herenak baino gehiagok «beti» betetzen du (46. taula).

#### 46. taula

ETXERA BUELTATZEKO EZARRITAKO ORDUAN ETXERATZEA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«GURASOEK GAUEZ ETXERA BUELTATZEKO ORDURIK EZARTZEN BADIZUTE, ADOSTUTAKO ORDUA BAINO ORDUBETE BERANDUAGO HELTZEN ZARA?»	15-19	20-24	25-29
Inoiz ere ez	35,5	4,2	1,5
Batzuetan	14,0	2,6	0,9
Oso gutxitan	2,1	1,3	0,2
Beti	5,7	1,3	0,2
Ez diote ordurik jartzen	42,0	89,6	96,4
Ed/Ee	0,8	1,1	0,9
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


#### 2.2.4. Alkoholari, tabakoari eta drogei buruzko premisekiko adostasun maila

Alkoholaren eta tabakoaren kontsumo-azturek arian-arian kontsumitzailearen forma fi-sikoari loturiko hainbat gizarte-balorazio sortzen dituzte. Beraz, bi substantzia horiek «gizenta-sunarekin» eta «argaltasunarekin» duten erlazioarekiko inkestatuek duten adostasun-mailari buruzko iritzia jaso nahi izan dugu.

Lortutako emaitzetatik, ondoriozta dezakegu gazteentzat alkohol gehiegi edateak «loditu egiten duela» —6,93 puntu 10etik, 0 «erabateko desadostasuna» esan nahi duelarik eta 10ek «erabateko adostasuna»—, neurritz edateak bezala —6,75 puntu— («garagardo bat noizean behin»). Tabakoari dagokionez, ateratzen dugun ondorioa da ez dagoela oso garbi «erretzeari uzteak loditzen duen», 5,67rekin; aldiz, gutxi dira «erretzeak argal mantentzen duela» pentsatzen dutenak, hain zuzen, 2,62 (15. grafikoa).

15. grafikoa

ALKOHOLARI, TABAKOARI ETA DROGEI BURUZKO PREMISAK



\* Alderdietako bakoitzari emandako puntuazioa, 0tik 10era doan eskalan (0k «erabateko desadostasuna» esan nahi du, eta 10ek «erabateko adostasuna» esan nahi du).

Gizonek eta emakumeek «erretzeak argal mantentzen du» premisa baloratzean duten aldeia ez da adierazgarria.

Adin zenbat eta handiagoak nolabaiteko lotura du «alkoholak loditu egiten du nahikoa edanez gero» eta «noizean behin garagardo bat edateak ez du loditzen» esaldien pertzepzio desberdinarekin, zenbat eta urte gehiago izan orduan eta handiagoa baita bi adierazpen horiekiko adostasun-maila ere.

Hala ere, adinean gora egin ahala behera egiten du planteatutako beste bi kontzeptuekiko adostasunak: alegia «erretzeari uzteak loditu egiten du» eta «erretzeak argal mantentzen du», bi horiek aldeko iritzia galtzen baitituzte adin-talde zaharrenetan. Dena den, planteatutako baieztapen guztiek balorazio nahiko antzekoa dute adin-talde guztietan (47. taula).

## 47. taula

ALKOHOLARI, TABAKOARI ETA DROGEI BURUZKO PREMISAK, ADIN TALDEEN ARABERA

ONDOKO ESALDIEKIKO ADOSTASUN MAILA	15-19	20-24	25-29
Alkoholak loditu egiten du dezente edanez gero	6,26	7,20	7,14
Noizean behin garagardo bat edateak ez du loditzen	6,35	6,84	6,97
Erretzeari uzteak loditu egiten du	5,91	5,78	5,35
Erretzeak argal mantentzen du	3,02	2,58	2,34

\* Alderdietako bakoitzari emandako puntuazioa, 0tik 10era doan eskalan (0k «erabateko desadostasuna» esan nahi du, eta 10ek «erabateko adostasuna» esan nahi du).

### 2.2.5. Erretzeak, gehiegi edateak eta legez kanpoko drogak hartzeak eragiten dituen kalteei buruzko adostasun maila

Alkohola, tabakoa eta drogak kontsumitzearen ondorio kaltegarrii buruzko hainbat premisekiko adostasun-mailari dagokionez, oro har esan dezakegu inkesta egin dutenen artean bat datozen erantzunen kopurua erabatekoa dela; planteatu diren aldagaietatik zortzirekin ados daudela baloratu du gazteen %91,1ek. «Ez da edozein droga probatu behar» %83,8raino jaisten da eta «bere ingurunean legez kanpoko drogak erraz lor ditzake» %75,4ra; «alkohola edateak sozialki harremanak izaten laguntzen dio» planteamendua azpian gertzen da oso (%43,4), eta azkenik, «tabakoa erretzeak sozialki harremanak izaten laguntzen dio» dago, %7,4 bakarrik.

Hortaz, legez kanpoko drogak eskuratzeko erraztasuna dago eta oro har drogak kaltegarriak direla uste da, baina hori alkoholaren kasuan ñabartu egiten da, harreman sozialetan lagungarri baita (48. taula).

Generoa kontuan harturik, neskek dira «ez da edozein droga probatu behar» premisarekiko adostasun-maila handiagoa erakusten dutenak, %87,6rekin mutilen %80,0ren aldean. Bestalde, mutilentzat errazagoa da «legez kanpoko drogak erraz lortzea» (%79,7), emakumeentzat baino, hauek %71,2 baitira (49. taula).

**48. taula**

KONTSUMO AZTUREI BURUZKO USTEAK (%)

KONTSUMO AZTUREI BURUZKO USTEAK	ADOS DAUDE
Tabakoa erretzea kaltegarria da zure osasunerako	98,7
Alkohol gehiegi edatea kaltegarria da zure osasunerako	98,1
Kokaina hartzea kaltegarria da zure osasunerako	97,9
Estasia hartzea kaltegarria da zure osasunerako	97,7
Besteen kea arnastea kaltegarria da zure osasunerako	95,0
Tabakoak mendekotasuna sortzen du	94,9
Haxixa erretzea kaltegarria da zure osasunerako	92,4
Parrandara irten daiteke alkoholik edan gabe	91,1
Ez da edozein droga probatu behar	83,8
Zure ingurunean legez kanpoko drogak erraz lor ditzakezu	75,4
Alkohola edateak sozialki harremanak izaten laguntzen dizu	43,4
Tabakoa erretzeak sozialki harremanak izaten laguntzen dizu	7,4

\* Esaldietako bakoitzarekin ados daudela dioten pertsonen ehunekoa.

**49. taula**

KONTSUMO AZTUREI BURUZKO USTEAK, GENEROAREN ARABERA (%)

KONTSUMO AZTUREI BURUZKO USTE HAUEKIKO ADOSTASUN MAILA	GIZONA	EMAKUMEA
Ez da edozein droga probatu behar	80,0	87,6
Zure ingurunean legez kanpoko drogak erraz lor ditzakezu	79,7	71,2

\* Esaldietako bakoitzarekin ados dauden pertsonen ehunekoa.

## 2.2.6. Jarduera ludikoak aldatzea

Gazteen erdiari baino gehiagori (%53,0) gustatuko litzaioke «asteburuan egiten dituen jardueren ordeztu beste mota batekoak egitea», bere azturak aldatuko ez lituzkeen %45,1 gutxietan gabe (Ed/Ee, %1,9).

Beste era bateko jarduerak egin nahi dituztela erantzun duten elkarriketatuen artean «kirola» da aukera alternatibo nagusia —%29,0—; horrekin batera, «gehiago bidaiatzea» %17,4rekin, eta «mendia, atari zabaleko jarduerak» %15,4rekin dira nabarmenenak (50. taula).

**50. taula**

ASTEBURUAN EGIN NAHI LITUZKETEN JARDUERAK (%)

«ZER JARDUERA MOTA EGIN NAHIKU ZENUKE ASTEBURUAN?»	%
Kirol gehiago	29,0
Gehiago bidaiatzea	17,4
Mendia, atari zabala	15,4
Bilbao Gaua bezalakoak	2,7
Zinema	2,7
Lagunekin irtetea	2,2
Kultura-eskaintza	1,9
Musika, kontzertuak	1,8
Hondartza	1,8
Antzerkia	1,3
Tailerrak, ikastaroak	1,1
Bestelakoak	0,7
Ed/Ee	22,0
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

\* n= asteburuan beste jarduera mota bat egin nahi luketen pertsonak.

## 2.3. OSASUNA ETA PRAKTIKA OSASUNGARRIAK

### 2.3.1. Norberaren osasunari buruzko ikusmoldeak

#### 2.3.1.1. Gorputz-irudia

##### a) Pisia eta altuera

EAEko gazteek aitortu duten pisua, batez beste, 66 kg-koa da; pisu-tarteen arabera, gehien nagusitzen dena «50-60» kg-ko tartean dagoen jendea da, inkestatuen %33,6 hain zuzen.

EAEko gazteek aitortu duten altuera, batez beste, 171 cm-koa da; «161-170» cm-ko tartea da gazte gehien dituen (%37,3) (51. taula).

**51. taula**  
PISUA ETA ALTUERA (%)

PISUA	%	ALTUERA	%
<50 kg	5,4	<150 cm	0,2
50-60 kg	33,6	150-160 cm	15,7
61-70 kg	27,0	161-170 cm	37,3
71-80 kg	20,6	171-180 cm	30,9
>80 kg	12,1	>180 cm	15,3
Ed/Ee	1,3	Ed/Ee	0,6
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

Gizonen pisuaren batez bestekoa 74,13 kg-koa da eta altuerarena 176,85 cm-koa. Emakumeen pisuaren batez bestekoa, berriz, 58,63 kg-koa eta altuera 164,58 cm-koa.

Adinean gora egin ahala, ia altuera berari eusten zaio, baina pisua hartzen da (52. taula).

**52. taula**  
PISUA ETA ALTUERA, ADIN TALDEEN ARABERA

	15-19	20-24	25-29
Batez besteko pisua (kg)	63,24	66,98	68,29
Batez besteko altuera (cm)	169,51	171,38	170,90

*b) Norberaren xarmaren eta norberaren gorputzaren pertzepzioa*

Gazteen %67,3k dio, norberaren xarma hautemateko moduari dagokionez, «arrunta» dela, %22,5ek ordea uste du «nahiko erakargarria» dela (53. taula).

**53. taula**  
NORBERAREN XARMAREN PERTZEPZIOA (%)

«ZURE USTEZ, NOLAKOA ZARA?»	%
Oso erakargarria	4,7
Nahiko erakargarria	22,5
Arrunta	67,3
Ez dut ia xarmarik	2,6
Ez naiz batere erakargarria	0,6
Ed/Ee	2,3
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

Ildo horretan, %66,0k pentsatzen du bere gorputzak «neurri egokia duela», «lodi samarra» dela sentitzen duen %19,4ren aldean (54. taula).

**54. taula**  
NORBERAREN GORPUTZAREN PERTZEPZIOA (%)

«ZURE USTEZ, NOLAKOA DA ZURE GORPUTZA?»	%
Argalegia	1,9
Argal samarra	10,6
Neurri egokia du	66,0
Lodi samarra	19,4
Lodiegia	1,1
Ez du erantzun	1,0
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

Emakumeek eta gizonek antzera hautematen dute «neurri egokia dutela» beren gorputzari dagokionez; baina gizonei gehiago iruditzen zaie «argal samarrak» daudela, eta emakumei «lodi samarrak» daudela iruditzen zaie gizonek erantzuten dutenaren aldean (55. taula).

**55. taula**  
NORBERAREN GORPUTZAREN PERTZEPZIOA, GENEROAREN ARABERA (%)

«ZURE USTEZ, NOLAKOA DA ZURE GORPUTZA?»	GIZONA	EMAKUMEA
Argalegia	2,0	1,9
Argal samarra	13,9	7,3
Neurri egokia du	66,2	65,8
Lodi samarra	15,6	23,1
Lodiegia	0,9	1,4
Ez du erantzun	1,4	0,6
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Nork bere buruaren xarmaz duen pertzepzioak zerikusia du baita gizarte-klasearekin ere. Norberaren xarmak gizarte-klasearekin batera egiten du gora (56. taula).

### 56. taula

NORBERAREN XARMAREN PERTZEPZIOA, GIZARTE KLAUSEAREN ARABERA (%)

«ZURE USTEZ, NOLAKOA ZARA?»	ALTU/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
Oso erakargarria	5,8	4,1	6,7
Nahiko erakargarria	27,0	21,2	14,7
Arrunta	62,8	70,2	65,3
Ez dut ia xarmarik	2,1	2,6	6,7
Ez naiz batere erakargarria	0,2	0,6	4,0
Ed/Ee	2,1	1,4	2,7
<b>PORTZENTAJEKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


#### c) Gorputz-irudian eragina duten alderdiak

Norberaren gorputz-irudian eragin handiena duena «bere uste osoak» dira, %48,9rekin; urrun geratzen dira «familiarren», «lagunen» eta «komunikabideen» iritziak, %12,4tik %11,8ra bitarteko ehunekoak baitira arlo horietan. Bitxia bada ere, inkestatuen %14,1ek «ez daki» bere gorputz-irudian eragina izan dezaketen alderdiak zehazten (16. grafikoa).

Gizonek nahiz emakumeek beren itxura fisikoa/gorputz-irudia aldatzen dute edo ez, lehenik «beren uste osoen» arabera, baina emakumeengan «komunikabideek» eragin handiagoa dute (57. taula).

**16. grafikoa**

NORBERAREN GORPUTZ IRUDIAN ERAGINIK HANDIENA DUTEN FAKTOREAK (%)

**57. taula**NORBERAREN GORPUTZ IRUDIAN ERAGINIK HANDIENA DUTEN FAKTOREAK,  
GENEROAREN ARABERA (%)

«FAKTORE HAUETATIK, ZEIN USTE DUZU DELA ZURE GORPUTZ IRUDIAN GEHIEN ERAGITEN DUENA?»	GIZONA	EMAKUMEA
Zure uste osoak	47,8	49,9
Familia	13,2	11,6
Lagunak	13,7	10,8
Komunikabideak	8,6	15,0
Ez daki	15,6	12,7
Ez du erantzun nahi	1,1	0,0
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Adinean gora egiteak funtsezko aldagaia izaten jarraitzen du gorputz-irudian eragina duen alderdi gisa «norberaren uste osoei» ematen ari zaien garrantzian; «lagunen» eraginak, berriz, behera egiten du (58. taula).

### 58. taula

NORBERAREN GORPUTZ IRUDIAN ERAGINIK HANDIENA DUTEN FAKTOREAK,  
ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«FAKTORE HAUETATIK, ZEIN USTE DUZU DELA ZURE GORPUTZ IRUDIAN GEHIEN ERAGITEN DUENA?»	15-19	20-24	25-29
Zure uste osoak	41,0	49,8	54,1
Familia	12,7	11,9	12,5
Lagunak	20,8	10,3	7,6
Komunikabideak	12,5	11,6	11,5
Ez daki	12,5	15,8	13,6
Ez du erantzun nahi	0,5	0,6	0,6
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

#### 2.3.1.2. Norberaren osasunaz eta forma fisikoaz gazteak duen pertzepzioa


EAEko 15etik 29 urtera bitarteko inkestatuen % 69,1ek bere «osasuna» «ona» dela uste du, «eskasa» dela usten duen %1,1en aldean (59. taula).

Ildo horretan, «bere forma fisikoaren egoera» itemari buruzko pertzepzioa «ona» da %48,7ren kasuan eta «onargarria» %30,6rentzat, «txartzat» duen %2,3ren aldean (17. grafikoa).

**59. taula**  
NORBERAREN OSASUNAREN PERTZEPZIOA (%)

«ZURE OSASUNA NOLAKOA DELA ESANGO ZENUKE?»	%
Bikaina	17,8
Ona	69,1
Onargarria	11,8
Eskasa	1,1
Ez du erantzun	0,2
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

**17. grafikoa**  
NORBERAREN FORMA FISIKOAREN PERTZEPZIOA (%)



Mutila neska baino baikorragoa da bere forma fisikoaren egoera hautemateko orduan; alde horretatik, «bikaina» dela uste dutenak nahiz «ona» dela uste dutenak nabarmentzen dira neurri handi batean emakumearen gainetik; honek «onargarritzat» eta «hala-holakotzat» hartzeko joera handiagoa du (60. taula).

**60. taula**

NORBERAREN FORMA FISIKOAREN PERTZEPZIOA, GENEROAREN ARABERA (%)

«ZURE FORMA FISIKOA NOLAKOA DELA ESANGO ZENUKE?»	GIZONA	EMAKUMEA
Bikaina	9,3	3,3
Ona	51,9	45,5
Onargarria	26,9	34,2
Hala-holakoa	9,6	14,3
Txarra	2,0	2,6
Ez daki	0,3	0,1
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Forma fisikoaren egoera «ona» dela batez ere maila «altu/ertain-altuan» ikusten den bezala, maila «baxu/ertain-baxuan» hautematen da «hala-holakoa» eta «txarra» dela (61. taula).


**61. taula**

NORBERAREN FORMA FISIKOAREN PERTZEPZIOA, GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)

«ZURE FORMA FISIKOA NOLAKOA DELA ESANGO ZENUKE?»	ALTUA/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
Bikaina	7,9	5,4	8,0
Ona	51,9	48,1	36,0
Onargarria	30,2	30,8	33,3
Hala-holakoa	8,4	13,7	13,4
Txarra	1,6	2,1	9,3
Ez daki	0,0	0,1	0,0
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

### 2.3.1.3. Norberaren eta ingurukoaren forma fisikoaren pertzepzioaren konparaketa

Oro har inkestatuek beren egoera fisikoa eta inguratzen dituztenena antzera ikusten dituzte; gehienek —ia %90,0ek— «bikaina, ona edo onargarria» dela erantzun dute. 100etik 10ek bakarrik hautematen du «hala-holakoa» dela eta %2,0k baino gutxiagok «txarra» dela. Gainera, nolabaiteko baikortasuna nagusitzen da «bikaina» balioak norberaren kasuan inguratzen dutenen kasuan baino kuota altuagoak lortzen dituenean, baina orokorrean desberdintasun gutxi nabaritzen dira beren forma fisikoa eta besteena baloratzean (18. grafikoa).



Inkestatutako neskek «inguruan dituztenen forma fisikoa» mutilek baino modu baikorragoan hautematen dute. Izan ere, «ona» aldagaiak %61,9 lortu du gizonezkoen %49,7ren aldean; gainera, gizonezkoek baino baxuago puntuatzen dituzte «hala-holakoa» eta «txarra», eta mutilen artean al-diz «onargarria» balioak bakarrik gainditzen du neskek ematen dioten puntuazioa (62. taula).

Gazteenak —15-19 urte— dira ingurukoak osasuntsuen ikusten dituztenak «bikaina» eta «ona» aldagaiei dagokienez; eta hurbileko pertsona horiek urteak bete ahala, gehiago ikusten dituzte «onargarri» eta «hala-holako» (63. taula).

**62. taula**

INGURUKOEN FORMA FISIKOAREN PERTZEPZIOA, GENEROAREN ARABERA (%)

«ETA, OROKORREAN, NOLAKOA USTE DUZU DELA ZURE INGURUKO GAZTEEN EGOERA FISIKOA?»	GIZONA	EMAKUMEA
Bikaina	2,3	2,4
Ona	49,7	61,9
Onargarria	33,1	24,6
Hala-holakoa	11,7	9,4
Txarra	2,7	1,1
Ez daki	0,1	0,0
Ez du erantzun	0,3	0,6
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


**63. taula**

INGURUKOEN FORMA FISIKOAREN PERTZEPZIOA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«ETA, OROKORREAN, NOLAKOA USTE DUZU DELA ZURE INGURUKO GAZTEEN EGOERA FISIKOA?»	15-19	20-24	25-29
Bikaina	3,4	1,8	2,1
Ona	61,1	54,2	53,2
Onargarria	26,4	30,5	29,0
Hala-holakoa	7,0	11,5	12,4
Txarra	1,8	1,8	2,1
Ez daki	0,0	0,2	0,0
Ez du erantzun	0,3	0,0	1,1
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

### 2.3.1.4. Norberaren eta ingurukoaren egoera mentalaren pertzepzioaren konparaketa

Goian adierazi dugu inkestatuek beren egoera fisikoaz eta ingurukoarenaz duten pertzepzioak ia ez duela ñabardurarik batzuen eta besteen artean; bada, norberaren eta besteen egoera mentalari buruz egiten duten balorazioan alde handiagoak aurkitu ditugu. Inkestatua askoz ere baikorragoa da bere egoera mentalaren pertzepzioan besteen egoeraren pertzepzioan baino. Zentzu horretan, «norberaren egoera mentalaren» balorazioan «bikaina» eta «ona» balioen batura %80,0ra iristen da, «ingurukoaren egoera mental edo psikikoaren» %61,5en aldean; izan ere, beren inguruko pertsonak gehiago ikusten dituzte «onargarria», «hala-holakoa» eta «txarra» mailetan (19. grafikoa).



Norberaren egoera mentala edo psikikoa ikusteko moduari dagokionez, inkesta egin duten mutilek markatzen dituzte balio altuenak «bikaina», «hala-holakoa», «onargarria» eta «txarra» mailetan, eta neskek berriz alde handiagoarekin nagusitzen dira «ona» mailan (64. taula).

Araba eta Gipuzkoa lurralde baikorrak dira inkestatuek «ingurukoaren egoera mentala» ikusteko moduari dagokionez. Bestalde, Bizkaian hautematen da egoera mental hori modu okerrean, «hala-holakoa» eta «txarra» mailetan igo egiten baitira ehunekoaren indizeak (65. taula).

**64. taula**

NORBERAREN EGOERA MENTALAREN PERTZEPZIOA, GENEROAREN ARABERA (%)

«ZURE EGOERA MENTALA NOLAKOA DELA ESANGO ZENUKE?»	GIZONA	EMAKUMEA
Bikaina	16,7	10,7
Ona	62,3	70,3
Onargarria	15,4	14,6
Hala-holakoa	4,3	3,3
Txarra	1,0	0,4
Ez daki	0,1	0,7
Ez du erantzun	0,1	0,0
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

**65. taula**

INGURUKOEN EGOERA MENTALAREN PERTZEPZIOA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)


«ETA, OROKORREAN, NOLAKOA USTE DUZU DELA ZURE INGURUKO GAZTEEN EGOERA MENTALA?»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Bikaina	5,4	3,3	3,1
Ona	61,4	53,4	63,8
Onargarria	25,2	25,6	20,2
Hala-holakoa	4,5	12,2	7,9
Txarra	0,5	3,5	1,1
Ez daki	0,5	0,8	0,4
Ez du erantzun	2,5	1,2	3,4
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

### 2.3.1.5. Gaixotasun kronikoak edota ezgaitasunak

%89,6k dio «ez duela gaixotasun kroniko edo ezgaitasun fisikorik» eta EAeko inkestatuen %10,3k «gaixotasun kroniko edo ezgaitasun fisikoren bat duela» dio; horietatik %70,1ek «gaixotasun alergikoa» dela (asma, etab.) zehazten du eta %2,8k «hezurretako mina» (20. grafikoa).

20. grafikoa

GAIXOTASUN KRONIKO EDO EZGAITASUN FISIKO MOTA (%)



\* n = gaixotasun kronikoren bat edo ezgaitasun fisikoren bat dutela erantzun duten pertsonen ehunekoa.

\*\* Trafiko-istripuen aztarnak, artritisa, urdaileko gaitzak, tiroidesa, linfoma, ultzera, anemia, obario polikistikoen sindromea eta abar.

### 2.3.1.6. Gaitz fisiko edota psikologikoen tipologia

Elkarrizketatutako gazteen ia herenak (%32,1) maiz —ia egunero edo astean behin baino gehiagotan— «nekea eta akidura» sentitzen du eta bostetik batek «sumingarritasuna edo jenio txarra» (%20,3) eta «urduritasuna» (%19,8). «Bizkarreko mina», %14,1ekin, gehien sufritutako

laugarren mina da, jarraian «lepoko edo sorbaldetako mina» (%12,9), «lo egiteko zailtasunak» (%11,1) edo «buruko mina» (%8,6); urrunago geratzen dira «adore gutxi» (%7,4), «sabeleko mina» (%4,1), «beldurra» (%2,9), eta «zorabio-sentsazioa» (%2,6) (66. taula).

### 66. taula

ONDOKO GAITZAK JASATEKO MAIZTASUNA (%)

«AZKEN SEI HILABETEOTAN, ZEIN MAIZTASUNEKIN JASAN DITUZU ONDOKOAK?»	SARRITAN
Nekea eta akidura	32,1
Sumingarritasuna edo jenio txarra	20,3
Urduritasuna	19,8
Bizkarreko mina	14,1
Lepoko edo sorbaldetako mina	12,9
Lo egiteko zailtasunak	11,1
Buruko mina	8,6
Adore gutxi	7,4
Sabeleko mina	4,1
Beldurra	2,9
Zorabio-sentsazioa	2,6

\* Gaitz hauek ia egunero edo astean behin baino gehiagotan jasaten dituztela erantzun duten pertsonen ehunekoa.

Emakumea da «gaitz-mota» galderan jasotako tipologia guztiak maizago sufritzen dituenak. Bereziki, «nekea eta akidura», «sumingarritasuna edo jenio txarra», «urduritasuna», «bizkarreko mina», «buruko mina», «sabeleko mina», «lepoko edo sorbaldeko mina» eta «zorabio-sentsazioa» gehiago hautematen ditu emakumeak gizonak baino; «adore gutxi» izatearen sentsazioa bakarrik da batzuek zein besteek berdin hautematen dutena, %7,4ko balioarekin bi kasuetan (67. taula).

### 67. taula

ONDOKO GAITZAK JASATEKO MAIZTASUNA, GENEROAREN ARABERA (%)

«AZKEN SEI HILABETEOTAN, ZEIN MAIZTASUNEKIN JASAN DITUZU ONDOKOAK?»	GIZONA	EMAKUMEA
Nekea eta akidura	30,9	33,2
Sumingarritasuna edo jenio txarra	18,0	22,5
Urduritasuna	16,0	23,4
Bizkarreko mina	11,2	17,1
Lepoko edo sorbaldeko mina	11,3	14,4
Buruko mina	6,6	10,7
Adore gutxi	7,4	7,4
Sabeleko mina	3,4	4,9
Zorabio-sentsazioa	2,0	3,3

\* Gaitz hauek ia egunero edo astean behin baino gehiagotan jasaten dituztela erantzun duten pertsonen ehunekoa.

Adin-taldeen arabera, aldagai esanguratsu bakarra «zorabio-sentsazioarena» da, nabarmenago agertzen baita 20-24 bitarteko gazteen artean gainerakoen artean baino (68. taula).

**68. taula**

ONDOKO GAITZAK JASATEKO MAIZTASUNA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«AZKEN SEI HILABETEOTAN, ZEIN MAIZTASUNEKIN JASAN DITUZU ONDOKOAK?»	15-19	20-24	25-29
Zorabio-sentsazioa	2,0	4,2	1,3

\* Gaitz hauek ia egunero edo astean behin baino gehiagotan jasaten dituztela erantzun duten pertsonen ehunekoa.

Bizkaitarrak dira «nekea eta akidura», «sumingarritasuna edo jenio txarra», «buruko mina», «sabeleko mina», «adore gutxi», «urduritasuna» eta «lo egiteko zailtasunak» gehien sufritzen dituztenak. Lurralde guztietan antzeko portaera duen aldagai bakarra «beldurra» da, %2,8 (Bizkaia) eta %3,0 (Araba) arteko balioekin (69. taula).

**69. taula**

ONDOKO GAITZAK JASATEKO MAIZTASUNA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«AZKEN SEI HILABETEOTAN, ZEIN MAIZTASUNEKIN JASAN DITUZU ONDOKOAK?»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Nekea eta akidura	26,2	35,2	29,4
Sumingarritasuna edo jenio txarra	15,8	23,0	17,8
Urduritasuna	13,4	21,5	19,6
Lo egiteko zailtasunak	8,4	14,1	7,2
Buruko mina	6,9	10,8	5,8
Adore gutxi	5,9	8,9	5,6
Sabeleko mina	1,0	6,6	1,3
Beldurra	3,0	2,8	2,9

\* Gaitz hauek ia egunero edo astean behin baino gehiagotan jasaten dituztela erantzun duten pertsonen ehunekoa.

Lanbideari bagagozkio, jakina, aldi berean ikasi eta lan egiten duten inkestatuak dira «nekea eta akidura» eta «lepoko edo sorbaldetako mina» gehien jasaten dituztenak; eta gutxien sufritzen dituztenak «langabeak» dira (70. taula).

### 70. taula

ONDOKO GAITZAK JASATEKO MAIZTASUNA, LANBIDEAREN ARABERA (%)

«AZKEN SEI HILABETEOTAN, ZEIN MAIZTASUNEKIN JASAN DITUZU ONDOKOAK?»	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LANEAN ARI DA	LANGABEA
Nekea eta akidura	29,9	34,3	42,0	22,5
Lepoko edo sorbaldetako mina	10,9	14,5	19,9	9,9

\* Gaitz hauek ia egunero edo astean behin baino gehiagotan jasaten dituztela erantzun duten pertsonen ehunekoak.


#### 2.3.1.7. Tratamendu psikologikoa eta tratamendu psikologikoaren tipologia

Euskal Autonomia Erkidegoan %2,2k bakarrik erantzun dio baietz «gur egun tratamendu psikologikoren bat jarraitzen ari den» dioen galderari, inolako tratamendurik jarraitzen ez duela dioen %97ren aldean.

«Depresioa» da, %22,6rekin, tratamendu horren arazo nagusia; «antsietatea» %12,9rekin eta «drogak», «trafiko-istripu baten ondorio psikologikoak» eta «lagunekin harremanak izateko arazoak», %6,5ekin, dira hurrengo arazoak ehunekoetan markatutako garrantziari dagokionez; urrunago geratzen dira «indarkeria», «bulimia» eta «etxeko arazoak» %3,2rekin. Baina %35,4rekin agertzen da «Ed/Ee» atala eta horrek adieraz dezake arazoak duen garrantziaren aurrean horri buruz hitz egin ere ez dutela egin nahi edo izenik gabeko gaitzak direla (21. grafikoa).

### 21. grafikoa

TRATAMENDU PSIKOLOGIKOAN EGOTEKO ARRAZOIA (%)



Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan adierazi dute tratamendu psikologiko bat egiten ari direla (%3,6k eta %0,9k, hurrenez hurren).

#### 2.3.1.8. Norberari buruzko pertzepzioak

##### a) Gazteak bere bizitzaz duen balorazioa

Gazteek neurri handi batean «bizitza ona dutela» sentitzen dute —%93,7—, «bere bizitza ondo doa» —%90,9—, «gauzak nola doazkien gustatzen zaie» —%88,4— eta «ondo sentitzen da gertatzen zaizkion gauzei dagokienez» —%85,6—; hala ere, inkesta egin dutenen ia heren batek (%31,9) «bere bizitzako gauza asko aldatu nahi lituzke», eta %16,7ra jaisten dira «beste bizimodu bat izan nahi luketenak» (71. taula).

Gizonek, «ondo sentitzen da gertatzen zaizkion gauzei dagokienez» baieztapena emakumeek baino gehiago berresten dute (%88,1ek eta %83,2k, hurrenez hurren).

**71. taula**

NORBERAREN BIZITZAREN PERTZEPZIOA (%)


ONDOKO ESALDIEKIKO ADOSTASUN MAILA	%
Bizitza ona dut	93,7
Nire bizitza ondo doa	90,9
Gauzak nola doazkidan gustatzen zait	88,4
Ondo sentitzen naiz gertatzen zaizkidan gauzei dagokienez	85,6
Nire bizitzako gauza asko aldatu nahi nituzke	31,9
Beste bizimodu bat izan nahi nuke	16,7

\* Aurkezturiko alderdiekin gehienbat ados daudela erantzun duten pertsonen ehunekoa.

Inkestak zenbat eta urte gehiago bete, orduan eta adostasun gutxiago erakusten dute «gauzak doazkien moduarekiko» (22. grafikoa).

**22. grafikoa**

GAUZAK DOAZKIEN MODUA GUSTATZEAREKIKO ADOSTASUN MAILA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)



\* Aurkezturiko alderdiarekin gehienbat ados dauden pertsonen ehunekoa.

Lanbidearen arabera sailkapenaren barruan, «langabeak» dira «beren bizitza ondo doala» gutxien sentitzen dutenak —%75,7— eta «ikasten ari direnak» hori gehien uste dutenak —%93,2—. Halaber, «langabeei» gustatzen zaie gutxien «gauzak nola doazkien»

—%70,3— ikasleen aldean —%91,6—. Horrekin koherente izanik, «langabe» horiei gustatuko litzaieke gehien «beren bizitzako gauza asko aldatzea» —%51,4— eta «beste bizimodu bat izatea» —%33,3— eta, aldiz, «ikasleak» dira beren bizitzetan «gauza gutxien aldatuko lituzketenak», %29rekin, eta «beste bizimodu bat izateko» desio gutxien dutenak, %13,8rekin (72. taula).

### 72. taula

NORBERAREN BIZITZAREN PERTZEPZIOA, LANBIDEAREN ARABERA (%)

ONDOKO ESALDIEKIKO ADOSTASUN MAILA	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LANEAN ARI DA	LANGABEA
Nire bizitza ondo doa	93,2	90,9	92,0	75,7
Gauzak nola doazkidan gustatzen zait	91,6	86,5	91,5	70,3
Nire bizitzako gauza asko aldatu nahi nituzke	29,0	31,9	31,3	51,4
Beste bizimodu bat izan nahi nuke	13,8	17,4	16,5	33,3

\* Aurkezturiko alderdiekin gehienbat ados daudela erantzun duten pertsonen ehunekoa.

Gizarte-klaseak badu lotura estua «bizitza ona izatea», «bere bizitza ondo doala» eta «gauzak nola doazkion gustatzen zaiola» sentitzearekin, gizartean behera egiten den neurrian, gehiago murrizten baita baieztapen edo sentimendu hori; baina, gainera, «ondo sentitzen da gertatzen zaizkion gauzei dagokienez» baieztapenean ere sentsazio horren intentsitatea gutxitu egiten da gizarte-mailan behera egiten den neurrian. Era berean, maila «ertain-baxu/baxuan» sentitzen da gehiago «beste bizimodu bat izan nahi izatea» (73. taula).

Barra-grafikoak argi eta garbi erakusten du klase bakoitzean ageri den ehunekoen beherakada hori, gizarte-maila jaisten den neurrian eta «gazteak bere bizitzaz duen pertzepzioan» sartutako premisa bakoitzari eman zaion balorazioaren arabera (23. grafikoak).

73. taula


NORBERAREN BIZITZAREN PERTZEPZIOA, GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)

ONDOKO ESALDIEKIKO ADOSTASUN MAILA	ALTUA/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
Bizitza ona dut	96,3	93,5	85,3
Nire bizitza ondo doa	94,2	90,4	81,3
Gauzak nola doazkidan gustatzen zait	93,0	87,6	74,7
Ondo sentitzen naiz gertatzen zaizkidan gauzei dagokienez	89,1	85,1	77,3
Beste bizimodu bat izan nahi nuke	14,2	17,0	28,0

\* Aurkezturiko alderdiekin gehienbat ados daudela erantzun duten pertsonen ehunekoa.

23. grafikoa

NORBERAREN BIZITZAREN PERTZEPZIOA, GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)




\* Aurkezturiko alderdiekin gehienbat ados daudela erantzun duten pertsonen ehunekoa.

### b) Lagun-kopurua

Inkestatuak «gaur egun dituen lagunei» dagokienez, alde batetik, lau gaztetatik hiruk, gizon —%73,7— zein emakume —%74,3—, «hiru lagun edo gehiago» dituzte, eta «lagunik ez dutenen» edo 1 edo 2 dituztenen ehunekoa antzekoa da gizonen eta emakumeen artean.

Bestalde, interesgarria iruditzen zaigu beste datu garrantzitsu bat azpimarratzea, hain zuzen, inkesta egin duenak zein sexutako lagunak nahiago dituen; alde horretatik, datuek adierazten digute gizonak lagun 1 edo 2 baditu, lagun horien artean emakumeak nagusitzen direla eta 3 edo lagun gehiago baditu, gizonezko lagunak nagusi direla. Halaber, bi lagun arte dituen emakumearen kasuan haiek gizonak izatea nagusitzen da eta hiru edo gehiago dituenen, haien artean emakumeak dira nagusi (24. eta 25. grafikoak).



Bestalde, lagun-kopuruak nahiz haien generoak portaera berbera du inkesta egin duten emakumeen eta gizonen erantzunetan. Gizonak bere sexuko lagun gehiago ditu eta emakumeak bere sexukoak, eta ehuneko ia berdinetan (74. taula).

74. taula

INKESTATUAREN SEXU BEREKO LAGUN MINEN PROPORZIOA, GENEROAREN ARABERA (%)

«GAUR EGUN, ZENBAT LAGUN MIN DITUZU?»	GIZONA	EMAKUMEA
Hiru lagun edo gehiago	73,7	74,3


## c) Osasun emozionala

**Egiten ari den horretan kontzentratzeko gaitasuna**

Azken asteetan izan dituen zereginetan ondo, «normalean bezala», kontzentratu ahal izan duen populazioaren ehunekoa %69,0koa da; oso urrun geratzen dira «normalean baino hobeto», «gutxiago» edo «askoz ere gutxiago» balioak (26. grafikoa).

26. grafikoa

AZKEN ASTEETAN ONDO KONTZENTRATU AHAL IZAN DUZU ZURE ZEREGINETAN? (%)

**Kezkengatik loa galtzea**

Dirudienek, kezkek ez diote «inola ere» loa galarazten biztanleen %42,8ri edo, gutxienez, «ez normalean baino gehiago» %33,9ri; aldiz, %20,6k dio «normalean baino dezente gehiago» eta %2,2k bakarrik «askoz ere gehiago».

### Bizitzan duen egitekoaren baliagarritasuna

Lau inkestatutik hiruk (%74,9) bizitzan egiteko baliagarri bat dutela sentitzeari dagokionez, pentsatzen dute «normalean bezala» antzematen dutela sentrazio hori; gehien baloratutako bigarren erantzuna «normalean baino baliagarriagoa» da, %11,8rekin, «normalean baino gutxiago» %6,1 eta «normalean baino askoz ere gutxiago» %0,8.

### Erabakiak hartzeko gaitasuna

Era berean, lautik hiru (%74,1) erabakiak hartzeko gai «normalean bezala» sentitu dira, %21,4 «normalean baino gehiago», %3,4 «normalean baino gutxiago», eta %0,2 «normalean baino askoz ere gutxiago».

### Estutasun edota tentsio sentimendua


Etengabe larri eta tentsioan sentitu diren galdetu zaienean, populazioaren erdiak «inola ere ezetz» erantzun du —%46,1—, %28,1ek «normalean baino gehiago ez», baina %22,4k «normalean baino dezente gehiago» eta %2,9k «normalean baino askoz ere gehiago».

### Eragozpenak gainditzea

Zailtasunak gainditu ezina sentitu duten ala ez galdetzean, %62,2k erantzun du «inola ere ezetz» eta %28,6k «normalean baino gehiago ez» gehien azpimarratu diren balio gisa; aldiz, «normalean baino dezente gehiago», %8,1ek eta «normalean baino askoz ere gehiago», %0,6 eskas batek erantzun dute (27. grafikoa).

## 27. grafikoa

AZKEN ASTEETAN SENTITU AL DUZU ZAILTASUNAK EZIN DITUZULA GAINDITU? (%)



### **Egunez egun gozatzeko gaitasuna**

Eta beren eguneroko ohiko jardueraz «normalean bezala» gozatu ahal izan dutela sentitu dute %73,9k, «normalean baino gehiago» %17,7k, «normalean baino gutxiago» %6,9k eta «normalean baino askoz ere gutxiago» %0,9k.

### **Arazoei aurre egiteko gaitasuna**

Populazioaren %81,1ek sentitzen du bere arazoei aurre «normalean bezala» egiteko gai izan dela, eta jarraian %13,1ek uste du «normalean baino gaitasun handiagoa» izan dela; atzean geratu da «normalean baino gaitasun gutxiago» izan duen %4,6a eta «normalean baino askoz gutxiago» erantzun dutenen %0,1 hautemanezina.

### **Zorion edota etsialdi sentimendua**

%11,3 ez da ia zoriontsu sentitu eta deprimituta sentitu da «normalean baino dezente gehiago» eta %0,6 «askoz ere gehiago»; aldiz, %60,6k uste du «batere ezetz» eta %26,1ek «normalean baino gehiago ezetz».

### **Nork bere buruarengan duen konfiantza-maila**

Hemen ere inkestaturen ia laurdenak —%70,8— bere buruarenganako konfiantza galdu duen ala ez galdetuta «inola ere ez» erantzun du. Haiekin batera «normalean baino gehiago ez» erantzun du %21,7k, «normalean baino dezente gehiago» %6,4k eta «normalean baino askoz ere gehiago» %0,1ek.

### **Ezertarako balio ez duela sentitzea**

Ezertarako balio ez duen pertsona izatea pentsatzearen sentimendua dirudienez ez da inkestatuena, %86,1 ez baitator bat kontzeptu horrekin; %10,1ek dio «ez normalean baino gehiago», eta %2,4k «normalean baino dezente gehiago» eta, azkenik, «askoz ere gehiago» %0,2k.

### **Zorionaren sentimendua**

«Zirkunstantzia guztiak kontuan hartuta nahiko zoriontsu sentitzen da» premisari dagokionez, %74,0k dio «gutxi gorabehera beti bezala», %20,9k «normalean baino zoriontsuago» eta, horietatik urrun, «ez normalean bezain zoriontsu» %3,7k eta «normalean baino askoz ere gutxiago» %0,4k.

### Norbere buruari buruzko iritzia

Bestalde, «inkestatu bakoitzak bere buruaz duen iritzia» oso ona da «gauzak gehienek bezain ondo egin ditzaketelako», «kualitate onak dituztelako», «besteak bezain estimagarriak» direlako edo «norbere buruarekin pozik dagoelako», guztiak %91,4ren gaineratik. «Norberari dagokionez jarrera positiboa izatea» kontzeptuan bakarrik jaisten da eskala %82,1eraino (75. taula).

#### 75. taula

NORBERE BURUARI BURUZKO IRITZIA (%)

ONDOKO ESALDIEKIKO ADOSTASUN MAILA	OSO ADOS/ADOS
Gauzak gehienek bezain ondo egin ditzaket	95,9
Kualitate onak ditudala uste dut	94,1
Besteak bezain estimagarri sentitzen naiz	92,4
Orokorrean pozik nago neure buruarekin	91,4
Neure buruarekiko jarrera baikorra dut	82,1


\* Aurkezturiko alderdiekin oso ados edo ados daudela erantzun duten pertsonen ehunekoa.

Oro har, eta ondoren marraztuko ditugun bi taulen arabera, (A) eta (B), esan dezakegu, gutxi gorabehera zailak diren hainbat zirkunstantzian norberak dituen sentimenduen sintesi gisa «osasun mentala» izendatutako atalean, inkestatuek duten pertzepzioa nahiko orekatua dela. Jende gehienak eguneroko bizitzan «normalean bezala» kontzentratu, erabakiak hartu edo gozatzen du eta, batez ere, nahiko zoriontsu sentitzen da normalean (28. eta 29. grafikoak).

«Kontzentrazio-mailan», «bizitzan egiteko baliagarri bat duela» sentitzean, eta «norbere jarduera normalez gozatzeko gai izatean» bi generoek «normalean bezala» balioan dute erantzun nagusia. Hala ere, mutilek baieztapen horietan «normalean bezala» neskek baino gehiago puntuatzen dute. Bestalde, «bere zereginetan ondo kontzentratzea», «bizitzan egiteko baliagarri bat duela sentitzea» eta «norbere jarduera normalez gozatzeko gai izatea» baieztapenek «gehiago» kategorian pisu handiagoa dute neskentzat mutilentzat baino.


**28. grafikoa**

(A) AZKEN ASTEETAN, ONDOKOAK EGIN AHAL IZAN DITUZU EDO HORRELA SENTITU ZARA...? (%)



**29. grafikoa**

(B) AZKEN ASTEETAN, ONDOKOAK EGIN AHAL IZAN DITUZU EDO HORRELA SENTITU ZARA...? (%)



Nolabait esan, emakumeek badute joera muturreko balioei gizonek baino garrantzi handiagoa emateko (76. taula).

76. taula

OSASUN EMOZIONALAREN ALDAGAIAK, GENEROAREN ARABERA (%)

	ONDO KONTZENTRATU AHAL IZAN DA BERE ZEREGINETAN		BIZITZAN EGITEKO BALIAGARRIA DUELA SENTITU DU		BERE JARDUERA NORMALEZ GOZATZEKO GAI IZAN DA	
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea
Normalean baino hobeto	6,6	8,8	8,9	14,7	15,8	19,8
Normalean bezala	73,4	64,6	76,4	73,3	77,5	70,2
Normalean baino gutxiago	10,6	16,0	6,4	5,8	5,4	8,3
Normalean baino askoz ere gutxiago	0,9	1,6	1,0	0,6	0,9	1,0
Ed/Ee	8,6	9,0	7,3	5,6	0,6	0,7
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Bestalde, inkestatuei bizitzako egoera desberdinen aurrean duten adostasun-mailari buruz galdetu zaie. Hala bada, egindako bost galderetan (kezka, tentsioa, depresioa, konfiantzagalera eta norbera ezertarako balio ez duen pertsona dela pentsatzea) emakumea da beti «de-zente gehiago» nahiz «askoz ere gehiago» balioetan gizonaren gainetik nagusitzen dena.

Horrekin batera, gizona da desadostasuna (balioa: «inola ere ez») nahiz oreka (balioa: «ez normalean baino gehiago») emakumeak baino gehiago adierazten dituen, planteatutako bost puntuetan.

Nolabait, eskuratutako datuak ikusita esan daiteke gizona orekatuago ageri dela bere osasun mentalaren maila autoebaluatzeako orduan eta, aldiz, emakumeak sentimendu ezkorra-goak erakusten dituela (77. taula).

## 77. taula

OSASUN EMOZIONALAREN ALDAGAIK, GENEROAREN ARABERA (%)

	BERE KEZKEK LOA GALARAZI DIDATE ASKOTAN		ETENGABE ESTUTASUNEAN ETA TENTSIOAN SENTITU NAIZ		EZ NAIZ OSO ZORIONTSU SENTITU, DEPRIMITUTA SENTITU NAIZ	
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea
Inola ere ez	47,5	38,1	50,6	41,5	62,5	58,6
Normalean baino gehiago ez	35,5	32,2	29,5	26,8	26,8	25,5
Normalean baino dezente gehiago	15,0	26,2	17,9	26,8	8,9	13,7
Normalean baino askoz ere gehiago	1,4	3,0	1,7	4,1	0,1	1,0
Ed/Ee	0,6	0,4	0,3	0,7	1,7	1,1
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

	KONFIANTZA GALDU DUT NEURE BURUARENGAN		EZERTARAKO BALIO EZ DUEN PERTSONA NAIZELA PENTSATU DUT	
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea
Inola ere ez	73,8	67,8	87,1	85,0
Normalean baino gehiago ez	20,6	22,8	10,6	9,7
Normalean baino dezente gehiago	4,3	8,4	1,1	3,6
Normalean baino askoz ere gehiago	0,0	0,1	0,0	0,4
Ed/Ee	1,3	0,9	1,1	1,3
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Kezkarik ez izateak gazteenen —15-19 urte— ondare dirudi, eta, kezka bat badago, areagotu egiten da adinean gora egiten den neurrian.

Adin-tarte honetan (15-19 urte) erantzuten dute gehien estutasunik eta tentsiorik ez dutela «inola ere» sentitzen (78. taula).

### 78. taula

OSASUN EMOZIONALAREN ALDAGAIK, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

	NIRE KEZKEK LOA GALARAZI DIDATE ASKOTAN			ETENGABE ESTUTASUNEAN ETA TENTSIONAN SENTITU NAIZ		
	15-19	20-24	25-29	15-19	20-24	25-29
Inola ere ez	50,9	39,9	39,5	53,5	40,6	46,3
Normalean baino gehiago ez	31,7	34,2	35,2	26,2	28,1	29,7
Normalean baino dezente gehiago	16,6	22,1	22,3	18,4	26,3	21,0
Normalean baino askoz ere gehiago	0,8	2,8	2,8	1,6	4,0	2,8
Ed/Ee	0,0	1,1	0,2	0,3	0,9	0,2
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Ikasleak dira beren zereginetan «ondoan» kontzentratzeko gai izan direnak eta langabeak, aldiz, planteatutako profilen barnean «askoz ere gutxiago» kontzentratzen direnak; dena den, taula osoa alde gutxiko tarteetan mugitzen da (79. taula).

Langabeak dira estutasuna eta tentsioa gehien sentitzen dituztenak, «dezente gehiago» eta «askoz ere gehiago» balioetan eta, «ez normalean baino gehiago», berriz, sentimendu oso homogeneoa da planteatutako profilen artean (80. taula).

**79. taula**

OSASUN EMOZIONALAREN ALDAGAIK, LANBIDEAREN ARABERA (%)

«ONDO KONTZENTRATU AHAL IZAN NAIZ NIRE ZEREGINETAN»	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LANEAN ARI DA	LANGABEA
Normalean baino hobeto	9,4	6,1	7,1	7,5
Normalean bezala	67,1	71,0	68,9	74,2
Normalean baino gutxiago	12,6	12,0	19,6	9,2
Normalean baino askoz ere gutxiago	1,2	1,1	0,4	2,5
Ed/Ee	9,6	9,8	4,0	6,7
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

**80. taula**

OSASUN EMOZIONALAREN ALDAGAIK, LANBIDEAREN ARABERA (%)

«ETENGABE ESTUTASUNEAN ETA TENTSIOAN SENTITU NAIZ»	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LANEAN ARI DA	LANGABEA
Inola ere ez	50,5	48,9	37,3	34,2
Normalean baino gehiago ez	26,6	28,2	29,8	29,2
Normalean baino dezente gehiago	19,4	19,9	29,8	32,5
Normalean baino askoz ere gehiago	3,3	2,2	2,2	4,2
Ed/Ee	0,2	0,9	0,9	0,0
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Gizarte-klasearen mailak dirudenez lotura estua du bizitzan baliagarria sentitzearen sentimenduekin; zentzu horretan, zenbat eta gizarte-klase baxuagokoa izan, orduan eta gehiago areagotzen da baliagarri «normalean baino gutxiago» sentitzearen sententzia (81. taula).

**81. taula**

OSASUN EMOZIONALAREN ALDAGAIK, GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)

«BIZITZAN EGITEKO BALIAGARRIA DUDALA SENTITU DUT»	ALTU/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
Normalean baino gehiago	13,3	11,2	14,4
Normalean bezala	73,8	76,8	57,7
Normalean baino gutxiago	4,9	5,7	15,5
Normalean baino askoz ere gutxiago	0,8	0,8	1,0
Ed/Ee	7,2	5,5	11,3
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Bestalde, zenbat eta gizarte-maila baxuagokoa izan, orduan eta gehiago areagotzen da «ia zorionik gabea eta deprimituta» sentitzearen sentsazioa mutur-muturreko balio ezkorrenetan («dezente» eta «askoz ere gehiago»). Hala ere, ehuneko handiago bat «ez da normalean baino zorrigaitzokoago edo deprimituago sentitzen»; baina nahitaez esan beharra dugu maila ertain-baxu/baxua dela «inola ere ez» erantzunari dagokion ehunekoan puntuazio txikiena duena (82. taula).

**82. taula**

OSASUN EMOZIONALAREN ALDAGAIK, GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)


«EZ NAIZ OSO ZORIONTSU SENTITU ETA DEPRIMITUTA SENTITU NAIZ»	ALTUA/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
Ez, inola ere ez	62,4	61,2	48,5
Normalean baino gehiago ez	21,7	27,1	32,0
Normalean baino dezente gehiago	13,3	10,4	14,4
Normalean baino askoz ere gehiago	0,0	0,6	2,1
Ed/Ee	2,7	0,7	3,1
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

## 2.3.2. Zainketa eta praktika osasungarriak

### 2.3.2.1. Higienea eta loa

#### a) Hortzak garbitzeko maiztasuna

Alde horretatik, eta eguneroko higieneari dagokionez, «hortzak zein maiztasunekin garbitzen dituzten» galdetu zaie. Biztanle gazteen erdiak baino gehiagok «egunean hiru aldiz» garbitzen ditu, eta ia heren batek «egunean bitan» (30. grafikoa).



#### b) Lo orduak

Batez beste zortzi dira lo orduak 15etik 29 urtera bitarteko gazteen artean; eta gehiago zehaztuz gero, gazteen %74,0k egunean 7-8 orduz lo egiten duela esan dezakegu (83. taula).

Adinak ere lotura estua du lo orduekin: zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta lo gutxiago egiten baita (84. taula).

**83. taula**

EGUNEAN LO EGITEKO ORDUAK (%)

LO ORDUAK	%
<5	0,5
5-6	7,8
7-8	74,0
9-10	16,8
>10	0,6
Ed/Ee	0,3
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

**84. taula**

EGUNEAN LO EGITEKO BATEZ BESTEKO ORDU KOPURUA, ADIN TALDEEN ARABERA

LO ORDUAK	15-19	20-24	25-29
Batez besteko lo orduak	8,21	7,77	7,44

«Lotienak» ikasleak dira —8,11 ordu—, langileen aldean —7,42 ordu egunean— (ikas-ten eta lanean ari direnak: 7,60 ordu, eta langabeak: 7,86 ordu).


## 2.3.2.2. Elikadura

## a) Elikagaien kontsumoaren maiztasuna

Gazteek «egunero» kontsumitzen dituzten produktuei dagokienez, «esnea», «zerealak», «frutak eta barazkiak» eta «haragia eta arraina» %49,4ren gainera daude inkestaturen artean. Beste elikagai batzuek, esate baterako «kafea», «freskagarriak» eta «hestebeteak/fianbreak» %37,3tik %20,8ra bitarteko eragina dute; «lekale eta patatek», «opil eta gozokiek», eta «arrautzek» %20tik beherako balioak dituzte.

Horiekin batera, zehazta dezakegu elikagaien noizbehinkako kontsumoa —«astean noiz behinka»— funtsean «arrautzei» eta «lekale eta patatei», %77,0tik gora; «hestebete/fianbreei», «haragi eta arrainei» eta «opil eta gozokiei» dagokiela %51,9tik %45,0ra bitarteko zifrekin; eta azkenik, «freskagarriak», «fruta eta barazkiak», «zerealak», «kafea» eta «esnea eta esnekiak» daude.

«Haragia eta arraina» dira kontsumoan inolako aldaketarik ez duten elikagai bakarrak, kontsumo hori «eguneroko» nahiz «astean noizbehinkakoa» den kontuan hartu gabe; eta haie-tatik hurbil, «freskagarriak» dira maiztasunaren arabera ez diren beste elikagaiak. Gainerako elikagaiak, jada ikusi dugunez, «eguneroko» zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta gehiago desagertzen dira «astean noizbehinka» baliotik eta alderantziz (31. grafikoa).



Eguneroko kontsumoari dagokionez, generoa kontuan hartuta, neskek mutilek baino «kafe» gehiago hartzen dutela ikus daiteke eta mutilek, berriz, neskek baino «freskagarri», «hestebete eta fianbre» gehiago kontsumitzen dituzte (85. taula).

**85. taula**

ELIKAGAIEN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA, GENEROAREN ARABERA (%)

EGUNEROKO KONTSUMOA**	GIZONA	EMAKUMEA
Kafea	43,9	51,9
Freskagarriak	81,8	73,8
Hestebeteak/fianbreak	76,8	68,5

\* Elikagai hauek egunero hartzen dituzten pertsonen ehunekoa.

\*\* Eguneroko kontsumoa: egunero + astean noizbait.

Azpimarratzekoa da «fruta eta barazkien», «kafearen» eta «arrautzen» «eguneroko kontsumoaren» maiztasuna handiagoa dela adinean gora egiten den neurrian, batez ere «kafearena» (86. taula).

**86. taula**

ELIKAGAIEN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

EGUNEROKO KONTSUMOA**	15-19	20-24	25-29
Frutak eta barazkiak	88,3	92,5	93,4
Kafea	34,0	46,1	61,4
Arrautzak	87,8	91,2	94,7

\* Elikagai hauek egunero hartzen dituzten pertsonen ehunekoa.

\*\* Eguneroko kontsumoa: egunero + astean noizbait.

**b) Eguneroko jatorduak**

«Bazkaria» eta «afaria» ia guztiek egiten dituzten jatorduak dira, baina «gosaria» 4 pertsonatik 3k egiten dute. «Mokaduak» EAEn inkesta egin duten biztanleen %40,6k jaten ditu (87. taula).

**87. taula**

EGUNEROKO JATORDUAK (%)

Bazkaria	97,1
Afaria	92,2
Gosaria	80,5
Mokaduak	40,6
Askaria	27,2

\* Alderdietako bakoitzari baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.

Emakumeak eguneroko «bazkaria» gizonak baino zertxobait maizago egiten du, «gosaria» bezala (88. taula).

**88. taula**

EGUNEROKO JATORDUAK, GENEROAREN ARABERA (%)

EGUNEROKO JATORDUAK	GIZONA	EMAKUMEA
Bazkaria	95,6	98,7
Gosaria	78,4	82,6

\* Alderdietako bakoitzari baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.

Askaria gehien hartzen dutenak gazteenak dira (89. taula).


**89. taula**

EGUNEROKO JATORDUAK, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

EGUNEROKO JATORDUAK	15-19	20-24	25-29
Askaria	33,0	25,0	25,1

\* Alderdi honi baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.

Eguneroko «bazkaria» gutxien Araban egiten da, hain zuzen %94,1ek egiten du, Bizkaiko %97,7ren aldean; era berean, Araban hartzen dira gutxien «mokaduak». Alabaina, askaria eguneroko egiten dutenak gutxienak dira Bizkaian (32. grafikoa).



\* Alderdietako bakoitzari baiezko erantzuna eman dioten pertsonen ehunekoa.


### c) Dietak egitea

Inkesta egin duten hamar gaztetik 6k baino zertxobait gehiagok dio «pisu egokia» duela; hau da, biztanle gazteen %62,6k ez du elikadura-dietarik egiten, bere pisua «egokia» dela uste duelako. Bestalde, %12,4k dio «baietz», pisua galtzeko dietaren edo ekintzaren bat egiten duela. Horiekin batera, %16,9k dio ez duela dietarik egiten baina behar duela eta, aldiz, %6,1ek erantzun du «ez duela dietarik egiten eta pisu gehiago hartu behar lukeela» (90. taula).

**90. taula**  
DIETAK EGITEA (%)

«DIETARIK EDO BESTELAKORIK EGITEN ARI ZARA ORAIN PISUA GALTZEKO?»	%
Ez dut dietarik egiten, pisu egokia dudalako	62,6
Bai	12,4
Ez dut dietarik egiten, baina behar dut	16,9
Ez dut dietarik egiten eta pisua irabazi behar nuke	6,1
Ed/Ee	2,0
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

Emakumeak —%15,3— gizonak —%9,4— baino gehiago ari dira dieta egiten pisua galtzeko (33. grafikoa).



Gizarte maila «ertaina» da pisua galtzeko dietak egiteko joera handiena duena —%13,8— maila «altu/ertain-altuaren» aldean.

### 2.3.2.3. Kirola egitea

#### a) Gazteek egiten duten kirola

##### Kirolen bat egiten dute

Euskadiko gazteen erdiak baino gehiagok kirol bat egiten du gutxienez —%54,5ek—; zehazki, %35,6k bat egiten du, eta %18,9k batzuk. 15etik 29 urtera bitarteko gazteen ehuneko handi batek baietz esaten dio kirolari, «inolako kirolik egiten ez duen» %45,5en aldean (91. taula).

**91. taula**  
KIROLA EGITEA (%)

«KIROLA ERA GUZTIETARA ULERTUTA, HAU DA, ARIKETA FISIKO GISA, KIROL EN BAT EGITEN DUZU?»	%
Bakarra egiten dut	35,6
Batzuk egiten ditut	18,9
Ez dut bat ere egiten	45,5
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

«Generoa» aldagaiak kirol-portaerari dagokion alde oso adierazgarri bat erakusten du. Bestalde, gizonengan pisu handiagoa du «kirola egiteak» (%66,1) «ez egiteak» (%33,7) baino. Emakumeen artean harreman hori irauli egiten da: «ez egitea» (%57,5) da nagusitzen dena, «kirolen bat praktikatzearen» aldean (%42,6). Bai emakumeengan bai gizonengan, aukera nagusia da kirol bakarra egitea, hainbat egitearekin konparatuta.

Era berean, kirola egitearen hautuak gizonengan emakumeengan baino bederatzi puntu gehiago ditu, baina zifra hori ia 15 puntuko aldera iristen da egindako kirolak bat baino gehiago direnean. Horrekin bat etorritik, kirolik egiten ez duten gazteen ehunekoa askoz ere handiagoa da —ia 24 puntu gehiago— emakumeen artean gizonen artean baino (92. taula).

**92. taula**

KIROLA EGITEA, GENEROAREN ARABERA (%)

«KIROLEN BAT EGITEN DUZU?»	GIZONA	EMAKUMEA
Bakarra egiten dut	40,1	31,0
Batzuk egiten ditut	26,1	11,6
Ez dut bat ere egiten	33,7	57,4
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Adina ere adierazgarria da kirola zer heinetan egiten den baloratzeko orduan. Nolabait, gazteek urteak betetzen dituzten neurrian praktika horrek behera egiten du eta gainera eraldatu egiten da: alegia, kirol-aniztasunak kirol bakar bat egiteak baino indar gehiago hartzen du (93. taula).

**93. taula**

KIROLA EGITEA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«KIROLEN BAT EGITEN DUZU?»	15-19	20-24	25-29
Bakarra egiten dut	45,9	30,7	32,8
Batzuk egiten ditut	11,4	20,6	23,0
Ez dut bat ere egiten	42,7	48,7	44,2
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Hiru lurraldeetatik Gipuzkoan egiten da kirol gehien, funtsean hainbat kirol, eta aldiz Bizkaian egiten da gutxien. Bestalde, Araban nabarmen nagusitzen da kirol bakar bat egitea batzuk egitearen gainetik (94. taula).

## 94. taula

KIROLA EGITEA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«KIROLEN BAT EGITEN DUZU?»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Bakarra egiten dut	44,1	34,0	34,4
Batzuk egiten ditut	8,9	17,5	25,6
Ez dut bat ere egiten	47,0	48,5	40,0
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

«Ikasleak» dira kirol gehien egiten dutenak eta gutxien egiten dutenak, berriz, «langileak»; pentsa dezakegu gazteak ikasketak utzi eta denbora asko lan-jardunean ematen duen neurrian, denbora gutxiago duela kirola egiteko (95. taula).

## 95. taula

KIROLA EGITEA, LANBIDEAREN ARABERA (%)

«KIROLEN BAT EGITEN DUZU?»	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LANEAN ARI DA	LANGABEA
Bakarra egiten dut	42,4	28,8	32,2	35,7
Batzuk egiten ditut	16,7	19,3	24,3	22,9
Ez dut bat ere egiten	40,9	51,9	43,6	41,4
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Gizarte-klaseak lotura oso estua du kirola egitearekin; sozialki zenbat eta beherago egon orduan eta txikiagoa da «kirolen bat egiten dutenen» pisua, «inolako kirolik egiten ez dutenen» aldean, %58,5koa baita hau.

Taula horrek ematen duen beste informazio bat da maila «altu/ertain-altua», kirol gehiena egiten dutenak izateaz gain, bertan dagoela zabalduen «kirol batzuk egiteko joera» (96. taula).

### 96. taula

KIROLA EGITEA, GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)

«KIROLEN BAT EGITEN DUZU?»	ALTUA/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
Bakarra egiten dut	34,6	36,4	28,0
Batzuk egiten ditut	24,8	17,5	13,4
Ez dut bat ere egiten	40,6	46,2	58,5
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

### Norberak kirola zein maiztasunekin egiten duen

Kirola egiten duen %54,5 horretatik, gehienek, %63,6, «astean bitan baino gehiagotan» egiten dute, %28,5ek «astean behin edo bitan» eta %7,9k bakarrik egiten du «noizean behin» (97. taula).

### 97. taula

KIROLA EGITEKO MAIZTASUNA (%)

«OROKORREAN, ZEIN MAIZTASUNEKIN EGITEN DUZU KIROLA?»	%
Astean behin/bitán	28,5
Astean bitan baino gehiagotan	63,6
Noizean behin	7,9
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

\* n = kirol bat edo batzuk egiten dituzten pertsonak.

Aurreko taulan islatuta agertzen den bezala, klase «altu/ertain-altukoak» dira kirola maizen egiten dutenak eta, gainera, kirol hori gehienbat «astean bitan baino gehiagotan» egiten dute. Kirola egiten denean, argi dagoena da horretan denbora eman behar dela (98. taula).

### 98. taula

KIROLA EGITEKO MAIZTASUNA, GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)

«OROKORREAN, ZEIN MAIZTASUNEKIN EGITEN DUZU KIROLA?»	ALTUA/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
Astean behin/bitán	27,3	27,9	41,2
Astean bitan baino gehiagotan	67,4	64,1	41,2
Noizean behin	5,3	8,0	17,6
<b>PORTZENTAJEKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

\* n = kirol bat edo batzuk egiten dituzten pertsonak.

### Lagunek kirola zein maiztasunekin egiten duten

Inkestatuen heren batek baino gehiagok (%38,4) dio bere lagunek kirola «beraien antzera» egiten dutela maiztasunari dagokionez; %24,2k dio «beraiek baino sarriago», %20,6k «beraiek baino gutxiago» eta %14,1ek, aldiz, «ez du kirolik egiten». Hortik atera dezakegu kirola egiten duten gazte gehienek beren berdinekin dituztela harremanak, neurri handi batean.

Gizonen ustez, beren lagunek kirola beraien «antzera» egiten dute edo «ez hain sarri» eta, aldiz, emakumeen iritziz «antzera» edo «sarriago» egiten dute; generoak ematen duen beste desberdintasun bat da emakumeentzat «kirolik egiten ez dutenen» kopurua gizonentzat baino handiagoa dela (99. taula).

## 99. taula

LAGUNEK KIROLA EGITEKO MAIZTASUNA, GENEROAREN ARABERA (%)

«ZURE LAGUNARTEAN, GEHIENEK ZEIN MAIZTASUNEKIN EGITEN DUTE KIROLA?»	GIZONA	EMAKUMEA
Zure maiztasunarekin	43,0	33,9
Zurea baino handiagoa den maiztasunarekin	21,7	26,7
Zurea baino txikiagoa den maiztasunarekin	23,7	17,4
Ez dute kirolik egiten	9,0	19,1
Ed/Ee	2,6	2,9
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

**Kirola norekin egiten duten**

Kirola egiten duten gazteen %49,9k «beren kasa» egiten dute, %45,7k ordea «klub, elkar-te edo erakunde baten barneko jarduera» gisa egiten du; %3,3k bakarrik egiten du «ikaste-txe edo lantoki bateko jarduera» gisa. Ildo horretan, %53,5ek «lagun-talde» batekin egiten du, %24,1ek «batzuetan bakarrik eta bestetan taldean», %18,1ek «gehienetan bakarrik», %2,2k «ikaskide/lankide-talde batekin» eta %1,3k «familiako norbaitekin».

Kirola batez ere beste kirolari batzuekin egiten da, batez ere gizonen artean, neurri handi batean «lagun-talde batekin» egiten baitute; emakumeek ere konpainia aukeratzen duten arren, haien kasuan pisu handiagoa du bakarka egiteak (100. taula).

**Kirola non egiten duten**

%51,0k «atari zabalean» egiten du eta %45,0ek «gimnasio batean» (Ed/Ee, %4,0).

Gizonak kirola egiteko batez ere «atari zabala» aukeratzen duen bezala, ia ehuneko be-rean, emakumeak «gimnasioa» aukeratzen du; gizonak nahiago du kirola eremu irekietan egi-tea eta emakumeak horretarako diren esparru espezifikoetan (101. taula).

**100. taula**

KIROLA EGITEKO KONPAINIA, GENEROAREN ARABERA (%)

«NORMALEAN, NOREKIN EGITEN DUZU KIROLA?»	GIZONA	EMAKUMEA
Lagun-taldean	58,8	45,3
Batzuetan bakarrik, besteetan taldean	25,0	22,8
Gehienetan bakarrik	14,0	24,5
Senideren batekin	0,0	3,4
Ikaskide edo lankide talderen batekin	1,7	3,0
Ed/Ee	0,4	1,0
<b>PORTZENTAJEKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

\* n = kirol bat edo batzuk egiten dituzten pertsonak.

**101. taula**

KIROLA EGITEKO TOKIA, GENEROAREN ARABERA (%)

«KIROLA EGITEN DUZUNEAN, ZER DA OHIKOENA?»	TOTAL	GIZONA	EMAKUMEA
Gimnasioan egitea	51,0	31,9	65,4
Atari zabalean egitea	45,0	63,8	31,2
Ed/Ee	4,0	4,3	3,4
<b>PORTZENTAJEKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

\* n = kirol bat edo batzuk egiten dituzten pertsonak.

**Kirola zergatik egiten duten**

Kirola egiten da batez ere «gozatzeko» eta «ariketa fisikoa» egiteko. Beraz, %33,5ek «gozatzeko eta denbora pasatzeko» egiten du, %20,6k «kirola gustatzen zaiolako» eta %18,0k «ariketa fisikoa egiteko». Gainerako arrazoiak ondoko taulan ikusiko ditugu (102. taula).

**102. taula**  
KIROLA EGITEKO ARRAZOIAK (%)

«NAGUSIKI, ZEIN ARRAZOIRENGATIK EGITEN DUZU KIROLA?»	%
Dibertsioagatik eta denbora pasatzeagatik	33,5
Kirola gustatzen zaidalako	20,6
Ariketa fisikoa egiteagatik	18,0
Osasunari eusteagatik/hobetzeagatik	7,2
Lagunekin elkartzeagatik	5,9
Lirain mantentzeagatik	5,1
Ihes egiteagatik	3,3
Erlaxatzeagatik	3,1
Lehian aritzea gustuko dudalako	0,9
Beste arrazoi batengatik	0,9
Ed/Ee	1,4
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

\* n = kirol bat edo batzuk egiten dituzten pertsonak.

*b) Kirola egiten duen jendea nolako den*

Interesgarria iruditu zaigu gazteek kirol-jardueren bat egiten dutenak nola ikusten eta katalogatzen dituzten jasotzea. Hala, bada, bi erantzun handi nabarmentzen dira: alde batetik eta %36,8rekin, «gehienak baino osasuntsuagotzat» hartzen dituzte, beste alde batetik eta %30,9rekin, «gehienak baino aktiboagoak» direla diote. Aktiboak eta osasunak osasunarekin lotura estua duten bi hitz dira eta, beraz, esan dezakegu kirola egiten dutenak beren osasuna zaintzen duten pertsonatzat hartuak direla. %5,9k gainera «gehienak baino dibertigarriagoak» ikusten dituzte, %1,4k «beste ezer egiten ez dakien jendea dela» eta %1,1ek «gehienak baino aspergarriagoak».

Oro har, hiru lurraldeetan antzeko iritzia dute kirola egiten duten pertsonen buruz; «aktiboagoak» eta «osasuntsuagoak» zalantzarik gabe, baina lurralde bakoitzean zenbait ñabardura daude. Ideia horren batukaria Araban da sendoena, beste bi lurraldeetako kopurua baino %10,0 gehiagorekin, eta aldiz «Ed/Ee» erantzunak Bizkaian eta Gipuzkoan ditu ehuneko handienak edo, beste modu batera esanda, ez dira kirola egiten dutenak definitzeko gai sentitzen (103. taula).

### 103. taula

KIROLA EGITEN DUTEN PERTSONEI BURUZKO USTEAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«ZURE USTEZ, NOLAKOAK DIRA BESTE ZALETASUNEN ARTEAN, KIROL MOTAREN BAT EGITEN DUTENAK?»	GUZTIRA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Gehienak baino dibertigarriagoak	5,9	6,9	5,0	7,0
Ez dakite beste ezer egiten	1,4	0,5	1,7	1,1
Gehienak baino aktiboagoak	30,9	32,2	35,1	23,4
Gehienak baino osasuntsuagoak	36,8	45,0	31,3	42,2
Gehienak baino aspergarriagoak	1,1	2,0	1,2	0,7
Ed/Ee	23,6	13,4	25,6	25,6
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

#### c) Jarduera fisikoak egiten dituztenen artean dopingak duen eragina

##### **Gimnasioetan eta bestelako kiroldegietan ariketa fisikoa, kirolak eta jolas-jarduerak egiten dituztenen artean dopingaren eta produktu suspergarrien erabileraren hedapen-maila**

Gimnasioetan eta bestelako kiroldegietan ariketa fisikoak, kirolak eta jolas-jarduerak egiten dituztenen artean gaurkotasun handikoak diren eta goi-mailako kirolari askori erasaten

dieten dopinga eta produktu suspergarriak erabiltzeak eragina du aztertzen ari garen taldean. %35,8ren ustez dopingaren hedapen-maila hori «dezente» da; %20,7k uste du «asko» dela; %17,5ek «gutxi» eta %4,6k dio dopingaren hedapen-maila «batere ez» dela; gainera, «Ed/Ee» erantzunen ehunekoa adierazgarria da, handia baita, %21,4rekin. Dirudenez, inkestatuentzat ez da erraza gai horri buruz duten iritzia ematea. Hala ere, garrantzitsua iruditzen zaigu aipatzea gutxienez %56,5, «dezente eta asko» batuta, ohartzen dela beraiek ezagutzen eta egiten dituzten kirol-jardueretan dopinga badela (104. taula).

#### 104. taula

DOPINGAREN ZABALKUNDE MAILA (%)

«ZER NEURRITAN ESANGO ZENUKE DOPINGA ZABALDUTA DAGOELA GAUR EGUN KIROLA EGITEN DUTENEN ARTEAN?»	%
Asko	20,7
Dezente	35,6
Gutxi	17,5
Batere ez	4,6
Ed/Ee	21,4
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

#### Dopinga gizarte-arazo gisa

Dopinga gizarte-arazo gisa nola kalifikatzen duten galdetu zaienean %46,2k erantzun du «nahiko larria», %21,2k «ez oso larria», %18,0k «oso larria» eta %6,2k «batere larria ez». Dopinga «oso edo nahiko larritzat» hartzen dutenak batuta ateratzen den kopurua %64,2koa da eta nahiko adierazgarria iruditzen zaigu; izan ere, inkestatutako gazte gehienek kirola egitean produktu suspergarriak erabiltzen direla eta hori kaltegarria dela badakitela esan dezakegu (105. taula).

**105. taula**

DOPINGA ARAZO SOZIAL GISA (%)

«EGOERA BERRI HAU ZER MODUKO ARAZO SOZIALA DELA ESANGO ZENUKE?»	%
Oso larria	18,0
Nahiko larria	46,2
Ez oso larria	21,2
Batere larria ez	6,2
Ed/Ee	8,4
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

Emakumeentzat kirola egitean dopinga arazo bat izateak eragin askoz ere handiagoa du gizonen artean baino; «asko eta nahiko» batuta ateratzen den kopurua %72,2koa da, gizonen %56,2ren aldean; aldi berean, gizonak dira gehienbat arazo hori arazo dela «gutxi edo batere ez» uste dutenak (106. taula).

**106. taula**

DOPINGA ARAZO SOZIAL GISA, GENEROAREN ARABERA (%)

«EGOERA BERRI HAU ZER MODUKO ARAZO SOZIALA DELA ESANGO ZENUKE?»	GIZONA	EMAKUMEA
Oso larria	15,1	20,9
Nahiko larria	41,1	51,3
Ez oso larria	26,6	15,9
Batere larria ez	9,4	3,0
Ed/Ee	7,7	9,0
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Dopinga gizarte-arazotzat hartzea antzekoa da hiru adin-taldeetan «asko edo dezente» ikusteari dagokionez; desberdintasun handienak dira «gutxi» balioan gizarte-arazo gisa ikustearekin adostasun gutxien dutenak talde gazteenean —15-19 urte— daudela eta oro har irizirik ez dutenak ere gazteenak direla (%12,2) (107. taula).

107. taula

DOPINGA ARAZO SOZIAL GISA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«EGOERA BERRI HAU ZER MODUKO ARAZO SOZIALA DELA ESANGO ZENUKE?»	15-19	20-24	25-29
Oso larria	19,7	17,7	17,0
Nahiko larria	47,2	47,4	44,0
Ez oso larria	16,1	22,6	23,8
Batere larria ez	4,9	5,7	7,9
Ed/Ee	12,2	6,6	7,3
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Araba da dopinga gizarte-arazo bat dela gehien pentsatzen duena, bertan «asko eta dezente» balioen baturak %73,2 ematen baitu; Gipuzkoa nabarmentzen da, aldiz, «gutxi eta batere ez» balioek indar handiena hiru lurraldeetatik bertan dutelako (108. taula).

108. taula

DOPINGA ARAZO SOZIAL GISA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)


«EGOERA BERRI HAU ZER MODUKO ARAZO SOZIALA DELA ESANGO ZENUKE?»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Oso larria	17,3	17,0	20,0
Nahiko larria	55,9	45,2	43,6
Ez oso larria	15,8	22,3	21,8
Batere larria ez	5,4	4,6	9,2
Ed/Ee	5,4	10,9	5,4
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

### 2.3.2.4. Bide segurtasuna

#### a) Ohiko ibilgailua

Gazte gehienek ibilgailu motaren bat erabiltzen dute (%76,2k). Horien artean erabilienak «auto berria», «auto zaharra» eta «bizikleta» dira. Inkestatuen heren batek gutxi gorabehera horiek darabiltzabela diote. «Furgoneta», «kamioia», «ziklomotorra», «kirol-autoa» edo «lur orotako ibilgailua» eta «motozikleta», berriz, gutxi erabiltzen dira (%6,6en eta %4,5en artean) (34. grafikoa).

**34. grafikoa**  
OHIKO IBILGAILUA (%)



\* Ibilgailu mota bakoitza normalean erabiltzen dutela dioten pertsonen ehunekoa.

«Bizikleta», «ziklomotorra» eta «motozikleta» erabiltzeko moduari dagokionez, lotura garbi bat dago generoaren arabera, gizonak baitira beren joan-etorrietan hiru mota horietako ibilgailuak gehien erabiltzen dituztenak, bereziki «bizikleta». Motordun ibilgailuen erabileran, aldiz, ez dago alderik (109. taula).

**109. taula**

OHIKO IBILGAILUA, GENEROAREN ARABERA (%)

«IBILGAILU HAUETAKO ZEIN ERABILTZEN DUZU NORMALEAN?»	GIZONA	EMAKUMEA
Bizikleta	35,1	22,1
Ziklomotorra	6,9	3,9
Motozikleta	6,4	2,6

\* Ibilgailu mota bakoitza normalean erabiltzen dutela dioten pertsonen ehunekoa.

Ibilgailu guztiak gehiago erabiltzeko joera dago adinean gora egin ahala, «bizikleta» eta «ziklomotorra» izan ezik, gazteenekin lotuago baitaude (15 eta 19 urte bitarteko gazteekin) (110. taula).

**110. taula**

OHIKO IBILGAILUA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«IBILGAILU HAUETAKO ZEIN ERABILTZEN DUZU NORMALEAN?»	15-19	20-24	25-29
Auto berria	22,6	36,2	44,8
Auto zaharra	18,4	36,0	35,5
Bizikleta	37,1	28,5	21,7
Furgoneta edo kamioia	4,7	5,3	9,6
Ziklomotorra	7,5	6,1	2,8

\* Ibilgailu mota bakoitza normalean erabiltzen dutela dioten pertsonen ehunekoa.

Adierazgarriak dira lurraldeka dauden aldeak. Bizkaian erabiltzen dituzte gutxien «auto zaharra» eta «bizikleta». Eta «ziklomotorra» eta «bizikleta», berriz, Gipuzkoan erabiltzen dira gehien (111. taula).

**111. taula**

OHIKO IBILGAILUA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«IBILGAILU HAUETAKO ZEIN ERABILTZEN DUZU NORMALEAN?»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Auto zaharra	37,9	27,8	33,3
Bizikleta	37,9	19,4	39,8
Ziklomotorra	3,0	4,0	8,8

\* Ibilgailu mota bakoitza normalean erabiltzen dutela dioten pertsonen ehunekoa.

Lanbidearen aldagaiak barne-desberdintasun adierazgarriak ematen ditu: «auto zaharra», «furgoneta» eta «motozikleta» dira «langileek» beren joan-etorrietan gehien erabiltzen dituztenak eta «bizikleta» berriz «ikasleek» gehien erabiltzen dutena (112. taula).

**112. taula**

OHIKO IBILGAILUA, LANBIDEAREN ARABERA (%)

«IBILGAILU HAUETAKO ZEIN ERABILTZEN DUZU NORMALEAN?»	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LANEAN ARI DA	LANGABEA
Auto berria	25,7	47,4	36,0	33,3
Auto zaharra	27,6	35,2	34,7	28,3
Bizikleta	36,4	21,8	26,2	23,3
Furgoneta edo kamioia	3,8	9,8	7,6	5,8
Motozikleta	3,5	6,8	3,1	3,3

\* Ibilgailu mota bakoitza normalean erabiltzen dutela dioten pertsonen ehunekoa.

b) *Ibilgailuetan babes-neurriak zenbat erabiltzen dituzten*

Har daitezkeen eta legez hartu behar diren «babes-neurri» desberdinek erabilera oso desberdina dute. «Norbera gidatzen ari denean segurtasun-uhala erabiltzea» da gehien onartzen den segurtasun-elementua, %94,5ekin; «gidatzen ari ez denaren segurtasun-uhalaria» edo «motorrean eta bizikletan doazenen kaskoari», dirudienez, garrantzi gutxiago ematen zaie. Hala ere, «kaskoaren» erabilera, «bizikletan» izan ezik, oso zabaldua dago (113. taula).

**113. taula**  
BABES NEURRIEN ERABILERAREN MAIZTASUNA (%)

«ADIERAZ EZAZU ZEIN MAIZTASUNEKIN ERABILTZEN DITUZUN ONDOKO BABES NEURRIAK»	IBILGAILU BAKOITZAREN ERABILTZAILEEN %, BIZTANLERIA OSOAREN GAINEAN	BETI	BATZUETAN	INOIZ EZ	ED/EE	PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA
Gidatzen ari bazara, segurtasun-uhala	67,0	94,5	1,5	0,2	3,8	100,0
Gidatzen ari ez bazara, segurtasun-uhala	97,0	85,9	10,7	2,4	0,7	100,0
Motorrean atzean zoazenean, kaskoa	40,9	80,5	5,2	5,4	8,9	100,0
Motorrean gidatzen zoazenean, kaskoa	21,9	70,0	2,0	3,3	24,8	100,0
Bizikletan zoazenean, kaskoa	48,4	18,0	10,9	65,0	6,1	100,0
Monopatinean zoazenean, kaskoa	19,5	7,7	3,6	64,2	24,5	100,0

Oro har, gazteek segurtasun-uhala erabiltzeko joera dute, bereziki gidariak badira. Alabaina, jarrera ez da bera motorretan kaskoa erabiltzeari dagokionez, eta beti erabiltzen ez dutenen

portzentajea dezentea da. Azkenik, gazte gutxik erabiltzen dute kaskoa bizikletan edo monopatinean ibiltzeko orduan.

Osasun Sailak<sup>4</sup> darabiltzan datuek diotenaren arabera, oraindik ere trafiko istripuak EAE-ko gazteen hilkortasunaren kausa nagusia dira, bereziki mutilen artean, jaitsiera arina igaritzen bada ere (114. taula).

#### 114. taula

HERIOTZA TASAK 100.000 BIZTANLEKO, 15ETIK 29 URTERA BITARTEKO  
EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEAN NAGUSIAK DIREN ARRAZOIEN ARABERA,  
1992-1996AN ETA 2002-2003AN

EAE	1992/96			2002/03			DIFERENTZIA 2002/03-1992/96		
	Gizona	Ema- kumea	Bi sexuak	Gizona	Ema- kumea	Bi sexuak	Gizona	Ema- kumea	Bi sexuak
Motordun ibilgailuekin izandako trafiko- istripuak	29,3	7,0	18,3	26,2	9,0	17,8	-3,1	2,0	-0,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

Zenbat eta adinez nagusiagoa izan, orduan eta kontzientzia handiagoa «segurtasun-uhala» nahiz «kaskoa» erabiltzeko, baina 20-24 urtekoen taldea da permisiboena urte gehiago betetzen dituen arte (115. taula).

<sup>4</sup> GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA. «15 eta 29 urte bitarteko gazteen hilkortasuna»; 6. or. In: *Gazteen adierazleak*. 1. edizioa. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007.

**115. taula**

BABES NEURRIEN ERABILERAREN MAIZTASUNA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«ADIERAZ EZAZU ZEIN MAIZTASUNEKIN ERABILTZEN DITUZUN ONDOKO BABES NEURRIAK»	IBILGAILU BAKOITZAREN ERABILTZAILEEN %, BIZTANLERIA OSOAREN GAIANEAN	15-19			20-24			25-29		
Gidatzen ari ez bazara, segurtasun-uhala	97,0	84,0	83,0	90,7						
Bizikletan zoazenean, kaskoa	48,4	15,3	14,5	25,1						
Monopatinean zoazenean, kaskoa	19,5	8,3	6,1	8,8						

\* Dagokion babes-neurria beti erabiltzen dutela dioten pertsonen ehunekoa.

Gipuzkoarrak dira «gidatzen ari ez direnean» «uhala» eta motorrean doazenean «kaskoa» gutxien erabiltzen dituztenak, eta, hala ere, «monopatinean» doazenean «kaskoa» gehien erabiltzen dutenak dira (116. taula).

**116. taula**


BABES NEURRIEN ERABILERAREN MAIZTASUNA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«ADIERAZ EZAZU ZEIN MAIZTASUNEKIN ERABILTZEN DITUZUN ONDOKO BABES NEURRIAK»	IBILGAILU BAKOITZAREN ERABILTZAILEEN %, BIZTANLERIA OSOAREN GAIANEAN	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
Gidatzen ari ez bazara, uhala	97,0	87,1	87,8	81,8						
Motorrean atzean zoazenean, kaskoa	40,9	76,1	83,3	77,2						
Monopatinean zoazenean, kaskoa	19,5	4,0	5,2	15,7						

\* Dagokion babes-neurria beti erabiltzen dutela dioten pertsonen ehunekoa.

### c) Trafiko-istripuen kausak

Inkestaturen heren baten baino gehiagoren ustez, «abiadura azkarregia» —%36,4— eta «alkoholaren kontsumoa» —%32,3— dira trafiko-istripuen kausa argien artean nabarmen-tzen diren bi faktoreak. Istripuei egozten zaizkien gainerako kausak oso desberdinak eta ezta-baidagarriak dira: «gidariaren agresibitatea», «nekea» edo «esperientziarik eza», besteak beste, %5,1era ere ez dira iristen (35. grafikoa).



Emakumeek trafiko-istripuak askoz hein handiagoan egozten dizkiote «alkoholaren kontsumoari» gizonen baino (%41,9 eta %30,9, hurrenez hurren). «Abiadura azkarregia» trafiko istripuen kausa gisa, ordea, modu berdintsuan antzematen da emakumeen eta gizonen artean (%33,5 eta %31,1, hurrenez hurren).

Zenbat eta adinez zaharragoa, orduan eta gutxiago pentsatzen da «alkoholaren kontsumoak» trafiko-istripuetan eragina duenik, eta gehiago pentsatzen da «abiadura azkarregiak» eragina baduela (117. taula).

**117. taula**

TRAFIKO ISTRIPUEN KAUSAK, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«ZURE USTEZ, ZER DA TRAFIKO ISTRIPUETAN ERAGINIK HANDIENA DUENA?»	15-19	20-24	25-29
Abiadura azkarregia	28,6	37,3	41,8
Alkoholaren kontsumoa	37,1	32,5	28,0

Aldi berean, gipuzkoarrak dira «abiadura azkarregia» nahiz «alkoholaren kontsumoa» trafiko-istripuen kausa zuzena direla gehien pentsatzen dutenak (118. taula).

**118. taula**

TRAFIKO ISTRIPUEN KAUSAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«ZURE USTEZ, ZER DA TRAFIKO ISTRIPUETAN ERAGINIK HANDIENA DUENA?»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Abiadura azkarregia	35,5	35,8	38,0
Alkoholaren kontsumoa	29,1	32,2	33,9

## 2.4. OSASUNAREN SUSTAPENA ETA HEZKUNTZA


### 2.4.1. Sexualitate arazo baten aurrean duten jarrera

Euskadiko gazteek, sexualitate-arazo bat izanez gero, «lagunengana» (%39,5) eta «familiarengana» (%20,0) joko lukete nagusiki. Osasun-zerbitzuen artean, «mediku orokorrak» (%9,1) arrakasta handiagoa izango luke «ginekologoak» (%5,0) edo «familia plangintzako zentroak» (%3,8) baino. Azpimarratzekoa da hirugarren iturri garrantzitsua «nora jo ez jakitea» izatea.

Beste alde batetik, gazteek sexualitate-arazoen aurrean «lagunengana» jotzen dute gehien, baina «familiarengana» jotzea jotzea gustatuko litzaieke (36. grafikoa).

36. grafikoa

SEXUALITATEAREKIN LOTUTAKO ARAZO BAT BAZENU,  
NORENGANA JOKO ZENUKE?, NORENGANA GUSTATUKO LITZAIZUKE JOTZEA? (%)



Sexualitateari loturiko balizko arazo baten aurrean, gizonak eta emakumeek antzeko jokaerak dituzte. Antzeman daitekeenez, neskek hein handiagoan jotzen dute lagunengana eta gurasoengana, eta mutilek neurri handiagoan ez dakite nora jo edo nora gustatuko litzaiekeen jotzea kasu horretan (119. taula).

**119. taula**

SEXUALITATE ARAZOETARAKO KONPONBIDEEN ITURRIAK, GENEROAREN ARABERA (%)

«SEXUALITATEAREKIN LOTUTAKO ARAZO BAT BAZENU, NORENGANA JOKO ZENUKE?, NORENGANA GUSTATUKO LITZAIZUKE JOTZEA?»	GIZONA	EMAKUMEA
Lagunengana joko nuke	36,8	42,4
Gurasoengana joko nuke	20,3	21,0
Ez dakit nora joko nukeen	13,9	8,7
Lagunengana jo nahi nuke	21,9	25,7
Gurasoengana jo nahi nuke	21,7	27,7
Ez dakit nora jo nahi nukeen	22,7	12,1

Adinak gora egin ahala, gutxitu egiten dira «lagunaren» irudia nahiz «famiariarena» inkestatuak sexu-arazo baten aurrean izan ditzakeen laguntza-iturri gisa.

«Adiskidetasuna» balio egonkorra da ahalezko «norengana joko lukeen» aukeran adin guztietan, eta «famiariak» berriz pisua galtzen du adinak gora egiten duen neurrian (120. taula).

«Lagunek» Bizkaian lortzen dituzte baliorik altuenak sexu-arazo baten aurrean. Gipuzkoarrek «gurasoengana joko lukete» beste bi lurraldeetan baino gehiago, eta Araban «norengana jo jakingo ez luketene» beste bi lurraldeetan baino balio altuagoak dituzte (121. taula).

**120. taula**

SEXUALITATE ARAZOETARAKO KONPONBIDEEN ITURRIAK, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«SEXUALITATEAREKIN LOTUTAKO ARAZO BAT BAZENU, NORENGANA JOKO ZENUKE?, NORENGANA GUSTATUKO LITZAIZUKE JOTZEA?»	15-19	20-24	25-29
Lagunengana joko nuke	43,4	40,6	35,2
Gurasoengana joko nuke	31,4	19,3	13,4
Ez dakit nora joko nukeen	7,8	13,2	11,9
Lagunengana jo nahi nuke	23,9	23,7	23,8
Gurasoengana jo nahi nuke	36,1	23,7	16,6
Ez dakit nora jo nahi nukeen	14,3	19,1	18,0

**121. taula**SEXUALITATE ARAZOETARAKO KONPONBIDEEN ITURRIAK,  
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«SEXUALITATEAREKIN LOTUTAKO ARAZO BAT BAZENU, NORENGANA JOKO ZENUKE?»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Lagunengana joko nuke	37,9	41,0	38,0
Gurasoengana joko nuke	21,7	18,6	23,6
Ez dakit nora joko nukeen	16,3	10,2	10,8

### 2.4.2. Drogei loturiko arazo baten aurrean duten jarrera

Drogei loturiko arazo baten aurrean ere «gurasoak» eta «lagunak» nagusitzen dira izan daitezkeen gainerako laguntzen gainera, bai «joko luke» aukeran bai eta «jo nahi luke» aukeran ere. Azpimarratu behar dugu ahalezko «jo nahi luke» aukeran «nora jo ez jakitea» (%10,6) dela gehien erantzundako hirugarren aldagaia, «mediku espezialistaren» (%8,6) eta «droga-mendekotasunen zentroaren» (%5,9) aurretik (122. taula).

**122. taula**

DROGA ARAZOETARAKO KONPONBIDEEN ITURRIAK (%)

«DROGEKIN LOTUTAKO OSASUN ARAZO BAT BAZENU...	NORENGANA JOKO ZENUKE?	ETA NORENGANA GUSTATUKO LITZAIZUKE JOTZEA?»
Gurasoengana	42,8	37,8
Lagunengana	20,2	11,9
Ez daki nora joko lukeen	10,6	16,9
Mediku espezialistarengana	8,6	11,4
Droga-mendekotasunen zentro batera	5,9	11,2
Mediku orokorrarengana	4,4	4,0
Neba-arrebengana	3,8	3,0
Gazteentzako zentro batera	1,6	2,2
Inorengana edo inora ez	1,6	0,9
Drogei buruzko informaziorako telefono batera	0,4	0,4
Nire bikotekidearengana	0,1	0,2
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

\* n = baiezko erantzuna eman duten pertsonen ehunekoa.

### 2.4.3. Interneten erabilera

Internet informazioa bilatzeko iturri bilakatu da inkestatu askorentzat; izan ere, %44,1ek dio han sartzen dela sexuari, drogei, elikadurari, astialdiari eta abarri buruzko informazio sako-nagoa lortzeko; gainerako %53,0k ordea ez du baliabide hori erabiltzen (Ed/Ee, %2,9).

Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta gehiago jotzen da «Internetera» sexuari, drogei, elikadurari, astialdiari, eta abarri buruzko informazioa lortzeko (15-19 urtekoen artean, %37,9; 20-24 urtekoen artean, %45,2; 25-29 urtekoen artean, %48,0).

### 2.4.4. Alkoholaren neurritz kanpoko kontsumoari buruzko informazioa

Inkestatutako gazteen erdiak baino gehiagok —%54,4k— irakasleen informazioa jaso du alkoholaren gehiegizko kontsumoaren prebentzioari buruz, alegia, ikerketa honetan garrantzitsua den beste aztergai bati buruz. %41,2k berriz dio ez duela informaziorik jaso.

Informazio hori baliagarritzat hartzen dute inkestatutako gazteen %64,7k eta baliagarria ez dela uste dute %28,4k. %6,9k ez diote galderari erantzun.

Adinari dagokionez, irakaslearen eragina, alkoholaren neurritz kanpoko kontsumoaren prebentzioari buruzko informatzaile gisa, handiagoa da gazteen artean (123. taula).

#### 123. taula

IRAKASLEEK ALKOHOLAREN GEHIEGIZKO KONTSUMOAREN PREBENTZIOARI BURUZ EMATEN DUTEN INFORMAZIOA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«JASO AL DUZU IRAKASLEEN ALDETIK ALKOHOLAREN NEURRIZ KANPOKO KONTSUMOAREN PREBENTZIOARI BURUZKO INFORMAZIORIK?»	15-19	20-24	25-29
BAI	78,7	54,0	34,8

Gazteek alkoholaren neurritz kanpoko kontsumoaren prebentzioari buruzko informazioa irakasleengandik gehienbat Araban jasotzen dute (%60,6), eta Gipuzkoan, berriz, gutxien, %52,1ekin (124. taula).

**124. taula**

IRAKASLEEK ALKOHOLAREN GEHIEGIZKO KONTSUMOAREN PREBENTZIOARI BURUZ EMATEN DUTEN INFORMAZIOA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«JASO AL DUZU IRAKASLEEN ALDETIK ALKOHOLAREN NEURRIZ KANPOKO KONTSUMOAREN PREBENTZIOARI BURUZKO INFORMAZIOARIK?»	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
BAI	60,6	54,0	52,1

### 2.4.5. Legez kanpoko drogen kontsumoaren prebentzio kanpainen baliagarritasuna

Komunikabideetako kanpainen legez kanpoko drogen kontsumoa prebenitzeko baliabide gisa duten balioari buruz zein iritzi duten galdetu zaie gazteei. Alde horretatik, inkestatuen %55,9ren ustez kanpaina horiek ez dute prebentzio-ekintza gisa balio eta %34,4ren ustez baliagarriak dira (%10,5k Ed/Ee) (125. taula).

**125. taula**

PUBLIZITATE KANPAINEK LEGEZ KANPOKO DROGEN KONTSUMOA PREBENITZEKO DUTEN BALIAGARRITASUNA (%)

«KOMUNIKABIDEETAKO KANPAINEK LEGEZ KANPOKO DROGEN KONTSUMOA PREBENITZEKO BALIAGARRIAK DIRELA USTE AL DUZU?»	%
Bai	34,4
Ez	55,9
Ez daki	9,1
Ez du erantzun	0,6
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

Emakumeak (%37,2) gizonak (%31,5) baino konfiantza handiagoa du legez kanpoko drogen kontsumoari buruz komunikabideetako kanpainen duten prebentzio-funtzioan.

Urteak betetzen diren neurrian konfiantza gutxiago izaten da komunikabideetan egiten diren legez kanpoko drogen kontsumoari buruzko kanpainen prebentzio-funtzioan; beraz, ikusten dugunez 15etik 19 urtera bitarteko gazteen %42,3k dio konfiantza «baduela» eta, aldiz, 25-29 urtekoen «baietza» %30,4ra jaisten da (126. taula).

### 126. taula

PUBLIZITATE KANPAINEK LEGEZ KANPOKO DROGEN KONTSUMOA PREBENITZEKO DUTEN BALIAGARRITASUNA, GENEROAREN ETA ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«KOMUNIKABIDEETAKO KANPAINEK LEGEZ KANPOKO DROGEN KONTSUMOA PREBENITZEKO BALIAGARRIAK DIRELA USTE AL DUZU?»	GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA	15-19	20-24	25-29
BAI	34,4	31,5	37,2	42,3	32,2	30,4

Komunikabideetan egiten diren legez kanpoko drogen kontsumoari buruzko prebentzio-funtzioan konfiantza gutxien Gipuzkoan dute —%30,8—, eta Bizkaian gehien —%36,3—; Araban, %35,0.

Komunikabideetan egiten diren legez kanpoko drogen kontsumoari buruzko kanpainen prebentzio-funtzioari dagokionez, bai maila «altu/ertain-altuak» (%35,4) bai eta maila «ertainak» (%35,3) ere antzeko irizpidea dute, hiru inkestatutatik batek argi ikusten baitu prebentzio-funtzio hori; alderantziz, maila «ertain-baxu/baxua» da eszeptikoena komunikabideen funtzioari dagokionez (%22,7) (127. taula).

### 127. taula

PUBLIZITATE KANPAINEK LEGEZ KANPOKO DROGEN KONTSUMOA PREBENITZEKO DUTEN BALIAGARRITASUNA, GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)

«KOMUNIKABIDEETAKO KANPAINEK LEGEZ KANPOKO DROGEN KONTSUMOA PREBENITZEKO BALIAGARRIAK DIRELA USTE AL DUZU?»	GUZTIRA	ALTUA/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
BAI	34,4	35,4	35,3	22,7

## 2.5. SISTEMA MEDIKOA

### 2.5.1. Medikarengana egindako bisiten maiztasuna eta egindako kontsulta medikoen tipologia

%27,2 ez da medikuarengana joan azken urtean, %69,8, ordea, joan da (128. taula).

**128. taula**  
MEDIKUARENGANA JOATEA (%)

«AZKENEKO URTEAN MEDIKUARENGANA JOAN ZARA?»	%
Bai	69,8
Ez	27,2
Ed/Ee	3,0
<b>PORTZENTAJEZKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>

Emakumeak neurri handiagoan joan dira medikuarengana gizonak baino. Lurralde historikoei dagokienez, arabarrak dira proportzio handiagoan medikuarengana jo dutenak (129. taula).


**129. taula**  
MEDIKUARENGANA JOATEA, GENEROAREN  
ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)

«AZKENEKO URTEAN MEDIKUARENGANA JOAN ZARA?»	GIZONA	EMAKUMEA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
BAI	66,1	73,6	74,8	68,3	70,3

Medikuarengana joan direnetatik, azkeneko kontsultan, gehienak «mediku orokorrarengana» joan dira (%68,4) (37. grafikoa).

### 37. grafikoa

ZEIN DA AZKEN KONTSULTAN BISITATU DUZUN  
MEDIKUA EDO OSASUN ZERBITZUA?\* (%)



\* n = azken urtean kontsulta medikora joan diren pertsonak.

\*\* Bestelakoak: traumatologia, dermatologia, okulista, enpresako medikua, kardiologoa, psikologoa, kirurgialaria, fisioterapeuta, neumologoa, kirol-medikuntza eta abar.

Era berean, azken urtean medikuarengana joan direnetatik, %53,6 «diagnostiko edota tratamendu» baterako joan dira, %31,8 «azterketa» baterako eta %3,2 «errezetak egiteko»; gainerako arrazoen eragina %1,5etik beherakoa da.

## 2.5.2. Osasun zerbitzu publiko edota pribatuen erabiltzaileak


«Osasun-zerbitzu publikoak» dira, %84,6rekin, EAEko inkestatuek osasun-arazo bat dutenean gehien erabiltzen duten aukera nabarmena, «osasun-zerbitzu pribatura edo aseguru baten zerbitzura» joaten den %11,4aren aldean (38. grafikoa).

Zentzu horretan, eta hurrengo taulak eskaintzen digun informazioari jarraiki<sup>5</sup>, hamarkada batean EAEko kontsulta mediko publikoek izan duten gorakada handia egiazta daiteke; izan ere, urteko 4,2 kontsultatik 5,5era pasatu dira (130. taula).

<sup>5</sup> GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA. «15 eta 29 urte bitarteko gazteen osasuna»; 5. or. In: *Gazteen adierazleak*. 1. edizioa. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007.

**38. grafikoa**

OSASUN ARAZO BAT DUZUNEAN, ZEIN DIRA GEHIEN ERABILTZEN DITUZUN OSASUN ZERBITZUAK? (%)

**130. taula**

15 ETIK 29 URTERA BITARTEKO GAZTE BAKOITZAK 1992. ETA 2002. URTEETAN EGINDAKO KONTSULTA MEDIKOEN BATEZ BESTEKOA, GENEROAREN ARABERA

	1992*	2002	DIFERENTZIA 2002-1992
Gizonak	3,5	4,9	1,4
Emakumeak	5,0	6,1	1,1
Bi sexuak	4,2	5,5	1,3


\* 15etik 29 urtera bitarteko biztanleria 1991n erroldatutakoa da, 1992rako ez baitugu adinaren eta sexuaren araberako daturik.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. EAE01, 1992 eta 2002.

Osasun-arazo baten aurrean «osasun-zerbitzu publikoak» gehien erabiltzen dituztenak arabarrak dira eta, aldiz, «osasun-zerbitzu pribatuen edo aseguru baten zerbitzuen» erabilerak Bizkaian du erantzun handiena (39. grafikoa).

### 39. grafikoa

OSASUN ARAZO BATEN AURREAN  
ERABILTZEN DIREN OSASUN ZERBITZUAK,  
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (%)



Gizarte-klasearen eta «osasun-zerbitzu publiko» edota «pribatuen» arteko korrelazioak lotura estua du; inkestatuaren gizarte-mailak gora egiten duen neurrian, orduan eta garrantzi gutxiago dute zerbitzu publikoek eta gehiago joaten da pribatuetara (131. taula).


### 131. taula

OSASUN ARAZO BATEN AURREAN ERABILTZEN DIREN OSASUN ZERBITZUAK,  
GIZARTE KLASAREN ARABERA (%)

«OSASUN ARAZO BAT DUZUNEAN, ZEIN DIRA GEHIEN ERABILTZEN DITUZUN OSASUN ZERBITZUAK?»	ALTUA/ERTAIN- ALTUA	ERTAINA	ERTAIN- BAXUA/BAXUA
Osasun-zerbitzu publikoak	79,8	86,4	90,7
Osasun-zerbitzu pribatuak	16,7	9,6	5,3

### 2.5.3. Medikuarengana joateko eragozpenak

15etik 29 urtera bitarteko lau gaztetik hiruk baino gehiagok dio «ez duela inolako» eragozpenik medikuarengana joateko —%77,5—, baina %13,9k medikuarengana joateko arazo nagusia «ordutegi desegokiak» direla uste du. Medikuarengana joateko eragozpen gisa emandako gainerako arrazoiak antzemanezinak dira ia: «ez du uste lagundu ahal izango diotenik», «konfiantzarik eza» edo «ez da joaten ausartzen» (40. grafikoa).



Inkestatuei «medikuarengana joateko izan ditzaketen eragozpenei» buruz egin zaien planteamenduan antzeman dugu adinaren aldagaiak datu adierazgarriak ematen dizkigula. Zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta altuagoa da «ez du eragozpenik» balioa, eta adinak gora egiten duen neurrian, areagotu egiten da «ordutegi desegokiak» eragindako eragozpenen sentzazioa (132. taula).

132. taula

MEDIKUARENGANA JOATEKO ERAGOZPENAK, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«ZEIN DIRA MEDIKUARENGANA EDO OSASUN ZERBITZUETARA JOATEKO DITUZUN ERAGOZPENAK?»	15-19	20-24	25-29
Ez dut eragozpenik	84,1	75,1	74,6
Ordutegi desegokiak	8,3	15,5	16,7
Ez dut uste lagundu diezadaketarik	0,3	1,8	1,5
Konfiantzarik eza	2,3	1,1	0,2
Ez naiz joaten ausartzen	0,8	1,3	1,3
Bestelakoak	1,5	4,2	3,9
Ed/Ee	2,8	0,9	1,8
<b>PORTZENTAJEKO GUZTIZKOA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

#### 2.5.4. Zerbitzu medikoen baliagarritasuna gaixotasunak tratatzeko

Osasun-arazo desberdinak tratatzeko osasun-zerbitzuek duten baliagarritasunari dagokionez, «sexu-transmisioko gaixotasun bat» (%58,2), «sexualitate-arazoak» (%51,7) eta «desiratu gabeko haurdunaldi bat» (%51,5) itemetan aurkitzen dute osasun-zerbitzuen baliagarritasun handiena «gaixotasun horiek tratatzeko» (133. taula).

Osasun-zerbitzuei «sexualitate-arazoak tratatzeko», «depresio bat tratatzeko», «anorexia bat tratatzeko», «erretzeari uzteko» eta «desiratu gabeko haurdunaldi bat prebenitzeko» ematen zaie baliagarritasuna handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Baliagarritasun hori «desiratu gabeko haurdunaldi bat tratatzeari» edo «arazo psikologikoak tratatzeari» dagokienean bakarrik dute ia guttiz antzeko portaera bi generoek (134. taula).

**133. taula**

OSASUN ZERBITZUEK GAIXOTASUNAK TRATATZEKO DUTEN BALIAGARRITASUNA (%)

«ZEIN DA, ZURE USTEZ, OSASUN-ZERBITZUEK DUTEN BALIAGARRITASUNA ONDOKO OSASUN ARAZOAK TRATATZEKO EDO HORIEI ARRETA EMATEKO?»	OSO BALIAGARRIAK + NAHIKO BALIAGARRIAK
Sexu-transmisioko gaixotasun bat	58,2
Sexualitate-arazoak	51,7
Desiratu gabeko haurdunaldi bat	51,5
Arazo psikologikoak	49,4
Droga-arazoak	44,3
Depresio bat	42,6
Anorexia	42,2
Erretzeari uztea	37,9

\* Alderdietako bakoitzari «oso baliagarriak» + «nahiko baliagarriak» erantzunak eman dizkioten pertsonen ehunekoak.

**134. taula**

OSASUN ZERBITZUEK GAIXOTASUNAK TRATATZEKO DUTEN BALIAGARRITASUNA, GENEROAREN ARABERA (%)

«ZEIN DA, ZURE USTEZ, OSASUN-ZERBITZUEK DUTEN BALIAGARRITASUNA ONDOKO OSASUN ARAZOAK TRATATZEKO EDO HORIEI ARRETA EMATEKO?»	GIZONA	EMAKUMEA
Sexualitate-arazoak	48,2	55,2
Desiratu gabeko haurdunaldi bat	51,2	51,8
Arazo psikologikoak	48,9	49,9
Depresio bat	40,5	44,8
Anorexia	40,9	43,5
Erretzeari uztea	34,0	41,8

\* Alderdietako bakoitzari «oso baliagarriak» + «nahiko baliagarriak» erantzunak eman dizkioten pertsonen ehunekoak.

Adin desberdinak gainera adierazgarriak dira osasun-zerbitzuei ondokoak tratatzeko ematen zaien baliagarritasunari dagokionez: «desiratu gabeko haurdunaldi bat», «arazo psikologikoak», «droga-arazoak», «depresioa», «anorexia» eta «erretzeari uztea». Izan ere, zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago antzematen da baliagarritasuna aldagai horietan (135. taula).

### 135. taula

OSASUN ZERBITZUEK GAIXOTASUNAK TRATATZEKO  
DUTEN BALIAGARRITASUNA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«ZEIN DA, ZURE USTEZ, OSASUN-ZERBITZUEK DUTEN BALIAGARRITASUNA ONDOKO OSASUN ARAZOAK TRATATZEKO EDO HORIEI ARRETA EMATEKO?»	15-19	20-24	25-29
Desiratu gabeko haurdunaldi bat	56,4	51,2	47,6
Arazo psikologikoak	58,7	49,4	41,4
Droga-arazoak	54,4	42,4	37,9
Depresio bat	50,9	40,4	38,2
Anorexia	53,7	40,6	34,2
Erretzeari uztea	43,6	37,7	33,3

\* Alderdietako bakoitzari «oso baliagarriak» + «nahiko baliagarriak» erantzunak eman dizkioten pertsonen ehunekoa.

«Sexu-arazoak osasun-zerbitzuetan tratatu» ahal izatea «oso/nahiko baliagarritzat» hartzen dute gizarte-klase altuenean; izan ere, maila «altu/ertain-altuan» lortzen du kopuru handiena (%54,2). Era berean, osasun-zerbitzuek «arazo psikologikoak tratatzeko» duten baliagarritasunak aurreko ereduari jarraitzen dio (%55,1), maila «altu/ertain-altu» horretan, «droga-arazoak tratatzeko» (%47,0) eta «depresio bat tratatzeko» (%47,9) bezala (136. taula).

136. taula

OSASUN ZERBITZUEK GAIXOTASUNAK TRATATZEKO  
DUTEN BALIAGARRITASUNA, GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)

«ZEIN DA, ZURE USTEZ, OSASUN-ZERBITZUEK DUTEN BALIAGARRITASUNA ONDOKO OSASUN ARAZOAK TRATATZEKO EDO HORIEI ARRETA EMATEKO?»	ALTU/ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA/BAXUA
Sexualitate-arazoak	54,2	51,7	40,0
Arazo psikologikoak	55,1	48,1	37,3
Droga-arazoak	47,0	44,0	32,0
Depresio bat	47,9	40,8	36,0

\* Alderdietako bakoitzari «oso baliagarriak» + «nahiko baliagarriak» erantzunak eman dizkioten pertsonen ehunekoak.

### 2.5.5. Zerbitzu medikoen baliagarritasuna gaixotasunak prebenitzeko

Era berean, osasun-zerbitzuen prebentziozko baliagarritasun horrek %59,4 lortzen du HIESa prebenitzeko denean «baliagarria/nahiko baliagarria» iritzian, baliagarritasun horrek behera egiten du «nahi gabeko haurdunaldi bat prebenitu» nahi denean (%49,1) edo «tabakoaren, alkoholaren eta legez kanpoko drogen gehiegizko kontsumoan», heren batera jaisten baitira zerbitzu medikoek prebentzio horretarako duten baliagarritasunean sinesten dutenak (137. taula).

Osasun-zerbitzuak emakumeentzat baliagarriago dira haurdunaldi bat prebenitzeko, gizonentzat baino (%52,1 eta %46,2, hurrenez hurren).

Halaber, eta osasun-zerbitzuek hainbat osasun-gai prebenitzeko duten baliagarritasunari dagokionez, hemen ere baliagarritasun handiena gazteenek aurkitzen dietela ikusten dugu —«oso/nahiko baliagarria» balioan— planteatutako eremu guztietan. Hau da, nolabait, gazteek urteak betetzen dituzten neurrian baliagarritasun gutxiago ikusten diete osasun-zerbitzuei, beren prebentzio-jardunean (138. taula).

**137. taula**

OSASUN ZERBITZUEK GAIXOTASUNAK PREBENITZEKO DUTEN BALIAGARRITASUNA (%)

«ZEIN DA, ZURE USTEZ, OSASUN-ZERBITZUEK DUTEN BALIAGARRITASUNA ONDOKO OSASUN ARAZOAK PREBENITZEKO?»	OSO BALIAGARRIAK + NAHIKO BALIAGARRIAK
HIESa	59,4
Desiratu gabeko haurdunaldi bat	49,1
Tabako-kontsumoa	36,2
Alkoholaren neurritz kanpoko kontsumoa	33,5
Legez kanpoko drogen kontsumoa	32,0

\* Alderdietako bakoitzari «oso baliagarriak» + «nahiko baliagarriak» erantzunak eman dizkioten pertsonen ehunekoa.

**138. taula**

OSASUN ZERBITZUEK GAIXOTASUNAK PREBENITZEKO DUTEN BALIAGARRITASUNA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

«ZEIN DA, ZURE USTEZ, OSASUN-ZERBITZUEK DUTEN BALIAGARRITASUNA ONDOKO OSASUN ARAZOAK PREBENITZEKO?»	15-19	20-24	25-29
HIESa	64,0	61,1	53,3
Desiratu gabeko haurdunaldi bat	57,7	48,3	42,8
Tabako-kontsumoa	41,8	34,6	33,3
Alkoholaren neurritz kanpoko kontsumoa	41,8	30,5	29,8
Legez kanpoko drogen kontsumoa	38,8	29,4	29,2

\* Alderdietako bakoitzari «oso baliagarriak» + «nahiko baliagarriak» erantzunak eman dizkioten pertsonen ehunekoa.

Eta «HIESa», «desiratu gabeko haurdunaldi bat» eta «alkoholaren neurriz kanpoko kontsumoa» prebenitzeko baliagarritasunari dagokionez, «langabeak» dira zerbitzu horiei baliagarritasun gutxien ikusten dietenak eta «ikasleak», berriz, baliagarritasun gehien ikusten dietenak (139. taula).

139. taula

OSASUN ZERBITZUEK GAIXOTASUNAK PREBENITZEKO  
DUTEN BALIAGARRITASUNA, LANBIDEAREN ARABERA (%)

«ZEIN DA, ZURE USTEZ, OSASUN-ZERBITZUEK DUTEN BALIAGARRITASUNA ONDOKO OSASUN ARAZOAK PREBENITZEKO?»	IKASTEN ARI DA	LANEAN ARI DA	IKASTEN ETA LA- NEAN ARI DA	LANGABEA
HIESa	62,4	56,6	61,4	46,8
Desiratu gabeko haurdunaldi bat	53,3	43,1	51,7	37,8
Alkoholaren neurriz kanpoko kontsumoa	36,6	31,7	29,5	27,9

\* Alderdietako bakoitzari «oso baliagarriak» + «nahiko baliagarriak» erantzunak eman dizkioten pertsonen ehunekoa.

Azkenik, «HIESa prebenitzeko» osasun-zerbitzuek duten baliagarritasunak ere gizarte-klasearen mailarekin lotura zuzena duela jaso dugu; izan ere, kasu honetan lortzen du gizarte-klase «altu/ertain-altuak» baliorik altuena (%64,9) (140. taula).

140. taula

OSASUN ZERBITZUEK GAIXOTASUNAK PREBENITZEKO  
DUTEN BALIAGARRITASUNA, GIZARTE KLASEAREN ARABERA (%)

«ZEIN DA, ZURE USTEZ, OSASUN-ZERBITZUEK DUTEN BALIAGARRITASUNA ONDOKO OSASUN ARAZOAK PREBENITZEKO?»	ALTUA/ERTAIN- ALTUA	ERTAINA	ERTAIN- BAXUA/BAXUA
HIESa	64,9	57,4	48,0

\* Alderdietako bakoitzari «oso baliagarriak» + «nahiko baliagarriak» erantzunak eman dizkioten pertsonen ehunekoa.

## 2.5.6. Zerbitzu medikoen balorazioa

Azkeneko urtean medikuarengana edo osasun-zerbitzuetara jo duten gazteek, 0tik 10era doan eskalan (balorazio ezin txarragoa-balorazio bikaina), 9,24 puntuko kalifikazioa ematen diote jasotako zerbitzuari. Hala ere, osasun-zerbitzuei ematen dieten balorazio orokorra —horiek erabili zein ez— 6,95 puntukoa da.

Osasun-zerbitzuei buruz egindako balorazio orokorra 6,95 puntukoa da batez beste; 7,23 puntura iristen da 15etik 29 urtera bitartekoen artean, eta 25etik 29 urtera bitartekoen artean 6,84ra jaisten da.

Informazio hori berretsi egiten da «osasun-zerbitzuen balorazio orokorrean»; gorago ikusi dugunez, haren batez bestekoa 6,95 puntukoa zen, «langabeek» 6,82 punturekin kalifikatzen zuten eta «ikasleek», berriz, 7,05eraino igotzen zuten (langileek: 6,84 eta langile/ikasleek: 6,86).

Aipatu beharra dago, azkenik, osasun-arrisku jakin batzuk tratatu edo prebenitzeko garaian osasun-zerbitzuek duten baliagarritasunaren balorazioa dela-eta, gazteen iritziz, osasun-zerbitzuak baliagarriago direla gaixotasunak tratatzeko prebenitzeko baino.

Beste alde batetik, osasun-laguntzaren egitekoari ematen zaion balorazioa, hala gaixotasunak prebenitzeko nola tratatzeko, apalagoa da adinak gora egiten duen neurrian.

**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

**3.**  
**Osasunaren sustapen  
eta hezkuntzako  
ekintzetarako  
hainbat gomendio**





# 3

## Osasunaren sustapen eta hezkuntzako ekintzetarako hainbat gomendio

Gazteek esandakoa oinarritzat hartuta, osasunaren sustapenari eta hezkuntzari lotutako ekintzei buruz egin daitezkeen gomendioen barruan, bereizi egingo ditugu garapen-eremutat eskola-esparrua izango luketenak eta orokorrean gazteen kolektiboari zuzenduta garatuko liratekeen beste neurri politikoago batzuk. Hasteko, osasunaren sustapenari eta hezkuntzari zuzenean lotutako ekintzak ikusiko ditugu.

Eskola-ingurunean gara daitezkeen ekintzei dagokienez, argi dago osasunaren sustapeneko eta hezkuntzako ekintzetarako ikuspegi egokiena batez ere praktikoa litzatekeela, gazteei beren osasunari buruzko erabakiak modu autonomo eta arduratsu batean hartzen lagunduko dien ikuspegi praktikoa.

Ildo horretan, ezinbestekoa da gazteen benetako esperientzia edo esperientzia adierazia kontuan hartzea, hau da, gazteek aurkezten zaizkien ekintzak beren eguneroko eremuetarako baliagarriak eta «eraginkorrak» direla argi eta garbi hautematea. Beraz, egokia dirudi gazteen errealitatearekin lotura zuzena duten tailerrak edo bestelako ekintzak planteatzea, eta abstraktuak izan daitezkeen planteamendu «psikologistegietatik» ihes egitea, haien helburua ulertzea zaila baita gazteentzat.

Esperientzia aintzat hartzean kontuan hartzen da gazteek osasungarriak ez diren praktika batzuetan, esate baterako alkoholaren, kanabisaren eta abarren kontsumoan argi-ilunak antzeman ditzaketela. Horrek «ona» eta «txarra» denaren azalpen arau-emailea ematen duten informazioko edo prestakuntzako ekintza-ereduak baztertzea esan nahi du, alegia drogen kontsumoarekiko harremana ulertzeko duten modutik oso urrun dagoen planteamendu dikotomikoa alde batera uztea eskatzen du. Helburua ez da gazteek informazioa izatea bakarrik, gazteek osasunaren zainketak bere egitea baizik.

Esperientzia kontuan hartzeko ildo horretan, egokia litzateke halako ekintzak planteatzean haiek gazteen parte-hartzeari irekitzea, gazteei entzule pasiboaren tokia ematen dien helduen «hi-

tzaldiaren» eta «solasaldiaren» eredutik urrunduz. Nahitaezkoa da gazteei eremu oso desberdinei buruz izan ditzaketen zalantzak, hausnarketak eta anbibalentziak entzutea, azken batean horietan oinarritzen baita beren jokabidea eta jarrera. Parte-hartze eta entzute aktibo hori modu oso desberdinetan bidera daiteke —filmak ikusi ondorengo edo albisteetan oinarritutako eztabaidak; benetako kasuen azalpena; etab.—. Azken batean, gazteei eurek hartutako erabakiek izan ditzaketen ondorioei, abantailei eta eragozpenei buruzko hausnarketa egiten laguntzea da helburua.

Gazteen diskurtsoan osasunaren hezkuntzarako programei buruz planteatzen dena «dilemak» planteatzean edo gazteak erabaki bat hartzera bultzatzen dituzten kasuak aurkeztean oinarritutako sustapen-programa batzuek jasotzen dute jada. Ikuspegi hori planteamendu arau-emaila hertsitik urruntzen da, eta gazteek egunero konpondu behar dituzten egoeretan anbibalentzia dagoela aitortzen du; horrek gazteen erantzukizuna sendotzen laguntzen du, erabakiak hartzeko orduan beren jarrera pertsonala indartuz. Gazteak ekintzaren eta erabakiaren subjektu aktibotzat hartzen dituzten ikuspegi «praktikoak» dira.

Kontuan hartu behar den beste alderdi garrantzitsu bat era horretako ekintzak garatu behar litzuzkeen profesionala da. Gomendagarriena eskola-ingurunetik kanpoko norbait, hau da, irakasleak ez diren beste irudi bat izatea dirudi. Aldez aurretik irakasleekin harremana izateak edo haien irudia ezagutzeak eragin kaltegarria izan dezake gazteek erakusten duten harmenean eta interesean. Hezkuntza-esparru horretan eskatzen zaienari aurre hobeto egin ahal izan diezaioten, irakasleak prestatzeko erakunde eta organismo desberdinak egiten ari diren ahalegina eta ekintzen garapenaz beste profesional batzuk arduratzea bateragarriak izan daitezke, hezkuntza horretan irakasleek laguntza garrantzitsua izan behar dutelako, eta ez nahitaez egile bakarrak.

Izan daitezkeen eduki-arloei dagokienez, gomendagarria dirudi hezkuntza afektiboari lekua uztea edo garrantzi handiagoa ematea. Hezkuntza afektibo horrek subjektuaren harremanen dimentsioa landuko luke, bere buruarekin eta besteekin dituen harremanena. Bestee-kiko harreman horretan komunikazioari eman behar zaio lehentasuna, elkarrenganako konfiantzaren oinarri gisa. Laguntza bezala ulertutako adiskidetasunaren ikuskerak indartu behar dira, ez gozamenerako eta dibertsiorako euskarritzat bakarrik hartzen dutenak. Parekoen taldeetan pertsonenganako errespetuaren ideia sendotu behar da, taldekoa izatearen oinarria homogeneotasuna ez, baizik eta norberaren askatasuna izatea ahalbidetuz.

Taldeetan agertzen dena oinarritzat hartuta, egokia dirudi ondoeza izatea ukatu edo erlatibizatu ez, baizik eta ondoez hori adierazi eta komunikatu ahal izatea erraztu eta sustatzen duen hezkuntza afektibo bat garatzea, ondoez hori ezkutatzea saihesteko.

Hezkuntza afektibo-sexuala modu zabalean planteatu behar litzateke, ez du arduratu behar antisorgailuei buruzko informazioa emateaz bakarrik —sexu-ekintza, koitua, arreta behar duen eremu bakartat hartuta—; aitzitik, benetako hezkuntza afektiboa garatu behar du —bestearen posizioa aintzat hartuz—, eta koitok harremanaren barneko elementu bat besterik ez du izan behar, erantzukizuna, konfiantza eta komunikazioa ere barnean hartu behar dituen harreman-esparru baten barruan.

Kirol-praktikaren arloan ere burutu daiteke hezkuntza-eremuko jardueraren bat. Ildo horretan, egokia dirudi gazteen artean kirol-praktikaren ikuskera integral bat sustatzea, ongizate fisikoaren eta psikologikoaren garapen gisa, lagunekin elkartzeko edota norberarentzako dimentsioa garatuz. Zentzu horretan gazteei erlaxatzeko bideak izaten lagundu edo irakatsiko dieten jarduerak burutzen hastean eta kirol-praktika orokorraren ikuskera bat garatzean pentsa daiteke, maila fisikoa eta mentala barnean hartuko dituen ikuskera, alegia.

Orokorrean, eta hezkuntzaren esparrutik kanpo, neurri politiko zehatz batzuk iradoki daitezke.

Aisiaren eremuan badirudi gazteen aisia ereduaren inguruan jarduteko nolabaiteko esparru bat badela. Gazteek nabarmen utzi dute ohiko lekuetatik kanpo «irteteak» duen dimentsio osasungarria, bizipen askatzaile gisa eta beren herrietan beti aurkitzen ez duten aniztasuna topatzeko modu bezala. Hori kontuan izanik, «gazteentzako ostatuen sare» bat sortzea planteatu daiteke: aterpetxeak, landa-etxeak, etxebizitzaren trukea, hotelak, etab., gazteek aisialdiko beste modu eta leku batzuk ezagutzea errazteko.

Lagunekin elkartzeak duen dimentsio osasungarri eta atsegingarriari zuzenean lotutako beste alderdi bat da haiekin modu pertsonalagoan biltzeko, alkoholaren kontsumoaren presentzia eta presio txikiagoarekin, elkartzeko, lonja edo lokalak eskuratzeko dagoen zailtasuna. Testuinguru horretan, ona izango litzateke gazteek beren lokalak izatea ahalbidetuko duen politika bat.

Bide-segurtasunari dagokionez, gazteek adierazitakoaren arabera, gaur egun dauden alkoholemia-kontrol selektiboek eragin positibo zuzena dute gazteen jokabidean, disuasio-elementuak baitira.

Osasun-sistemaren esparruan gazteen artean ginekologoarengana joatea motibatu behar dela dirudi, eta horretarako bisita horien eta sexu-harremanak izatearen arteko lotura muiriztailea hautsi behar da, haiek osasunaren esparru orokorrako batean kokatzeko.



COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

**GAZTEAK**

4.  
Azterlanaren  
emaitza nagusiak





## Azterlanaren emaitza nagusiak

Azkenik, amaitzeko, azterlan honetan gazteek osasunari buruz dituzten irudipenen, bizimoduen eta sentimenduen inguruan egindako ekarpen nagusi batzuk jaso ditugu.

### 4.1. EUSKADIKO GAZTEEN BIZIMODUEN TESTUINGURU SOZIALA. GAZTEEN EREMUA

Gazteek beren osasunarekin duten harremana ulertzeko, ez dugu ahaztu behar pertsonen osasuna kulturak baldintzatzen duela. Horregatik, gaur egun «gazte izatea» zein koordinatutan kokatzen den adierazi behar dugu lehenik, laburki bada ere. Izan ere, horren araberakoa izango da, neurri handi batean, kolektibo horren osasuna.

#### 4.1.1. Gazteen ikusmolde berria

Gaur egun gaztea izatea zer den ulertzeko elementu nagusietako bat gazteen ikusmolde berri baten konfigurazioa da. Gazteen eremu berri hori zehazten duten ezaugarri nagusiak ondokoak dira:

- Alde batera utzi da gaztaroa helduen munduan sartzeko ikaskuntza-aldia dela dioen ideia tradizionala, eta ezaugarri bereziak dituzten estadio desberdinak barnean hartzen dituen berezko eremu bilakatu da.
- Gaztaroaren etapa luzatu egin da eremu hori mugatzen duten bi aldeetan. Alde batetik, gazteen eremuan gero eta adin txikiagoarekin sartzen dira eta, bestetik, eremu horretatik irteteko unea atzeratu egiten da halabeharrez.
- Hezkuntza-eredu permisibo eta babesle batetik, gaztaroa berehalako gozamenera bideratutako «arduragabetasuneko» etapa moduan eratu da; ikasketetan halako exigien-

tzia-maila bat badute ere, bizitzako beste arlo batzuetan gazteek ez baitute beren gain hartu erantzukizun eta konpromiso berririk.

- Mugarik gabeko arduragabetasunari eta gozamenari loturiko gaztetetasunaren ideia gazteen adin ertainei dagokie (16-23 urte), eta hori izango litzateke gazteen eremuaren gune sinbolikoa. Hori da helduen begiradatik «gazteria zorionsuaren» irudiarekin bat datorren etapa.
- Aisialdia, eta batez ere asteburukoa, gizarteak gazteei garapen pertsonaleko gune sinboliko gisa esleitzen dion eremua da, gazteak eremu horretan hasten dira kanpoko errealitatearekin gurasoen tutoretzarik gabe kontaktua izaten.

Erreferentziazko esparru berri horrek osasunean tentsioak eragiten dituen aldaketa kualitatibo garrantzitsuak ekartzen ditu. Bi azpimarratuko ditugu beren garrantzia kontuan izanik:

- Asteburuetakoa irteeren bitartez, gazteen hainbat sektorek aisialdiko guneetan gero eta adin gazteagoetan eta, beraz, gutxiago garatuta dauden eboluzio-estadioetan parte hartzeak arriskuak ekar diezazkioke gazteen osasunari, gune horietan ezarrita dauden dibertsio-ereduak direla-eta (istripu-arriskuak, mendekotasunak, etab.).
- Gaztaroaren goiko muga, halaber, helduen mundura pasatzearekin erlazonatutako hainbat tentsio eta gatazka sortzen dira. Gazteen sektore batzuen ustez, erabateko herritar gisa gizarteratzea egiturazko zenbait faktore sozialek —lanari eta familia-etxetik irteteari lotuak— baldintzatzen duten eta, beraz, igarotze hori zailtzen duten neurrian, zehaztu gabeko ondoez psikologiko bat azaleratzen da, eta gaztaroaren luzapen derri-gortuak berekin dakarren frustrazioaren zama handia erakusten duten nahaste mentalen edo elikadura-nahasteen moduan somatizatzen da.

Egoera horren ondorioetako batzuk ondokoak izango lirateke:

- Egoera paradoxikoak agertzen dira. Etorkizun heldu baten itxaropenik ez izatean, gazte helduek, gazte izaten jarraitzea behartuta, bizimodu gazteei gogor heltzen diete eta helduen estadiorako sarrera atzeratzen saiatzen dira.
- «Helduen kontsumoari» uko egiten diote eta berehalakoan oinarritutako kontsumoa garatzen dute.

—Klase-sena galtzeko beldur dira eta, eurengan jarritako itxaropenak bete ezin izatearen aurrean porrot-sentimendua dute.

—Gizartearen kanpoaldera baztertuak izateko arriskua sumatzen dute, arrotzuak eta alde batera utziak izateko sentrazioa dute.

Osasunaren adiera integral eta orokor bat abiapuntutzat hartuta, osasuna neurtzen duten adierazleetako bat pertsonen ongizate psikiko eta emozionala da. Adierazle hori kontuan hartzen badugu, azterlan honek osasun mentalari buruz ematen dituen kopuruek ez dute, ordea, aipatu berriak ditugun nahigabea eta ondoez psikologikoa horren garbi islatzen.

Gazteek beren bizitzaz duten pertzepzioa da bizitza ona dutela (%93,7) eta bizitza horretan ondo doakiela (%90,9). «Nire bizitzako hainbat gauza aldatzea gustatuko litzaidake» eta «nire bizitza bestelakoa izatea gustatuko litzaidake» itemekin gehienbat ados dauden pertsonen ehunekoak %31,9 eta %16,7 dira, hurrenez hurren.

Era berean esan daiteke gazteen gehiengo handi batek egoera emozional orekatua duela; lau inkestatutik hiruk dio «kontzentratzeko», «egunerokoaz gozatzeko», «arazoei aurre egiteko», «erabakiak hartzeko» eta «oztopoak gainditzeko» gai sentitzen dela eta, batez ere, norberarengan ohikoa den moduan «dezente zoriotsu» sentitzen dela.

Datuekin jarraituz, tratamendu psikologikoren bat jasotzen ari direla dioten ehunekoak %2,2koa da eta tratamenduak batez ere depresio- eta antsietate-arazoekin erlazionatuta daude.

Gizarte-klasea galtzeko beldurrari dagokionez, gazteen erdiak inguru (%52,1) etorkizuneko bere ekonomiaz duen ikuspegi orokorra da lor dezakeen maila ekonomikoa gaur egun beren gurasoek dutenaren antzekoa izango dela.

Alabaina, optimismo orokor hau leunduz doa gazteak adinean gora joan ahala: heldu-erotik gertuen dauden gazteen (25 eta 29 urte bitartekoen) %84,0 gauzak doazkion moduarekin pozik dago; baina 15 eta 19 urte bitartekoen artean ehunekoak askoz ere handiagoa da (%92,2). Gauza bera gertatzen da egindako ikasketak lortutako lanarekin bat etortzeko itxaropenari dagokionez: ikasketak-lana binomioa finkatzea espero duten gazteen portzentajea %85,0koa da gazteen artean; proportzio hori %56,2raino jaisten da pertsona helduagoengana. Azkenik, nagusituz doazen neurrian, areagotu egiten da gaur egun gurasoek duten maila ekonomikoa

ez erdiestearen susmoa: 25-29 urte bitartekoen %19,7k dio zertxobait apalagoa izango dela; bai eta 15 eta 19 urte bitartekoen %9,8k ere.

Gazteek beren bizitzari buruz duten pertzepzio eta balorazioa ñabartzea garrantzitsua da. Izan ere, bestelako faktore batzuek —lanbideak edo gizarte-klaseak, kasu— ere eragina dute gogobetetze-maila apalagoa adierazteko garaian. Horrela, bada, gehienbat langabeei «beren bizitzetan hainbat gauza aldatzea» eta «bestelako bizitza bat izatea» gustatuko litzaieke. Ildo horretatik, zenbat eta gizarte-maila apalagoa izan, hainbat eta apalagoa izango da norberaren bizimoduarekiko gogobetetze-maila: «bizitza ona daramat», «gustatzen zait gauzak doazkidan modua» edo «ondo sentitzen naiz gertatzen zaizkidan gauzekiko» premisekin ados dauden gazteen intentsitatea ahulduz doalako eta aldiz, indartuz «bestelako bizitza» izan nahi duten pertsonen kopurua.

Gazteek etorkizunean izango duten maila ekonomikoari buruzko usteetan ere gizarte-mailak badu zer esanik. Izan ere, beren buruak mailarik apalenean kokatzen dituzten gazteek uste dute, hein handienean, beren estatus ekonomikoa gurasoenaren azpitik egongo dela.

Norberak hautemandako estratu soziala eta adina, biak ala biak goian aipatzen genuen baikortasun orokor hori ñabartu eta ahuldu egiten duten faktoreen artean daude. Izan ere, adinarekin gertatzen den bezala, beren buruak gizarte-maila ertain-baxu eta baxuan kokatzen dituztenak dira, hain zuzen ere, ikasketen eta lanbidearen arteko korrelazioari dagokionez itxaropen gutxien dutenak eta, gainera, etorkizunean osasunik txarrena izango dutela uste dutenak.

Nahigabe pertsonala, ordea, gaztaroko adin ertainetan erakusten hasten dira jada. Euskadiko gazte-sektore batzuetan asteburuko aisialdiaren eredu, edatean eta behin eta berriz toki berberetan irteteen oinarrituta dagoena, atsekabez eta ohikeriaz bizi da 20 urte bete baino lehenagotik ere.

#### **4.1.2. Gazteek dituzten harreman afektiboak, adiskidetasun-harremanak eta laguntzak**

Gazteek egiten dituzten diskurtsoetatik ondorioztatzen denez, beren balioen konstelazioan adiskidetasun-harremanak erreferentzia-puntu nagusietako bat dira.

Hala ere, dirudenez oraindik oso garrantzitsuak ez badira ere, beste era bateko diskurtsoak ere nabarmentzen hasiak dira gazteen artean, arinkeriari lotuago dagoen adiskidetasunaren ikuskera adierazten dutenak. Ikuspegi hori azpimarratzen duten diskurtsoetan arrisku bat dago: baliteke adiskidetasun-harreman oso hauskorrak sortzen aritzea, hau da, une atseginak igarotzeko balio dutenak, baina gazteek elkarren laguntza behar duten uneetan huts egin dezaketenak.

Joera hori berori ikus daiteke analisi kuantitatiboan. Adiskidetasuna une atsegin bat pasatzeko balio duen eremutat hartzen duen adierarekin gehienak ados daude (%94,7). Baina adiskidetasun konprometitu bat izatea erraza dela uste duten gazteen ehunekoa apalagoa da (%72,1).

Gazteek dituzten baliabide afektiboan artean lagunak eta familia daude. Horiek biak dira gazteek laguntza behar dutenean babesteko erabiliko dituzten oinarrizko bi euskarriak. Gazteen %93,0k baino gehiagok dio arazo intimoren bat izango balu lagunei eta familiari kontatu eta laguntza eskatu ahal izango liekeela. Eta, izan ere, sexualitatearekin edo drogekin erlazionatutako arazoak izanez gero norengana joko luketen galdetzen zaienean, gehienbat lagunengana eta gurasoengana erantzuten dute.

Horrek esan nahi du gazteek egoera zailetan badutela norengana jo lagunaren artean; baina egoera horietatik at, adiskidetasuna bere zentzu sozialenean nagusitzen dela hautematen da, %36,0ren iritziz hobe baina lagunekin gai pertsonalez ez hitz egitea adiskidetasunari eskatzen zaiona dibertsio-bide bat izatea denean.

Gaur egungo gizarte-testuinguru orokorrean, ondoeza ezkutatu egiten da eta gazteek ere berea ezkutatzera behartuta daudela sentitzen dute, bai beren berdinen artean, bai eta gizarte osoaren aurrean ere.

Gazteek egun adiskidetasuna bere adiera lagungarrienean lantzeko aurkitzen dituzten toki egokien artean, lonjak daude. Lokal pribatuak lagunekin elkartzeko gune alternatibo bilakatzen dira horrela.

Gazteek osasunarekin duten harremana aztertzeko orduan beste alderdi interesgarri bat sexu-praktika arriskutsuak dira. Gazteen kolektiboan halako praktikak izatea edo ez izatea harreman afektibo-sexualen barruan sartzen da; hori dela-eta, ezinbestekoa da lehenik gaur egun harreman horiek bizitzeko moduari buruzko nozio batzuk argitzea.

Txostenaren arabera, gazteen harreman-eredu berriaren ezaugarrietako bat oinarritzat duten bikotearen egonkortasunaren ideia da. Dirudienez gazteak denbora gutxiko harreman seriatuak bizitzen ari dira eta harreman horietan bikotekide bakoitza egonkortzat hartzen da. Sexu-praktikei dagokienez dagoen arriskua da, hain zuzen, egonkortasunaren ideiatik ia berehala konfiantzaren ideia sortzen dela, eta horren ondorioetako bat metodo antisorgailuen eta gaixotasunen kutsadura saihesteko babes-neurrien erabileran lasaikeriaz jokatzea izan daiteke.

Diskurtso zentzuzkoenetan, babesik gabeko sexu-praktika gaitzetsi eta kritikatu egiten dute arduragabea delako. Hala eta guztiz ere, alkoholaren kontsumoarekin eta «beroaldiarekin» erlazionatutako salbuespenak aitortzen dira, eta badirudi, bestalde, salbuespen horiek zentzuzko diskurtsoak adierazten duena baino ohikoagoak direla. Horrek guztiak desiratu gabeko haurdunaldien, abortuen, GIBen eta bestelako sexu-transmisioko gaixotasunen kutsaduren kopurua igo daitekeela pentsarazten du.

### 4.1.3. Indarkeria ohiko ingurunean

Gai honi buruz lortutako informazioaren arabera azpimarratzekoa da gazteek beren ohiko ingurunean indarkeria-egoerak itxuraz nolako «normaltasunekin» bizi dituzten.

Elkarrizketaturiko gazteei «asteburuan ibiltzen den ingurunean indarkeria» dagoen ala ez galdetu eta gero, horietako %52,9k ezetz diote eta, %44,8k, baietz.

Azken urtean borroka batean nahasita egon direnen ehunekoak %7,6koa da eta ohikoagoa da borrokan sartuta egon dena mutil gazte bat izatea. Hiriburuetan edo haien inguruetan ere borrokak asteburuko aisialdiari eta alkoholaren edota bestelako droga batzuen kontsumoari lotuta agertzen dira.

Baina gazteenek inguruan bizi duten indarkeria ez da asteburura mugatzen. Inkestako datuen arabera, bost ikasletik batek eskolan tratu txarrak jasan dituela esaten du. Eta ehuneko hori bikoiztu egiten da beste norbaitek jasandako tratu txarrik ikusi duten ala ez galdetzean. Gazteek ezin hobeto deskribatzen dute eskola-erasoaren mekanismoa —*bullying* delakoa—, eta beren eskola-ingurunean era horretako indarkeria nolabaiteko egunerokotasunarekin bizi dute.

Hala ere, indarkeria-kasu guztiak eraso moduan sailka daitezkeen ala ez kontuan hartu gabe —gaur egun dagoen nahasmen giroa dela-eta—, gazteak indarra errespetua sortzeko balioztat duten testuinguruetan gizarteratzen aritzeko arriskua dago eta, horrez gain, pertsonen arteko harremanak ahulen eta indartsuen arteko harreman gisa hautemateko arriskua.

## 4.2. GAZTEEK DROGEKIN DUTEN HARREMANA ETA HAUEK BETETZEN DUTEN TOKIA

Gazteek drogekin duten harremanean deigarria da hauen kontsumoa zein normaltasune-kin hautematen duten. Normaltasun-ideia horrek berekin dakar, era berean, duela gutxira arte gehiago ezkututzen ziren drogen kontsumoaren legitimazioa, esate baterako, kanabisaren eta kokainaren kasuan gertatzen ari dena. Halaber, gazteek droga horiek eskuratzeko duten erraztasuna ere, hemen aztertutako talde gazteenak duena barne, nabarmen handitu da.

Oro har, hamar gaztetatik bederatzik uste du alkoholaren, tabakoaren, kokainaren, estasiaren eta haxixaren kontsumoa osasunarentzat kaltegarria dela. Era berean, %91,1ek uste du parrandara alkoholik edan gabe ere irten daitekeela.

Alkoholarekiko harreman-motari dagokionez, gazteak «tragoak hartzera» irteten direnean, ohikoena (%60,9k egiten baitute) alkohola nagusiki taberna eta diskoteketan kontsumitzea da, edo hasieran kale-zurrutean ibiltzea eta gero taberna eta diskoteketara joatea (%26,8). %2,4 baino ez dira gau osoan kale-zurrutean ibiltzen. Aukera hau gehienbat 15 eta 19 urte bitartekoen baitan ikusten da, baina kolektibo horretan, aukerarik nagusia, gainerako gazteen kasuan bezala, taberna eta diskoteketan alkohola kontsumitzea da.

Baina droga-mota desberdinekin duten harremana bestelakoa da.

—Alkoholaren kontsumoak pisu handia du gazteen aisialdian. Hori errazten duen ingurune baten barruan eta kontsumo hori sozialki legitimatzen duen kultura baten pertzepziotik, gazteek beren edateko modua integrazio soziokulturaleko prozesu baten barnean kokatzen dute. Beraz, kale-zurrutari eta asteburuko neurritz kanpoko kon-

tsumoari ematen dioten esanahia, txikiteoari ematen zaion berbera da. Gazteen ikuspegitik bi ereduak parekatzen dituena haien dimentsio soziala da.

- Kanabisaren kontsumoari dagokionez, droga horri buruz duten ikuspegia alkoholaren kontsumoaz dutenaren antzekoa da oso. Aurreko kasuan bezala, porroak erretzea normaltasun osoz ikusten da eta nahiko ohikoa da asteburuko aisialdiaren eremuan. Era berean, porroak erretzeko arrazoiek bere dimentsio soziala areagotzen dute eta bi kontsumo horien ondoriozko arriskuak gehiegikeriaren eremuan kokatzen dira. Ezaugarri berri bat litzateke, izatekotan, gazteenen taldea kanabisaren kontsumoan indar handiagoz eta modu naturalagoan sartzen ari dela.
- Tabakoa erretzeari dagokionez, bakarkako ekintzatzat hartzen da eta bere arriskuak biriketako minbiziaren garapenari lotzen zaizkio zuzenean.
- Azkenik, kokainaren eta beste substantzia batzuen kontsumoa beste esparru batean kokatzen dira. Droga horien kontsumoak dituen arriskuen pertzepzioa alkoholaren edo kanabisaren kontsumoan baino handiagoa da. Kokainak nahiz beste substantzia sintetiko batzuek mendekotasuna eragiteko eta kalte zerebralak sortzeko arrisku handiagoak dituztela uste dute eta, ondorioz, droga nagusiak dira haientzat. Dena den, azken urteetan kokaina ere gero eta gehiago agertzen da kalean eta, beraz, gazte-sektore batzuentzat hura eskuratzea alkohola edo kanabisa eskuratzea bezain erraza izatera iristen ari da.

## 4.3. OSASUNARI ETA PRAKTIKA OSASUNGARRIEI BURUZKO IKUSMOLDEAK

### 4.3.1. Norberaren osasunari buruzko ikusmoldeak

Inkestatu diren pertsona gazteen %69,1ek uste du bere osasuna ona dela eta ia erdiaren iritziz bere egoera fisikoa ere ona da (%48,7). Besteen osasunaren balorazioari dagokionez ere, ona dela pentsatzen dute.

%62,6k ez du inolako elikadura-dietarik egiten, «pisu egokia» dutela diolako eta gehienek (%89,6) ez dute inolako gaixotasun kronikorik edo ezgaitasun fisikorik, alergiak eta asmak izan ezik.

Gaitz fisiko edo psikologikoen tipologiaren arabera, gazteen heren batek (%32,1) maiz «nekea eta akidura» sentitzen dituela dio, eta bost pertsonatik batek «sumingarritasuna edo jonio txarra» ditu (%20,3) eta «urduritasuna» (%19,8).

Desberdintasun txiki batzuk daude gizonen eta emakumeen artean. Gizonezkoak baiko-rragoak dira emakumeak baino nor bere osasun fisikoa baloratzeko orduan: emakumeak «onargarria» edo «hala-holakoa» dela dio gizonak baino neurri handiagoan (emakumeen %48,5ek dio norberaren osasun fisikoa onargarria edo hala-holakoa dela; gizonen %36,5en aldean). Era berean, emakumea da era guztietako gaitzak —nekea, sumingarritasuna, urduritasuna— sarriago pairatzen dituen eta tratamendu psikologikoak neurri handiagoan jarraitzen dituen (%3,6, gizonezkoen %0,9ren aldean). Beste alde batetik, emakumeek hein handiagoan egiten dituzte dietak, gizonekiko ehuneko sei puntuko aldearekin.

#### 4.3.1.1. Osasun-nozioak gizon eta emakume gazteen artean

Gazteek osasunari buruz dituzten diskurtsoak aztertzean, generoa gizonen eta emakumeen osasun-nozioak bereizteko aldagai erabakigarria da.

Analisi kualitatiboaren bitartez ikusten da emakumeek «ondo sentitzearen» ideia, alegia alderdi fisikoak nahiz emozionalak barnean hartzen dituen nozioa, gehiago azpimarratzen dutela; gizonek, ordea, ongizate fisikoa azpimarratzen dute, «ondo egotea» bezala deskribatzen dutena.

Emakumeen ikuspegitik, osasuna eta ongizatea oso erlazionatuta daude subjektiboa den ongizate emozionalarekin eta gogo-aldartearen ongizatearekin, eta horretan funtsezkoak dira norberarekiko eta ingurunearekiko harreman ona izatea. Horregatik, osasun mentala da osasunaz hitz egiten denean gazteak gehien kezkatzen dituen gaietako bat. Ezinbestekoa da osasunaren definizio hori gehienbat emakume gazte helduei dagokiela zehaztea. Gazteen artean, maila emozionalari emandako garrantziarekin batera, osasunaren ideiak alderdi fisikoak eta gorputzari dagokionak ere barnean hartzen ditu.

Alderantziz, gizonek osasunaz duten ikuskera bizitasunaren, indarraren, erresistentzia-gaitasunaren eta abarren ideiatik eratzten da, hau da, fisikoa, gorputzarena denarekin erlazionatutako elementuen ideiatik. Ildo horretan, osasunaren ikuskera medikalizatuago bat da, bertan subjektibotasunari eta emozionala denari ematen zaien garrantzia minimizatu egiten baita proba mediko objektiboaren alde. Hala ere, mutil gazteen artean ere hedatzen ari da, antza, ongizate psikologikoaren ideia osasunaz hitz egitean kontuan hartzeko elementu gisa.

### 4.3.2. Zainketa eta praktika osasungarriak

Orokorrean, eta bi sexuen kasuan, gazteen zainketak batez ere elikaduraren eta kirol-praktikaren arloetan nagusitzen dira. Bi arlo horietan esku hartzen dute bai motibazio estetikoei bai eta osasungarria denarekin erlazionatutako arrazoiek ere.

Emakumeen artean edertasun-kanon gisa aritzen den gorputzaren eredua erreferentziatzat gorputz argala, baina argalegia ez, duena da; eta nork bere buruari eskaintzen dizkion zainketen bitartez eredu hori lortu nahi da. Hala ere, adinean gora egin ahala, elikadura zaindu, arropak eta ariketa fisikoa egitearekin batera, pixkanaka erlaxazioa eta ongizate emozionala bilatzen dituzten zainketa kosmetikoak eta bestelako praktika batzuk ere agertzen dira (masajeak, talasoterapia-saioak, bakarkako paseoak, etab.). Badirudi, hasieran kanpoko motibazioak —estetikoagoak— nagusi badira ere, denborak aurrera egin ahala osasunaren ikuskera integraztaile eta orokorrago batekin zerikusia duten arrazoiak ere barnean hartzen dituen nork bere burua zaintzeko prozesu bat hasten dela.

Gizonen kasuan, zainketak gorputz indartsu eta bizia lortzera orientatzen dira funtsean. Horretarako, batez ere kirola eta elikadura osasungarria, baina murrizketarik gabea, egiten dituzte.

#### 4.3.2.1. Elikadura

Inkestako datuen arabera, EAEko gazteen %49,4k baino gehiagok esnea, zerealak, fruitak eta barazkiak, eta haragia eta arraina jaten dituzte egunero. Era berean, gehienek bazkaldu eta afaldu egiten dute, eta gosalduek ere lau gaztetatik hiruk egiten dute. Askotariko produktuez osatutako elikadura orekatua da; deigarria da frutari ematen zaion garrantzia. Beraz, Euskadiko

gazteen elikadura-azturak osasungarria denetik hurbil daudela esan dezakegu, gehienek elikadura zaintzeko ardura familiaren esku uzten baitu.

Baina neskek eta mutilek elikadurarekin duten harremana oso desberdina da. Gizonek jatea gozagarria den zerbaitekin lotzen dute, baina emakumeentzat harreman horrek ñabardura gatazkatsuak ditu. Gazteen artean nerabeek, perfektutik hurbil dagoen gorputz bat lortzeko xedez, beren buruari inposatzen dizkieten dieten eta kontrolen ondorioz sortzen da gatazka. Helduen artean, berriz, elikadura-desorekek (betekadak, etab.) psikologikoa eta emozionala denarekin erlazionatutako ondoez-egoerak islatzen dituzte.

#### 4.3.2.2. Kirola egitea

Euskadiko gazteen erdiak baino gehiagok kirol bat egiten du gutxienez (%54,5), eta %63,6k astean bitan baino gehiagotan egiten du. %49,9k bere kasa egiten du kirola eta %45,7k, aldiz, «klub, elkarte edo talde bateko jarduera gisa» egiten du. Eta kirola funtsean «lagun-talde» batekin egiten da (%53,5).

Baina adinaren eta generoaren arabera, praktika hori ez da berdina gazte-sektore guztietan; kirolaren maila, mota eta egiteko arrazoiak aldatu egiten dira.

Arreta adinean jartzen badugu, edozein kirol egiteko ohitura gutxitu egiten da adinarekin; dena den, hogeita hamar urteren inguruan dirudienek sektore batzuek berreskuratu egiten dituzte kirola egiteko ohitura batzuk.

Kirola egiteko argudiatzen dituzten arrazoiei dagokienez, inkestako datuek adierazten dutenez kirola funtsean «dibertitzeko eta denbora pasatzeko» (%33,5), «kirola gustatzen zaie-lako» (%20,6) eta «ariketa fisikoa egiteko» (%18,0) egiten dute.

Baina desberdintasun deigarrienak generoen arteko konparaketan daude. Hasteko, kirola egiteko maiztasuna gizonezkoen artean emakumeen artean baino handiagoa dela esan daiteke (gizonek %66,1ek kirola egiten du eta emakumeek %42,6k). Emakumeen artean, hamarretik ia seik ez du batere kirolik egiten.

Gizonek kasuan, kirol-praktika batez ere esparru sozialarekin erlazionatzen da; kirola egitea lagunekin elkartu eta gozatzeko eremu gisa bizitzen da. Beraz, %58,8k dio kirola lagun ar-

tean egiten duela eta, aldiz, ehuneko hori %45,3koa da emakumeen artean. Emakumeek ariketa fisikoa bakarka egiteko joera handiagoa dute: %24,5ek dio kirola gehienetan bakarrik egiten duela, baina ehuneko hori %14,0ra murrizten da gizonen kasuan.

Gizonen artean kirola egiteak, halaber, kirol formal eta diziplinatuari loturiko ñabardurak hartzen ditu. Emakumeek, ordea, ez dute hainbeste hitz egingo berezko «kirolaz», «ariketa fisikoz» baizik. Azken kasu horretan ariketa fisikoa egiteko moduak izango lirateke, esate baterako, oinez edo bizikletan ibiltzea, mendira joatea, paseatzea, etab., hau da, kirol formalaren ñabardurarik ez izan arren osasungarria denaren eremuan kokatzen direnak.

Batzuek eta besteek kirola egiteko dituzten arrazoien artean ere badira desberdintasunak. Emakumeentzat irudiaren eta emozionala denaren mailek pisu handiagoa dute gizonen kasuan baino.

Kirola egiten den tokiari dagokionez, emakumeek gimnasioa aukeratzen dute (%65,4) gizonak atari zabala aukeratzen duten proportzio berean (%63,8).

Azkenik, azpimarratzekoak dira dopingak eta suspergarrien erabilerak gimnasioetan eta bestelako kirol-guneetan ariketa fisikoak, kirolak eta jolas-jarduerak egiten dituztenen artean duten hedapen-maila. Ildo horretan —eta inkestatuei gai horri buruzko iritzia ematea zaila egiten zaien arren— %56,5entzat hedapena handia da. Horrek pentsarazten digu gazteek ezagutzen eta praktikatzeko dituzten kirol-jardueretan halako produktuak erabiltzen direla.

#### 4.3.2.3. Bide-segurtasuna

Gazte gehienek ibilgailu moitaren bat darabilte (%76,2), eta horien artean ohikoenak «auto berria» (%35,4) eta «auto zaharra» (%31,0) dira —bereziki langileen artean— eta «bizikleta» (%28,6) —ikasleen artean—.

Prebentzio-neurri desberdinak hartzeari dagokionez uhala erabiltzea badirudi gazteen artean ohikoa dela eta ez horrenbeste kaskoa erabiltzea.

Gazteek trafiko-istripuen kausa nagusi bezala abiadura azkarregia (%36,4) eta alkohola-ren kontsumoa (%32,3) aipatzen dituzte. Hala ere, haien diskurtsoetan bi jarrera horiek «arduragabeak» eta «axolagabeak» direla adierazten dute. Horrek ez du esan nahi jokabide arrisku-

tsuak errotik kendu direnik, ezta gutxiagorik ere, gainera indarrean jarraitzen du hala eta guztiz ere «kontrolatu» egiten delako ideiak; baina taldeetan jarrera horiek kritikatu eta gaitzetsi egiten diren neurrian, gazteek eurek hartzen dute istripuen prebentzioko eragileen funtzioa, eta horrek bai, horrek eragin dezake istripu-kopuruaren beherakadan. Jakina, zigorren eragina ahaztu gabe.

Generoen arabera, gidatzeko orduan kontuz ibiltzean ere desberdintasunak daude. Zentzu horretan, trafiko-istripuak batez ere mutil gazteen arazo bat dela esan daiteke. Ildo berean, emakumeak dira alkoholaren kontsumoa istripu bat izateko kausatzat garbien hartzen dutenak (emakumeen %41,9, gizonezkoen %30,9ren aldean).

#### 4.3.2.4. Metodo antisorgailuak

Gazteen artean ezagunenak eta ohikoenak pilula antisorgailua eta preserbatiboak dira. Bestalde, horien erabileraren inguruan normaltasuna handia da eta gazteek erraz eskura ditzakete. Pilula antisorgailuari dagokionez, harreman egonkor bat dutela uste dutenean hasten dira metodo hori erabiltzen.

Itxuraz, bikote egonkorretan preserbatiboa eramateko erantzukizuna tradizionalki mutilen kontua izan da. Neska gazteek nolabaiteko lotsa sentitzen dute beren bikotekidearen aurrean «ematxar» itxura eman dezaketela uste dutelako. Hala eta guztiz ere, emakume helduenek naturaltasun handiagoz bizi dute neskek preserbatiboak eramatea eta, arian-arian, badirudi emakumeen azturak aldatzen ari direla eta prebentzioaz beraiek arduratzen hasi direla.

#### 4.3.2.5. Koitoaren ondorengo pilula

Gazteen diskurtsoan «aliatu ezin hobea» bezala agertzen da, arrazoi desberdinak direla-eta preserbatiborik gabe sexu-harreman osoak izan diren egoeretakako. Nerabezarotik gertu dauden gazte-sektore handi batzuentzat, beldur gehien nahi gabe haurdun geratzeari diotenez, lasaitasun-elementu ezin hobea da eta horretan oinarrituta haurdunaldiaren arriskua erlatibiza dezakete; baina ordainetan, preserbatiboaren erabileran erlaxatzearen ondorioz sexu-transmisioko gaixotasunak pairatzeko aukera handitzen da.

Txostenak adierazten duenez, gazteen sektore batzuetan pilula hori modu arruntean erabilitako antisorgailu bilakatzeko arriskua dago. Emakumeek orokorrean, baina are gehiago helduek, gehiago jartzen dute zalantzan pilula erabiltzearen eta gehiegi erabiltzearen egokitasuna, emakumeen osasunari lotutako arrazoiengatik. Hala ere, guztien ustez kasu larrietan erabil dezaketen larrialdietarako metodo bat da.

Eskuragarritasunari dagokionez, ez dago kexarik. Gazteek badute nahikoa informazio dauden baliabideei buruz eta, dirudienez, espezialistek ez dute eragozpenik jartzen errezeta medikoak egiteko orduan. Kritika bakarrak prezioari dagozkio —bereziki mutilen artean— eta baita batzuetan profesionalen aldetik pilula horrek emakumearen osasunean izan ditzakeen ondorioei buruz jasotzen duten informazio eskasari ere.

#### 4.3.2.6. Abortua

Koitoaren ondorengo pilularekin gertatzen denaren antzera, abortua ere nahi gabe haurdun geratzen direnean normaltasunez erabil dezaketen baliabidetzat hartzen dute gazteek. Abortuaren praktika ez da pilularena bezain hurbil hautematen, hau da, gazteei urrunago geratzen zaien zerbait da, baina dena den egoera larrietarako alternatibatzat hartzen dute.

Generoaren aldetik desberdintasunak daude abortu bat bideratzeko orduan. Osasunaren ikuskera osoago batetik, emakumeek, gazteenek ere —hauentzat abortu baten kostu ekonomikoa arazo handi bat izan daiteke— haurdunaldia nork bere borondatez etetea batez ere neskei ekartzen dizkien kostu psikologikoak kontuan hartuta baloratzen dute.

Dena den, atentzioa ematen du gizonezkoen gutxiengo baten jarrerak, haien ustez abortatzea diru-kontua dela ematen baitu.

## 4.4. GAIXOTASUN KEZKAGARRIENAK

Zehazki hitz eginez, gazteek ez dute gaixotasuna beren kezka hurbilenen artean kokatzen, gorputz gazte bat, haien ikuspegitik, osasuntsua baita berez. Beraz, ez dira ahul sentitzen gaixotasun organiko larrien aurrean. Autonomia galtzeak eta mugatuta geratzeak bai, kezka-

tzen ditu, eta generoaren arabera eta, ondorioz, gizonak eta emakumeek osasunaz dituzten ikuskera desberdinen arabera, horrek forma desberdina hartzen du diskurtsoetan.

Mutilen artean eta 13-15 urte bitarteko neska gazteen artean, galtzeko beldur diren autonomia fisikoa da, hain zuzen, trafiko-istripu bat izateko beldurrean zehazten dena. Ez zaie bururatzen autonomiaren galera adimenari lotuta egon daitekeenik, adibidez drogen kontsumoaren ondorioz, ez baitute kontsumo hori arrisku horrekin lotzen. Dena den, kalte neuronalak pairatzeko arriskuak hitz egiten dute, baina gehiegikeriarekin erlazionatuta legoke eta ez kontsumoarekin berarekin.

Emakumeen diskurtsoaren zati handi batean, ordea, garrantzi handiagoa hartzen du autonomiaren galerak ikuspegi mentaletik, batez ere depresioan ardatzen den ekimenaren galerari edo utzikeriari lotuta.

Beste maila batean, gazteak horren interpelatuta eta ahul sentitzen ez diren egoera batean, minbizia eta HIESa aipatzen dituzte gaixotasun kezkarri gisa. Gaixotasun horien inguruko diskurtsoak norberaren erantzukizuna eta prebentzioaren aukera ditu oinarri.

Ikuspegi horretatik, leku oso desberdina esleitzen zaio gaixotasun bakoitzari eta, beraz, kasu bakoitzeko prebentzio-aukerari ere. Minbizia subjektuak zerikusirik ez duen gorabehera ugariko prozesu gisa hautematen dute —horrek praktika osasungarriak erlatibizatzea eragin dezake—, baina HIESaren kasuan erantzukizuna norbanakoari egozten zaio, eta horrek eragin positiboa du prebentzio-neurriak hartzeko orduan.

Deigarria da gazte-sektore batzuetan HIESari buruz dagoen informazio-falta. Gazte batzuek uste dute berekin gorputzaren hondatze fisikoa dakarren gaixotasun hilgarria, kanpotik ikus daitekeena dela HIESa. Hortaz, gaixotasunaren inguruan osatutako irudia pertsonaren itxurarekin bat ez datorrenean, gazteak ez daude hain erne neurri profilaktikoak hartzeko orduan.

Zehaztu egin behar dugu, adinaren eta generoaren arabera, prebentzio-neurrien erabilera aldatu egiten dela. Adinean aurrera egin ahala, HIESaren ondorioei, arazoari eta gaixotasunarekin erlazionatutako guztiari buruzko hausnarketa handiagoa da, bai eta kontzientziarioa ere. Bestalde, emakumeek —batez ere zaharrenak diren gazteek—, jarrera proaktiboagoa dute prebentzio-neurrien aurrean. Gizonak, ordea, artapen pertsonalaren erantzukizuna beste pertsonaren eskuetan uzten dute.

## 4.5. OSASUNAREN SUSTAPENA ETA HEZKUNTZA

Inkestatuak izan diren gazteen erdiak baino gehiagok (%54,4) neurritz kanpoko alkoholen kontsumoari buruzko informazioa jaso du bere irakasleen bitartez, eta informazio hori baliagarritzat jotzen du %64,7k. Dena den, balorazioa alderantzikatu egiten da legez kanpoko drogen kontsumoari eta modu arriskutsuan gidatzeari buruzko prebentzio-kanpainez duten iritzia ematean. Gazte gehienek ustez kanpaina horiek eraginik gabeak dira.

Osasunaren sustapeneko eta hezkuntzako ekintza gehienak unibertsiteatekoak ez diren etapetan dauden gazteei zuzenduta daude. Informazio hori eskuratzeko aukeratik kanpo gertzen dira ikasketak goiz uzten dituztenak.

Gazteen iritziak bat datoz, neurri handi batean, jasotzen dituzten osasun-hezkuntzako ekintzetatik baliagarria eta interesgarria iruditzen zaienari buruzko iritzia ematean. Ikuspegi teoriko/arau-emaile huts baten aurrean, zuzenean parte hartzea eskatzen dute, hausnartzeko, eztabaidatzeko, interpelatuak izateko eta, azken batean, ekintzetako subjektu aktibo gisa tratatuak izateko aukera eskaintzen duten eremuak eskatzen dituzte.

## 4.6. SISTEMA MEDIKOA

Euskadiko gazteek batez ere osasun-zerbitzu publikoak erabiltzen dituzte (%84,6) eta urtean batez beste 5,5 aldiz jotzen dute haietara, eragozpen handirik gabe. Espezialitateen arabera, 2005. urtean mediku orokorra izan zen gazteek gehien bisitatu zutena (%68,4). Mediku orokorrarengana joateko arrazoi nagusiak diagnosia edota tratamendua (%53,6) eta azterketak (%31,8) dira.

Bestalde, gazteek sexualitateari, arazo psikologikoei eta mendekotasun desberdinei buruzko gaiak tratatzeko orduan zerbitzu horiek duten baliagarritasuna hala-moduz baloratzen dute. Osasun-zerbitzu publikoen baliagarritasun handiena hautematen dute sexu-transmisioko gaixotasunen tratamenduan (oso baliagarria edo baliagarria da gazteen %58,2rentzat), sexualitate-arazoen tratamenduan (%51,7) eta desiratu gabeko haurdunaldien kasuan (%51,5). Prebentzio gisa duten baliagarritasunari dagokionez, balorazioa ere hala-moduzkoa da: kasu horretan gazteek eraginkortasun handiena HIESaren prebentzioan duela uste dute.

Oro har, Euskadiko gazteek lehen mailako arretako osasun-zerbitzuez egiten duten balorazioa hala-moduzkoa dela esan daiteke, hain zuzen, 6,95 puntukoa 0tik 10era bitarteko eskalan (balorazio ezin okerragoa-balorazio bikaina). Bestalde, osasun-zerbitzuak gaixotasunak tratatzen laguntzen duten zerbitzu bezala ikusten dira prebentziorako zerbitzu bezala baino gehiago.

Era berean, emakume gazteek ginekologia-zerbitzua ez dute prebentzioaren esparrura mugatzen. Era horretako bisitak motibatzen dituen normalean emakumearen sexu- eta ugalketa-jarduerari lotuta dago. Ildo horretan, ginekologoarenganako bisitak ugaltzeari baka-rrik lotzean, emakumeen osasunaren zainketan gertatzen ari den murrizketa adierazi behar da.

Bestalde, gazteek espezialisten aldetik jasotzen duten arreta defizitarioak ere eragotzi egiten du bisita horien normalizazioa.



**KGk**

COLECCIÓN **GAZTEAK** BILDUMA

## 5. Metodologia





# 5

## Metodologia

Ikerketa honetan proposatutako helburuaren arabera, erabili den metodologia emic ikuspegiari oinarritu da batez ere. Hau da, gazteek beraien osasunari lotutako gaiari ematen dieten esanahia eta interpretazioa nagusitu dira. Hala ere, eta ikerketa osatzeari begira, atal batzuetan Gazteen Euskal Behatokitik hartutako bigarren mailako informazio-iturriak erabili dira.

Beste alde batetik, metodo kuantitatibo zein kualitatiboak erabili dira, egoki iritzi baitiogu osasunaren inguruko esanahi, pertzepzio eta interpretazioak ezagutzeaz gain, neur daitezkeen osasun nozioaren barruko elementuen garrantzia, banaketa, intentsitatea eta hedapena neurteari. Horrela, gai horrekin lotutako eremu zabalagoa aztertzeke aukera izan dugu.

Analisi kuantitatiboa bat dator horrela analisi kualitatiboarekin gai batzuetan, baina horiek ez du hala izan behar nahitaez. Bi analisisiek elkar osatzen dute eta informazio desberdina ematen dute.

Beharrezkoa da metodologiaren sarrera honetan aipatzea aldagai batzuk kuantitatiboki aztertu direla, eta hainbat alditan, ia urte eta erdiz. Kasu horietan, azterketan barrena informazio hori nabarmendu egiten da.

Informazio aberatsagoa eskaini ahal izateko, azterketa-unibertsoan dauden barne-desberdintasunak identifikatzeko kontuan hartu diren ezaugarri soziodemografikoak ondokoak izan dira:

1. Generoa: gizonak eta emakumeak.
2. Adina: 15-19, 20-24 eta 25-29 urte.
3. Lurralde historikoa: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.
4. Maila sozioekonomikoa: maila ertain-baxua eta baxua, maila ertaina, eta maila ertain-altua eta altua.
5. Lanbidea: ikaslea, langilea, ikasle eta langilea, eta langabea.

## 5.1. TRESNAK

Informazioa jasotzeko erabilitako teknikak izan dira telefono bidezko inkesta analisi kuantitatiborako, eta eztabaida-taldea eta profesionalei egindako elkarrizketa, analisi kualitatiborako.

## 5.2. AZTERKETA UNIBERTSOA

Inkestaren azterketa-unibertsoa EAEn bizi diren 15etik 29 urtera bitarteko bi sexuetako gazteek osatzen dute.

Analisi kualitatiboan azterketa-unibertsoa osatzen duen populazioa zabalagoa da, EAEn bizi diren 13tik 29 urtera bitarteko bi sexuetako gazteek osatzen baitute.

## 5.3. LAGINA

Telefono bidezko inkestan lurraldearen, udalerrriaren, sexuaren eta adinaren arabera laginketa aleatorio geruzatua erabili da, kuoten proportzionala den esleipenarekin. Beraz, elkarriketatuen kopuru osoa EAEn bizi diren 15etik 29 urtera bitarteko 4.200 gaztekoa izan da eta horrek, %95eko konfiantza-mailarekin eta  $p=q$  izanik,  $\pm 2,62$ ko perdoia ematen du lagin osorako.

Analisi kualitatiborako ondoren azalduko den moduan osatutako hamaika talde-bilera egin dira guztira:

1. TB: 13tik 15 urtera bitarteko emakumeak, maila ertain/ertain-baxukoak, ikasleak (ikastetxe publikoetan nahiz ikastoletan) eta Sestaokoak.

2. TB: 13tik 14 urtera bitarteko gizonak, maila ertainekoak, ikasleak (ikastetxe publikoetan nahiz ikastoletan) eta Lekeitiokoak.

3. TB: 16tik 18 urtera bitarteko gizonak, maila ertain/ertain-baxukoak, ikasleak (Baxilergokoak), eta Aguraingoak.

4. TB: 16tik 18 urtera bitarteko emakumeak, maila ertain/ertain-altukoak, ikasleak (Baxilergokoak), eta Donostian bizi direnak.

5. TB: 16tik 18 urtera bitarteko gizonak, maila ertain/ertain-baxukoak, ikasleak (Baxilergokoak nahiz Lanbide Heziketakoak) eta Bilbon bizi direnak.

6. TB: 19tik 24 urtera bitarteko gizonak, maila ertain/ertain-baxukoak, ikasle izandakoak (Lanbide Heziketakoak edo ikasketak amaitu gabeak), gaur egun aldi baterako langileak (zerbitzuak eta tailerrak) eta Arrasaten bizi direnak.

7. TB: 19tik 24 urtera bitarteko emakumeak, maila ertain/ertain-altukoak, ikasleak (unibertsitatekoak) edo aldi baterako langileak (aisialdiarekin eta gauarekin erlazionatutako lanpostuetan) eta Bilbon bizi direnak.

8. TB: 19tik 24 urtera bitarteko emakumeak, maila ertain/ertain-baxukoak, zerbitzuen sektorean lanean ari direnak (gaitu gabeko lanpostuetan) eta Gasteizen bizi direnak.

9. TB: 25etik 29 urtera bitarteko emakumeak, maila ertainekoak, unibertsitateko ikasketarik gabeak, lan ez-teknikoetan lanean ari direnak, seme-alabarik gabeak eta Zarautzen bizi direnak.

Hasierako proiektuan aurreikusitako bederatzi talde hauez gain, azterketan alde aurreko taldeen oinarrizko diseinua duten beste bi sartu dira, beren jarrera diskurtsiboa egiaztatu nahi zelako. Bi talde horiek dira:

8b. TB: 19tik 24 urtera bitarteko emakumeak, maila ertain/ertain-baxukoak, zerbitzuen sektorean lanean ari direnak (kualifikatu gabeko lanak) eta Bilbon bizi direnak.

1. Lt: 16tik 18 urtera bitarteko gizonak, maila ertain/ertain-baxukoak, ikasleak (Baxilergokoak) eta Bilbon bizi direnak.

Elkarrizketatutako profesionali dagokienez, arlo eta esparru oso desberdinetako hamar profesional izan dira ikerketako solaskide:

- Ospitalez kanpoko osasun mentaleko psikiatra. Bizkaia.
- Ospitalez kanpoko osasun mentaleko psikiatra arduraduna. Gipuzkoa.
- Herrizaingo Saileko bi teknikari. Bide segurtasuna. Gasteiz.
- Eskola-osasunaren arduraduna. Bizkaia.
- EAEko HIESaren Prebentzio eta Kontrolleko Planaren arduraduna. Donostia.
- 112 zerbitzuaren arduradunak. Bizkaia.
- Larrialdien zerbitzuko erizaina. Bizkaia.

## 5.4. LANDA LANA

Telefono bidezko inkestei dagokien landa-lana telefono galdeketen hiru fasetan edo inkestalditan burutu zen, 2006ko martxoaren 27tik abenduaren 1era bitartean eta Gizaker enpresak egin zuen.

- Lehen fasea. Telefono-galdeketen lehen fasea 2006ko martxoaren 27tik apirilaren 5era bitartean egin zen.
- Bigarren fasea. Bigarren fasean landa-lana 2006ko uztailaren 5etik 17ra bitartean garatu zen.
- Hirugarren fasea. Azkenik, landa-lanaren hirugarren fasea 2006ko azaroaren 23an hasi zen eta abenduaren 1ean amaitu.

Analisi kualitatiboa egiteko datu-bilketa 2006ko irailaren 21etik urriaren 25era bitartean garatu zen eta CIMOP enpresak egin zuen, bai bilketa eta bai datuen ikerketa.

## 5.5. DATUAK EMATEKO MODUA

Inkestako datuei dagokienez, azterlanean aldagaien desagregazioa eskaintzen da, kontuan hartu ditugun ezaugarri soziodemografikoen arabera (generoa, adina, lurralde historikoa, maila sozioekonomikoa eta lanbidea) esanguratsuak badira. Hau da, taldeen arteko aldeak, aipatutako irizpideen arabera, analisisian agertzen dira estatistikoki esanguratsuak badira.

